

VII.

Inkesta

Soziolinguistikoa

2021

VII.

Inkesta

Soziolinguistikoa

2021

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2024

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>>.

Argitaraldia: 1.a, 2024ko apirila

Ale-kopurua: 1.010

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastian, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Azala eta maketazioa: Concetta Probanza

Inprimatzailea: Centro Gráfico Ganboa, S.L.

ISBN: 978-84-457-3750-7

Lege Gordailua: LG G 209-2024

AURKIBIDEA

HITZAURREA	9
EUSKAL HERRIA	
1. BIZTANLERIA	13
2. HIZKUNTZA GAITASUNA	15
2.1. Hizkuntza-gaitasuna Euskal Herrian, erkidegoaren, lurraldearen eta hiriburuaren arabera	15
2.2. Hizkuntza-gaitasuna sexuaren eta adinaren arabera	20
2.3. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa: euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko	23
3. HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA	29
3.1. Lehen hizkuntza Euskal Herrian, erkidegoaren, lurraldearen eta hiriburuaren arabera	29
3.2. Lehen hizkuntza sexuaren eta adinaren arabera	32
3.3. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera	34
3.4. Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa	38
3.5. Euskararen irabaziak eta galerak	43
4. EUSKARAREN ERABILERA	44
4.1. Euskararen erabilera eragiten duten faktoreak: korrelazioak	44
4.2. Euskararen erabilera Euskal Herrian, erkidegoaren, lurraldearen eta hiriburuaren arabera	45
4.3. Euskararen erabilera sexuaren eta adinaren arabera	51
4.4. Euskararen erabilera hainbat eremutan: etxean, lagunen artean, eremu formalean	53
4.5. Euskararen erabilera sare sozialetan	56
5. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA	57
5.1. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera Euskal Herrian, erkidegoaren, lurraldearen eta hiriburuaren arabera	57
5.2. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza-gaitasunaren, sexuaren eta adinaren arabera	61
5.3. Euskarari buruzko interesa eta beste zenbait iritzi	62
6. LABURBILDUZ	66

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

1. BIZTANLERIA	71
2. HIZKUNTZA-GAITASUNA	76
2.1. Hizkuntza-gaitasuna Euskal Autonomia Erkidegoan, lurraldearen eta hiriburuaren arabera	76
2.2. Hizkuntza-gaitasuna sexuaren eta adinaren arabera	80
2.3. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa: euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko	82
3. HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA	88
3.1. Lehen hizkuntza Euskal Autonomia Erkidegoan, lurraldearen eta hiriburuaren arabera	88
3.2. Lehen hizkuntza sexuaren eta adinaren arabera	91
3.3. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera	93
3.4. Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa	97
3.5. Euskararen irabaziak eta galerak	101
4. EUSKARAREN ERABILERA	103
4.1. Euskararen erabilera eragiten duten faktoreak: korrelazioak	103
4.2. Euskararen erabilera Euskal Autonomia Erkidegoan, lurraldearen eta hiriburuaren arabera	104
4.3. Euskararen erabilera sexuaren eta adinaren arabera	109
4.4. Euskararen erabilera hainbat eremutan: etxean, lagunen artean, eremu formalean	110
4.5. Euskararen erabilera sare sozialetan	114
5. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA	115
5.1. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera Euskal Autonomia Erkidegoan, lurraldearen eta hiriburuaren arabera	115
5.2. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza-gaitasunaren, sexuaren eta adinaren arabera	118
5.3. Euskarari buruzko interesa eta beste zenbait iritzi	120
6. LABURBILDUZ	124

NAFARROA

1. BIZTANLERIA	129
1.1. Biztanleriaren banaketa hizkuntza-eremuaren arabera	132
2. HIZKUNTZA-GAITASUNA	135
2.1. Hizkuntza-gaitasuna Nafarroan, hiriburuan eta hizkuntza-eremuaren arabera	135
2.2. Hizkuntza-gaitasuna sexuaren eta adinaren arabera	139
2.3. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa: euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko	141

3. HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA	147
3.1. Lehen hizkuntza Nafarroan, hiriburuan eta hizkuntza-eremuaren arabera	147
3.2. Lehen hizkuntza sexuaren eta adinaren arabera	150
3.3. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera	151
3.4. Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa	155
3.5. Euskararen irabaziak eta galerak	159
4. EUSKARAREN ERABILERA	161
4.1. Euskararen erabilera eragiten duten faktoreak: korrelazioak	161
4.2. Euskararen erabilera Nafarroan, hiriburuan eta hizkuntza-eremuaren eta gune soziolinguistikoaren arabera	163
4.3. Euskararen erabilera sexuaren eta adinaren arabera	166
4.4. Euskararen erabilera hainbat eremutan: etxean, lagunen artean, eremu formalean	168
4.5. Euskararen erabilera sare sozialetan	172
5. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA	173
5.1. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera Nafarroan, hiriburuan eta hizkuntza-eremuaren arabera	173
5.2. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza-gaitasunaren, sexuaren eta adinaren arabera	177
5.3. Euskarari buruzko interesa eta beste zenbait iritzi	179
6. LABURBILDUZ	184

IPARRALDEA

1. BIZTANLERIA	189
2. HIZKUNTZA-GAITASUNA	192
2.1. Hizkuntza-gaitasuna Iparraldean, lurraldearen arabera	192
2.2. Hizkuntza-gaitasuna sexuaren eta adinaren arabera	195
2.3. Gaitasun erlatiboa: euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko	198
3. HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA	203
3.1. Lehen hizkuntza Iparraldean, lurraldearen arabera	203
3.2. Lehen hizkuntza sexuaren eta adinaren arabera	205
3.3. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera	207
3.4. Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa	210
3.5. Euskararen irabaziak eta galerak	213
4. EUSKARAREN ERABILERA	215
4.1. Euskararen erabilera eragiten duten faktoreak: korrelazioak	215
4.2. Euskararen erabilera Iparraldean, lurraldearen arabera	216

4.3. Euskararen erabilera sexuaren eta adinaren arabera	220
4.4. Euskararen erabilera hainbat eremutan: etxean, lagunen artean, eremu formalean	222
4.5. Euskararen erabilera sare sozialetan	225
5. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA	226
5.1. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera Iparraldean, lurraldearen arabera	226
5.2. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza-gaitasunaren, sexuaren eta adinaren arabera	229
5.3. Euskarari buruzko interesa eta beste zenbait iritzi	231
6. LABURBILDUZ	235
FITXA TEKNIKOA	237

HITZAURREA

VII. Inkesta Soziolinguistikoa sortu da aldaketa betean dagoen gizarte baten testuinguruan. XXI. mendeko aro postmoderno eta globalizatuaren zurrumbilo betean, hain zuzen. Gero eta migrazio-mugimendu gehiago ditugun aroan, eta beraz, hizkuntzen eta hiztunen arteko harreman berriak eraikitzea eskatzen digun inguru askotarikoan. Gizartearen zahartze-prozesu handiagoa ezagutzen ari den garaian, eta beraz, adinekoen zaintzarekiko behar berriak sortu diren aroan. Ingurune digitalak egindako bideak eraman gaitu hizkuntza batzuekin, pentsamendu eta egiteko modu ezberdinekin harremanetan jartzera, eta beraz, aniztasuna kudeatzen hastera.

Asko eta asko dira gizarte honetan gertatzen ari diren aldaketak, eta horietako guztiek eragiten diete hizkuntza komunitateen mintzaireri; eta beraz, baita euskara komunitateari ere.

Hain zuzen, Inkesta Soziolinguistikoa euskararen bilakaeraren datu egunera-tuak izateko sortu zen. Euskara mintzatzen den eremu osoaren egungo argazkia izateko eta, horretan oinarriturik, politika publiko eraginkorrek gauzatzeko. 2021ean ere hala etorri da *VII. Inkesta Soziolinguistikoa*.

Euskararen indarberritze-prozesuetan lanean dihardugun eragile eta ekintzaileri ezinbesteko gertatzen zaigu euskarak bere eremu zabalean duen errealitatea zein den jakitea. 1991z geroztik Euskal Herri osoko informazio soziolinguistikoa ematen digun oinarritzko tresna da inkesta soziolinguistikoa. Hogeita hamar urte hauetan euskarak zer bilakaera izan duen ezagutzeko aukera eman digu hizkuntza-aldagai nagusien bidez: euskararen ezagutza, transmisioa, erabilera eta jarrera. Inkesta berri honek ere informazio bera emango digu.

Gizartean bezala, euskararen bilakaeran aniztasuna da nagusi, eta lurralde eta eremu guztietan ditugu indarguneak eta zer hobetuak.

Euskal Autonomia Erkidegoan gora egin du euskararen ezagutzak (12 puntu) eta erabilerak (6,4 puntu), batez ere gazteen artean. Euskara sustatzearen alde dauden herritarrak ere gehiago dira gaur egun (12 puntuko hazkundera). Familia bidezko euskararen transmisioan aurrerapauso argiak izan dira, baina oraindik gutxi

dira euskara transmititzeko baldintza egokiak dituzten familietan bizi diren herritarrak. Beraz, euskararen irabazi gehienak etxetik kanpo, eskolan nagusiki, euskara ikasi duten herritarrei esker etorri dira. Hori aldaketa eragiten ari da euskaldunen ezaugarrietan. Gora egin du erdaraz errazago moldatzen den euskaldunen ehunekoak (%44) eta gero eta gehiago dira gune soziolinguistiko erdaldunetan edo nahiko erdaldunetan bizi diren euskal hiztunak.

Nafarroari dagokionez, argi-itzalak daude. Aldaketa demografikoek eragin handia izan arren (adibidez, atzerriko jatorria duten herritarrak biztanleriaren %16,4 ziren 2021ean) azken hamarkadetan euskaraz dakiten nafarren portzentajea, gutxika baina eten gabe igo da, gazteen artean, batik bat. 1991n hamar gazte nafarretatik bat baino ez zen euskaraz ongi moldatzen; 2021ean, aldiz, hamarretatik ia hiruk daki ongi euskaraz; eta eremu euskaldunetan hamar gaztetatik zortzik baino gehiagok. Bilakaera positiboa, hala ere, ez da hizkuntzaren alderdi guztietan hain garbi agertzen: erabileraren haztea apala izan da eta euskara sustatzeari buruzko aldeko jarrerak ez dira, azken urteotan, nafar gizartean nahi bezainbeste sendotu.

Iparraldearen hamar urteko hazkunde demografikoa Euskal Herriko azkarrena izan da (%9,6, 2011 eta 2021 artean) eta egoera honek euskararen egoerarekiko erronka handi bat du, hazkunde hori nagusiki erdaldunak diren Iparraldetik kanpoko pertsonak elikatzen baitute. Hala ere, 2021eko inkestak azken urteetako joera sustagarrien ondorioak baieztatzen ditu: gaztetan, euskara gaitasuna handituz doa, geroz eta azkarrago inkesta batetik bestera (%21,5 euskaldunak dira 16-24 adin tartean). Bestalde, lehen aldiz, euskaldunen irabaziak galerak baino handiagoak izan dira Iparraldean. Hala ere, irabazi horien azkartzea beharrezkoa izango da datorren hamarkadan. Euskararen erabileraren berrindartzea ere izango da erronka, apaltzen segitzen baitu, nahiz eta azkartze ahul bat ageri den gazteen artean.

2017an, Euskararen Erakunde Publikoak, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak euskararen sustapenari buruzko lankidetzaz hitzarmena Iruñean sinatu genuenetik, datuak elkarrekin aztertu eta hizkuntza politika bateratuak garatzeko plangintzak adosten ditugu urterik urte. Inkesta Soziolinguistikoa itunkideon arteko lankidetzaz aitortuaren emaitza bat ere bada, eta hala, jarraituko dugu elkarrekin ikertu eta proiektuak sustatzen, gure ahalmenak batuz sendotuko dugulako euskara komunitatea eta baita gure hizkuntza politikak ere.

BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Hizkuntza Politikako sailburua

ANA OLLO HUALDE

Nafarroako Gobernuaren bigarren
lehendakariordea eta Memoria eta
Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta
Euskarako kontseilaria

MAÏDER BEHOTEGUY

Euskararen Erakunde
Publikoaren lehendakaria



EUSKAL HERRIA

VII. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA

1. BIZTANLERIA

Euskal Herrian 3.167.490 pertsona bizi dira 2021ean. Euskal Herriko 2001eko eta 2021eko biztanleria alderatzen baditugu, ikus daiteke 243.491 pertsona gehiago direla termino absolutuetan.

Hogei urte horietan zehar, biztanleriaren bilakaera ez da berdina izan lurralde guztietan.

Lurraldeei erreparatuz, 2011ra arte, biztanleen kopuruak gora egin du lurralde guztietan, Zuberoan izan ezik. 2011-2016 aldian, ostera, Zuberoan ez ezik Bizkaian ere biztanleriak behera egin du. Nahiz eta lurralde horietan biztanleen kopuruak jaitsiera txiki bat izan, gainerako lurraldeen biztanleriaren hazkundeari esker, Euskal Herriko biztanleen kopuruak gora egin du aldi guztietan. Dena dela, azken hamarkadako igoera aurreko aldietakoa baino txikiagoa da.

1. taula. Biztanleriaren bilakaera lurraldearen eta erkidegoaren arabera.
Euskal Herria, 2001-2021

	2001	2006	2011	2016	2021
Euskal Herria	2.923.999	3.010.433	3.111.929	3.129.310	3.167.490
EAE	2.101.478	2.133.684	2.184.606	2.189.534	2.193.199
Araba	288.793	301.926	319.227	324.126	330.189
Bizkaia	1.132.616	1.139.863	1.155.772	1.147.576	1.144.123
Gipuzkoa	680.069	691.895	709.607	717.832	718.887
Nafarroa	556.263	601.874	642.051	640.647	661.537
Iparraldea	266.258	274.875	285.272	299.129	312.754
Lapurdi	222.097	230.065	239.635	252.492	266.237
Nafarroa Beherea	28.659	29.403	30.357	31.639	31.867
Zuberoa	15.502	15.407	15.280	14.998	14.650

Iturria: EAS (Euskararen Adierazle Sistema).

Bilakaera horren eragileak izan dira, batetik, saldo begetatiboak (jaiotzen eta heriotzen kopuruen arteko aldea) eta, bestetik, migrazio saldoak (immigrazioen eta emigrazioen kopuruen arteko aldea).


Bertako biztanleen ezaugarri nagusiak honakoak dira:

- Gero eta gizarte zaharragoa: bizitza-esperantza gero eta handiagoa, eta jaiotza-tasa, aldiz, oso txikia (2020an 7 jaiotza 1.000 biztanleko Euskal Herrian; Europar Batasuna-27an, aldiz, 9,1).
- Immigrazioaren hazkundera, atzerrian jaiotako biztanleena batez ere (EAEko biztanleen % 11,1 eta Nafarroako biztanleen % 16, 4 dira 2021ean).

Horrela, 2001etik hona, 65 urte edo gehiagoko biztanleriaren ehunekoak 5 puntuko hazkundera izan du, eta 2020an biztanleria osoaren % 23 da (% 18 zen 2001ean).

Horrekin batera, gazteak pisua galtzen joan dira. 2020an % 18,3 dira 20 urte baino gutxiago dituztenak. Hortaz, gehiago dira 65 urte edo gehiagokoak 20 urtetik beherakoak baino (% 23 versus % 18,3).

1. irudia. Biztanleriaren piramidea. Euskal Herria, 2020 (%)



2. HIZKUNTZA GAITASUNA


2.1. Hizkuntza-gaitasuna Euskal Herrian, erkidegoaren, lurraldearen eta hiriburuaren arabera

Hiru hiztun mota bereizten dira euskaraz hitz egiteko edo ulertzeko duten gaitasunaren arabera:

- **Euskalduna (elebiduna):** euskara ondo edo nahiko ondo ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
- **Euskaldun hartzailea (elebidun hartzailea):** Ez da euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiteko gai. Hala ere, badu euskararen nolabaiteko ezagutza. Zehazki, multzo honetan sartzen da honako baldintza hauetakoren bat gutxienez betetzen duena:
 - Euskaraz “zertxobait” ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
 - Euskara “ondo” edo “nahiko ondo” ulertzeko gai da.
- **Erdalduna (erdaldun elebakarra):** ez da gai euskaraz ulertzeko ezta hitz egiteko ere.


2021ean Euskal Herrian bizi den 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %30,2 euskalduna da, %16,1 euskaldun hartzailea eta %53,8 erdalduna.

2. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. Euskal Herria, 2021 (%)



Hiru erkidego edo herrialdeak kontuan hartuz, alde handiak daude batetik bestera. EAEn hirutik bat baino gehiago euskalduna da (% 36,2). Nafarroan, ordea, zazpitik bat da euskalduna (% 14,1). Azkenik, Iparraldean bostetik bat da euskalduna (% 20,1).

3. irudia. Hizkuntza-gaitasuna erkidegoaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)



2. taula. Hizkuntza-gaitasuna erkidegoaren arabera. Euskal Herria, 2021

	Euskal Herria	EAE	Nafarroa	Iparraldea
Guztira	2.683.858	1.882.445	545.476	255.937
Euskaldunak	809.341	681.072	76.784	51.484
Euskaldun hartzailak	431.092	349.253	57.834	24.005
Erdaldunak	1.442.868	852.119	410.300	180.448


Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Era berean, EAEko eta Iparraldeko lurraldeen artean ere alde handiak daude euskaldunen ehunekoan.

Horrela, EAEn Gipuzkoak du euskaldunen ehunekorik handiena (% 51,8). Bizkaiak, aldiz, euskaldunen ehuneko txikiagoa du (% 30,6). Azkenik, Arabak du EAEko lurraldeen artean euskaldunen ehunekorik txikiena (% 22,5).

Iparraldean ere alde handia dago lurraldeen artean. Izan ere, Nafarroa Beherean eta Zuberoan %47,5 dira euskaldunak eta Lapurdin (BAM barne) % 16,1.

4. irudia. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2021 (%)




3. taula. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2021

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Lapurdi	Nafarroa Beherea / Zuberoa
Guztira	283.343	994.892	604.210	545.476	223.340	32.597
Euskaldunak	63.686	304.211	313.175	76.784	35.995	15.489
Euskaldun hartzaileak	53.048	189.399	106.805	57.834	19.521	4.484
Erdaldunak	166.608	501.282	184.229	410.300	167.825	12.623


Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Hiriburuei dagokienez, aipatzekoa da euren lurraldeek baino euskaldunen ehuneko txikiagoa dutela. Horrela, Donostian euskaldunak %37,6 dira, %21,9 Bilbon, %20,7 Gasteizen, %13,5 Iruñean eta BAMen (Baiona-Angelu-Miarritze) %8,4.

5. irudia. Hizkuntza-gaitasuna hiriburuaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)


Azken hogeita hamar urteotako bilakaerari dagokionez, 2021ean 1991n baino 282.000 euskaldun gehiago daude Euskal Herrian. Ia 8 puntuko hazkundea izan dute euskaldunek ehunekoetan (%22,3 versus %30,2).

6. irudia. Euskaldunen bilakaera. Euskal Herria, 1991-2021




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskaldun hartzailleek ere ia 8 puntuko hazkundera izan dute hogeita hamar urte hauetan (% 7,7 versus % 16,1).

Erdaldunek, aldiz, 16 puntuko jaitsiera izan dute (% 70 ziren 1991n eta % 53,8 dira 2021ean).

7. irudia. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. Euskal Herria, 1991-2021 (%)



■ Euskaldunak
■ Euskaldun hartzailleak
■ Erdaldunak


Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Erdaldunen beherakada eta euskaldunen hazkundera are azpimarragarriagoa da kontuan hartzen baditugu azken urteotan gure gizarteak bizi izan dituen aldaketa soziodemografikoak. Euskal gizartea gero eta zaharragoa da, eta jaiotze-tasa gero eta txikiagoa; hortaz, gazteen multzoak, euskaldun gehien biltzen dituen multzoa izanik, gero eta pisu txikiagoa du gizarte osoarekiko.

Euskaldunek EAEn eta Nafarroan gora egin dute; Iparraldean, aldiz, behera. Horrela, 1991n EAEn euskaldunak %24,1 ziren eta gaur egun, ostera, %36,2. Halaber, Nafarroan euskaldunak %9,5 ziren eta gaur egun %14,1 dira. Iparraldean 1996an euskaldunak %26,4 ziren; 2021ean, aldiz, %20,1 dira.

Iparraldean 1996ko inkesta hartuko dugu abiapuntutzat bilakaerak egiteko, eta ez 1991koa.

8. irudia. Euskaldunen bilakaera erkidegoaren arabera. Euskal Herria, 1991-2021 (%)



2.2. Hizkuntza-gaitasuna sexuaren eta adinaren arabera

Sexuari dagokionez, emakumezkoen %30,5 dira euskaldunak Euskal Herrian eta gizonezkoen %29,9. Ikusten denez, emakumezkoen ehunekoa zertxobait handiagoa da gizonezkoena baino.

Alderik handiena EAEn dago, 0,7 puntuko aldea gizonezko eta emakumezkoen ehunekoan (% 36,5 emakumezko euskaldun versus % 35,8 gizonezko euskaldun).

Gogoan izan behar da EAEn helduen euskalduntzean ikasten ari direnen artean emakumeak gehiengoak direla. Horrela, 2020/21 ikasturtean euskara ikasten ari diren helduen % 65,2 emakumeak dira, bi heren, alegia. Horren ondorioz, emakume gehiago euskaldundu dira helduen euskalduntze sistemari esker. Gertaera hau ez da berria, hala gertatu baita azken hogeita bost urteotan, 1996tik aurrera, alegia.


Nafarroan eta Iparraldean ez dago ia alderik gizonezko eta emakumezko euskaldunen ehunekoan sexuaren arabera.

4. taula. Euskaldunak sexuaren eta erkidegoaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)


	Euskal Herria	EAE	Nafarroa	Iparraldea
Guztira	30,2	36,2	14,1	20,1
Emakumezkoak	30,5	36,5	14,1	20,0
Gizonezkoak	29,9	35,8	14,1	20,3

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskaldunen adinari erreparatuz gero, ikus daiteke euskaldunen ehunekorik handiena 35 urtetik beherakoen artean dagoela. Hala ere, euskaldunen hazkundera 50 urtetik beherako adin-talde guztietan gertatu da. Horrela, 16 eta 24 urte bitartekoen erdia baino gehiago euskaldunak dira gaur egun (% 57,9); 1991n, aldiz, ez ziren laurdenera iristen (% 22,5).

9. irudia. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)


Hortaz, euskaldunen hazkundera gazteenetik ari da zabaltzen. Multzorik erdaldunena helduena da, baina urteak aurrera egin ahala, multzo hori euskaldunak irabazten ari da. Hau da, gazteak gero eta euskaldunagoak diren heinean, helduen multzoan ere haziz doa euskaldunen ehunekoa.

10. irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Euskal Herria, 1991-2021 (%)


Adinaren arabera joera hori EAEn eta Nafarroan gertatu da, nahiz eta bateko eta besteko ehunekoak oso bestelakoak izan. Gazteenen euskalduntzea agerikoa da, eta erdaldunen ehunekoaren jaitsiera orokorra. 16-24 urte bitartekoen laurik hiru euskaldunak dira EAEn (% 74,5) eta Nafarroan ehuneko txikiagoa da (% 28), baina joera bera da.

Iparraldean, ordea, euskaldunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoen artean dago, eta adinean behera egin ahala, euskaldunen ehuneko behera doa, 25-34 adin-taldera iritsi arte, joera aldatu egiten baita. Dena dela, euskaldunen ehunekoaren igoerarik handiena 16-24 urte bitarteko gazteena da (% 21,5 dira 2021ean eta % 11,3 ziren 1996an).

5. taula. Euskaldunak adinaren eta erkidegoaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)

	ADINA					
	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskal Herria	30,2	20,0	22,7	30,5	43,3	57,9
EAE	36,2	22,1	26,6	37,4	54,4	74,5
Nafarroa	14,1	8,4	9,9	13,4	20,2	28,0
Iparraldea	20,1	25,7	19,3	15,1	17,2	21,5

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

2.3. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa: euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko

Euskaldunen gaitasun erlatiboa aztertuko da orain, hau da, euskaraz eta erdaraz (gaztelania edo frantsesa batik bat) hitz egiteko erraztasuna Euskal Herrian.

Aurrerantzean erdara hitza erabiliko da euskara ez den beste edozein hizkuntza adierazteko.

Honako hauek dira euskaldunak gaitasun erlatiboaren arabera:

- **Euskal elebidunak:** erraztasun handiagoa dute euskaraz hitz egiteko erdaraz hitz egiteko baino.


- **Elebidun orekatuak:** bi hizkuntzetan erraztasun bera dute. Izan ere, euskaldun hauek adierazten dute euskaraz eta erdaraz, bietan, berdin hitz egiteko erraztasuna dutela.
- **Erdal elebidunak:** erraztasun handiagoa dute erdaraz hitz egiteko euskaraz hitz egiteko baino.

16 urte edo gehiagoko euskaldunen %26,3k erraztasun handiagoa du euskaraz egiteko erdaraz baino, hau da, euskal elebidunak dira.

Elebidun orekatuak, aldiz, erraztasun bera du euskaraz zein erdaraz egiteko eta euskaldunen %28,6 dira.

Azkenik, erdal elebidunak erraztasun handiagoa du erdaraz egiteko euskaraz baino, eta %45,1 dira. Euskaldunen multzorik handiena da, ehuneko handiagoa izanik, adinak behera egin ahala.

11. irudia. Euskaldunak erraztasunaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)




EAEn dago euskal elebidunen ehunekorik handiena (%27,4) eta Nafarroan eta Iparraldean txikiena: %20,4 eta %20,5 hurrenez hurren.

Iparraldeak du elebidun orekatuen ehunekorik handiena (%33,3), EAEn %28,3 dira eta Nafarroan %28.


Nafarroako euskaldunen erdia baino gehiago erdal elebiduna da (%51,6), EAEn %44,3 eta Iparraldean %46,2.

12. irudia. Euskaldunen erraztasuna erkidegoaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)



Euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko antzekoa da gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Gizonezkoen euskal elebidunen ehunekoa zertxobait handiagoa da emakumezkoena baino (% 26,5 versus % 26,1).

Elebidun orekatuen eta erdal elebidunen ehunekoen arteko aldeak txikiagoak dira, hau da, 0,2 eta 0,6 puntukoak hurrenez hurren. Emakumezkoen % 28,5 dira elebidun orekatuak eta gizonezkoen kasuan % 28,7. Azkenik, emakumezkoen % 45,4 dira erdal elebidunak eta % 44,8 gizonezkoak.


13. irudia. Euskaldunen erraztasuna, sexuaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)


Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Adinari dagokionez, euskal elebidunen ehunekorik handiena 65 urtetik gorakoek dute (% 37,8), eta txikiena 25-34 urte bitartekoek (% 23,1) eta 16-24 urte bitartekoek (% 23,4).

Elebidun orekatuen ehunekorik handiena 50-64 urte bitartekoek dute (% 32,9).

Azkenik, erdal elebidunen ehunekoa handiagoa da adinak behera egin ahala. Horrela, 16-24 eta 25-34 urte bitarteko euskaldunen erdia baino gehiago erdal elebidunak dira (% 55,7 eta % 50,6 hurrenez hurren).

14. irudia. Euskaldunen erraztasuna, adinaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskaldunen erraztasuna aldatu egin da 1991tik hona.

Duela hogeita hamar urte, euskal elebidunen eta erdal elebidunen ehunekoa nahiko antzekoa zen (% 34,6 versus % 37,8).

Gaur egun, ordea, erdal elebidunen ehunekoa 18,8 puntu handiagoa da euskal elebidunena baino (% 26,3 versus % 45,1).

15. irudia. Euskaldunen erraztasunaren bilakaera. Euskal Herria, 1991-2021 (%)



Adinaren araberako bilakaera aztertuz gero, ikus daiteke 1991n euskal elebidunen ehunekoak behera egiten zuela adinean behera egin ahala. 2021ean ere ehunekoa jaitsiz doa adinean behera egin ahala, baina askoz motelago. Izan ere, 2021ean 16-24 eta 25-34 urte bitartekoen euskal elebidunen ehunekoa (% 23,4 eta % 23,1) handiagoa da 1991koa baino (% 19,5 eta % 18,5).

1991n elebidun orekatuen ehunekorik altuena 25-34 urte bitartekoez zuten (% 32,2). 2021ean, berriz, 50-64 urte bitartekoez dute (% 32,9).

Azkenik, 2021ean erdal elebidunen ehunekorik altuena 16-24 eta 25-34 urte bitartekoez zuten (% 52,8 eta % 49,3). 2021ean ere ez da aldatu joera, 16-24 eta 25-34 urte bitartekoez baitute ehunekorik altuena (% 55,5 eta % 50,6).

6. taula. Euskaldunen erraztasunaren bilakaera adinaren arabera. Euskal Herria, 1991-2021(%)

1991	ADINA					
	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskaldunak	528.521	98.274	126.679	109.512	93.027	101.028
Euskaraz errazago	34,6	57,3	44,2	30,6	18,5	19,4
Euskaraz zein erdaraz berdin	27,7	24,5	27,2	27,0	32,2	27,8
Erdaraz errazago	37,8	18,2	28,5	42,4	49,3	52,8
2021	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskaldunak	809.341	137.156	155.839	218.314	140.648	157.383
Euskaraz errazago	26,3	37,8	25,3	24,0	23,1	23,4
Euskaraz zein erdaraz berdin	28,6	30,7	32,9	31,0	26,3	21,2
Erdaraz errazago	45,1	31,5	41,8	45,0	50,6	55,5

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.


3. HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA

3.1. Lehen hizkuntza Euskal Herrian, erkidegoaren, lurraldearen eta hiriburuaren arabera

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 15,4k euskara soilik jaso du etxean eta % 5,7k euskara eta erdara jaso ditu. Era berean, hamarretik ia zortzik (% 78,9), erdara soilik jaso du. Erdara diogunean, gaztelaniari edo frantsesari buruz ari gara nagusiki, baina ez da ahaztu behar gero eta gehiagoren lehen hizkuntza errumaniera, portugesa, arabiera, errusiera eta abar direla.

16. irudia. Lehen hizkuntza. Euskal Herria, 2021 (%)



Lehen hizkuntzaren bilakaerari dagokionez, lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa duela 30 urte baino txikiagoa da: % 19,5 zen 1991n eta % 15,4 da 2021ean (4,1 puntuko jaitsiera).

Lehen hizkuntza euskara eta erdara dutenen ehunekoa, aldiz, handiagoa da. % 3 zen 1991n eta % 5,7 da 2021ean (2,7 puntuko hazkundera).

Lehen hizkuntza erdara dutenen ehunekoa handiagoa da 2021ean, % 77,5 baitzen 1991n eta % 78,9 da 2021ean (1,4 puntuko hazkundera).


7. taula. Lehen hizkuntzaren bilakaera. Euskal Herria, 1991-2021

	1991	2021	1991 (%)	2021 (%)
Guztira	2.371.079	2.683.858	100,0	100,0
Euskara	462.118	413.575	19,5	15,4
Euskara eta erdara	70.520	153.543	3,0	5,7
Erdara	1.838.442	2.116.739	77,5	78,9

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Lehen hizkuntza erdara dutenak nagusi dira Euskal Herriko erkidego guztietan, baina alde handiak daude batetik bestera.


Lehen hizkuntza erdara dutenak hiru erkidegoetan nagusi badira ere, EAEk eta Iparraldeak dute ehunekorik txikiena lehen hizkuntza erdara dutenen artean (% 75,1 eta % 80,7). Nafarroan erdara da herritaren % 90,9aren lehen hizkuntza.

17. irudia. Lehen hizkuntza erkidegoaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)


Lurraldeei erreparatuz, alde handia dago lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoan.

Izan ere, Nafarroa Behereko eta Zuberoako herritarren artean dago lehen hizkuntza euskara soilik jaso dutenen ehunekorik handiena (% 38,3). Gipuzkoan herritarren herenak du euskara lehen hizkuntza (% 34). Bizkaian eta Lapurdin txikiagoa da lehen hizkuntza euskara duten herritarren ehunekoa (% 12,9 eta % 9,6 hurrenez hurren). Azkenik Nafarroako (% 6,1) eta Arabako (% 4,5) herritarrek dute euskara soilik jaso dutenen ehunekorik txikiena.

18. irudia. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2021 (%)



Lurraldeetako datuak eta hiriburuetakook kontuan hartuta, hiriburuan bere lurraldean baino txikiagoa da lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa. Donostiak du ehunekorik handiena (% 17,4); ondoren BAMEk eta Bilbok (% 5,1 eta % 5,0 hurrenez hurren). Azkenik, lehen hizkuntza euskara dutenak % 4,1 dira Gasteizen eta % 3,1 Iruñean.

Lehen hizkuntza euskara eta erdara dutenak %8,9 dira Donostian, %4,5 Bilbon, %3,3 BAMen, %3,3 Gasteizen eta %2,8 Iruñean.

Lehen hizkuntza erdara soilik dutenak %90 baino gehiago dira hiriburu guztietan Donostian izan ezik (%73,7).

8. taula. Lehen hizkuntza hiriburuaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)


	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruña	BAM
Guztira	214.865	304.619	163.066	172.176	104.384
Euskara	4,1	5,0	17,4	3,1	5,1
Euskara eta erdara	3,4	4,5	8,9	2,8	3,3
Erdara	92,5	90,5	73,7	94,1	91,7

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

3.2. Lehen hizkuntza sexuaren eta adinaren arabera

Emakumezkoen eta gizonezkoen artean ez dago alderik lehen hizkuntza euskara, euskara eta erdara edo erdara jaso dutenen ehunekoetan.


19. irudia. Lehen hizkuntza sexuaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.


Adinari erreparatuz, gaur egun 65 urte edo gehiagokoek eta 16-24 urte bitarteko gazteek dute euskara soilik jaso dutenen ehunekorik altuena (% 18,0 eta % 17,8 hurrenez hurren). Ehunekorik txikiena 35-49 urte bitartekoek dute (% 13,2).

20. irudia. Lehen hizkuntza, adinaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)



Duela 30 urte, lehen hizkuntza euskara soilik jaso zutenen ehunekorik altuena 65 urtetik gorakoen zuten (% 27,7) eta behera egiten zuen adinean behera egin ahala. Gazteenek zuten ehunekorik txikiena (% 15,7). Gaur egun, bi adin-talde horietan jarraitzen dute egoten ehunekorik handienak, baina balioak parekatu egin dira (% 18,0 eta % 17,8, hurrenez hurren).

1991n euskara eta erdara batera jaso zutenen ehunekoa txikiagoa zen adin-talde guztietan gaur egun baino. Dena dela, gazteenen artean dago alderik handiena. Izan ere, duela 30 urte, 16-24 urte bitarteko gazteen % 3,4k jaso zuen euskara eta erdara lehen hizkuntza gisa; gaur egun, aldiz, adin horretako gazteen % 11,4k jaso du, hau da, 8 puntuko aldea.

21. irudia. Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera. Euskal Herria, 1991-2021 (%)


3.3. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera

Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko euskaldunak etxean jaso duten hizkuntzaren arabera nolakoak diren aztertuko da orain.

Honako hauek dira euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera:


- **Euskaldun zaharrak:** euskara soilik jaso dute gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik hiru urte bete arte.
- **Jatorrizko elebidunak:** euskara eta erdara jaso dituzte gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik hiru urte bete arte.
- **Euskaldun berriak:** ez dute euskararik jaso etxean gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik. Etxetik kanpo ikasi dute euskara, eskolan edo euskaltegian.

Euskaldunen %47,9k euskara soilik jaso du etxean, hau da, euskaldun zaharra da.

Euskaldunen % 15,8k euskara eta erdara jaso ditu etxean, eta jatorrizko elebiduna da.

Azkenik, herenak baino gehiagok erdara jaso du etxean eta euskaldun berria da (%36,3). Azken hauek etxetik kanpo ikasi dute euskara, eskolan edo euskaltegian.


22. irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)



Euskaldunen multzoa asko aldatu da azken 30 urteotan. 1991n euskaldun gehienak (% 79,3) euskaldun zaharrak ziren, hau da, etxean jaso zuten euskara. 2021ean, aldiz, euskaldun zaharrek nagusi izaten jarraitzen badute ere, euskaldunen erdia baino gutxiago dira.

Euskaldun berrien pisua gero eta handiagoa da, euskaldunen % 36,3 dira eta % 13,6 ziren 1991n. Jatorrizko elebidunen ehunekoa ere hazi egin da (% 7,1etik % 15,8ra).

23. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. Euskal Herria, 1991-2021 (%)




EAEen (%47,7) eta Iparraldean (%60,4) nagusi dira euskaldun zaharrak, nahiz eta EAEen euskaldun berriek ere pisu handia izan (%36,9).

Iparraldean euskaldun zaharren eta euskaldun berrien arteko aldea handiagoa da (%17,4 dira euskaldun berriak).

Nafarroan, aldiz, gehiago dira euskaldun berriak (%43,6) euskaldun zaharrak baino (%41).

24. irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta erkidegoaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)



Lurraldeen arteko aldeak ere handiak dira. Izan ere, Araban euskaldun berriak nagusi dira alde handiz (%68,1). Arabako euskaldun zaharrak, aldiz, %17,8 dira eta jatorrizko elebidunak %14,1.

Bizkaian ere euskaldun berriak dira nagusi (%44,6); euskaldun zaharrak %38,9 dira eta jatorrizko elebidunak %16,5.

Nafarroan ere gehiago dira euskaldun berriak (%43,6), baina euskaldun zaharrek ere pisu handia dute (%41). Gainerako euskaldunak jatorrizko elebidunak dira (%15,4).

Gainerako lurraldeetan euskaldun gehienak euskaldun zaharrak dira.

Lapurdin euskaldun zaharrak % 54 dira; euskaldun berriak % 21,3 dira eta jatorrizko elebidunak % 24,7.

Gipuzkoan, euskaldunen % 62,5 dira euskaldun zaharrak; euskaldun berriak % 23 dira eta jatorrizko elebidunak % 14,5.

Azkenik, Nafarroa Beherean eta Zuberoan lau euskaldunetik hiru euskaldun zaharrak dira (% 75,1); euskaldun berriak % 8,5 dira eta jatorrizko elebidunak % 16,5.

9. taula. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2021 (%)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Lapurdi	Nafarroa Beherea / Zuberoa
Euskaldunak	63.686	304.211	313.175	76.784	35.995	15.489
Euskaldun zaharrak	17,8	38,9	62,5	41,0	54,0	75,1
Jatorrizko elebidunak	14,1	16,5	14,5	15,4	24,7	16,5
Euskaldun berriak	68,1	44,6	23,0	43,6	21,3	8,5


Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Adinari dagokionez, adinak behera egin ahala txikiagoa da euskaldun zaharren ehunekoa eta handiagoa euskaldun berriena eta jatorrizko elebidunena.

Euskaldun berrien hazkundera handia izan da adin-talde guztietan. 2021ean 16-24 urte bitarteko euskaldunen erdia euskaldun berria da (% 50). 1991n, aldiz, adin-tarte horretako euskaldunen % 25,5 ziren euskaldun berriak.

25-34 eta 35-49 adin-taldeetan euskaldunen % 40 baino gehiago dira euskaldun berriak; 1991n % 21,3 eta % 13,0 ziren, hurrenez hurren.

Gaur egun ez bezala, 1991n euskaldun zaharrak ziren nagusi adin-talde guztietan eta jatorrizko elebidunak oso gutxi ziren adin-alde guztietan, % 10 edo gutxiago.

25. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. Euskal Herria, 1991-2021 (%)

3.4. Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa

Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko inkestatu guztiei galdetu zaie zein hizkuntza jaso duten etxean, eta emaitzak gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera sailkatu dira.


Kontuan izan behar da inkestatuen artean 16 eta ia 100 urte bitarteko pertsonak daudela. Horren ondorioz, orain dela ia ehun urtetik hona gurasoek nola transmititu duten euskara jakin dezakegu.

Gurasoak biak euskaldunak izanik, seme-alaben %82k euskara soilik jaso du etxean Euskal Herrian, %9k euskara eta erdara eta %9k ez du euskararik jaso.

Guraso biak euskaldunak izanik, euskararen transmisioa handiagoa da adinean behera egin ahala. Horrela, euskararen transmisiorik handiena 16-34 urte bitarteko inkestatuek dute. Izan ere, %84k euskara soilik jaso du etxean eta %13k euskara eta erdara. Azpimarratzekoa da euskara eta erdara jaso duten gazteen hazkundera.

Guraso biak euskaldunak izanik, gero eta gutxiago dira euskararik jasotzen ez duten seme-alabak, eta gehiago euskara erdararekin batera jasotzen dutenak.

26. irudia. Transmisioa guraso biak euskaldunak direnean, adinaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)




Gurasoetako bat denean euskalduna, seme-alaben % 43k euskara eta erdara jaso dute eta % 58k erdara soilik.

Gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, desberdintasun handiak daude euskararen transmisioan adinaren arabera. Adinean behera egin ahala, euskararen transmisioa gero eta handiagoa da.

Horrela, gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, 50 urte edo gehiagoko seme-alaben % 28k jaso dute euskara etxean (erdararekin batera), 35 eta 49 urte bitartekoen % 53k eta 16 eta 34 urte bitartekoen % 56k.

27. irudia. Transmisioa gurasoetako bat bakarrik euskalduna denean, adinaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)




Gurasoetako batek euskaraz dakienean, desberdintasuna dago euskararen transmisioan, euskaraz dakiena aita ala ama izan.

Ama euskalduna denean, seme-alaben %46k euskara (erdararekin batera) jaso du etxean eta %54k erdara soilik.

Euskalduna aita denean, seme-alaben %37k jaso du euskara (erdararekin batera) eta %63k erdara soilik.

Adinean behera egin ahala, transmisioa handiagoa da, bai amaren kasuan eta baita aitaren kasuan ere.

28. irudia. Transmisioa ama ala aita soilik euskalduna denean. Euskal Herria, 2021 (%)




3-15 urte bitarteko seme-alabak dituzten familien hizkuntza-transmisioa

3-15 urteko ume eta gazteek etxean zein hizkuntzan transmititu zaien jakiteko, adin horretako seme-alabak dituzten inkestatuei galdetu zaie.

Gurasoak biak euskaldunak direnean, seme-alaben %83k euskara soilik jaso du etxean, %12k euskara eta erdara eta %5ek erdara soilik.

Guraso bakarra euskalduna denean, seme-alaben %67k euskara eta erdara jaso ditu etxean eta %33k erdara soilik.

29. irudia. 3-15 urte bitarteko seme-alabei transmititutako hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)




Hizkuntzaren transmisioan, gurasoen hizkuntza-gaitasunaz gain, eragin handia du haien lehen hizkuntzak. Aldagai biak gurutzatuta, gurasoen euskara-ezagutzaren eta lehen hizkuntzaren arabera azterketa egingo da jarraian.

Gurasoak biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza euskara denean, seme-alaben %96k euskara soilik jaso du etxean eta %4k euskara eta erdara.

Gurasoak biak euskaldunak direnean eta bietako baten lehen hizkuntza euskara denean, seme-alaben %86k euskara soilik jaso du etxean, %12k euskara eta erdara eta %2k erdara.

Gurasoak biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza erdara denean, seme-alaben %37k euskara soilik jaso du etxean, %36k euskara eta erdara eta %27k erdara.


30. irudia. 3-15 urte bitarteko seme-alabei transmititutako hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren eta lehen hizkuntzaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)



Guraso bakarra euskalduna denean eta haren lehen hizkuntza euskara denean, % 82k euskara eta erdara transmititu ditu eta % 18k erdara.

Guraso euskaldunaren lehen hizkuntza erdara denean, % 54k euskara eta erdara transmititu ditu eta % 46k erdara.

31. irudia. 3-15 urte bitarteko seme-alabei transmititutako hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren eta lehen hizkuntzaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)



3.5. Euskararen irabaziak eta galerak

Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izan duten gehienek euskara gorde dute eta euskaldunak dira gaur egun (%88,3).

Hala ere, badira euskara guztiz edo partez galdu dutenak (16 urte edo gehiagoko biztanleen % 1,9). Galera horren zatirik handiena galera partziala da (% 1,2), hau da, pertsona horiek euskaraz ondo hitz egin ez arren, ulertzeko gai dira (31.600 pertsona).


Gaur egun galera gehienak 50 urtetik gorakoenak dira.

Aldi berean, baina, lehen hizkuntza erdara izan arren, Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean, euskara ikasi eta gaur egun euskaldun diren 294.000 pertsona daude, 1991n baino 222.000 lagun gehiago. Horiek euskararen irabazi osoak dira, euskaldun berriak alegia.

Euskara ikasi dutenak honela daude banatuta: 251.500 lagun EAEn, 33.500 Nafarroan eta 9.000 Iparraldean.

Irabazien hazkundera eta galeren ia desagertzea gazteen artean antzematen da bereziki, baita Iparraldeko gazteen artean ere, neurri txikiagoan bada ere.

32. irudia. Euskararen irabaziak eta galerak adinaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)



4. EUSKARAREN ERABILERA

4.1. Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak: korrelazioak

Euskararen erabilerari buruzko datuak eman aurretik, erabileran gehien eragiten duten faktoreak aztertuko dira. Horretarako, korrelazioen analisia egin da. Korrelazioen analisiaren bidez, aztertu nahi den aldagaian (erabileran) zer beste aldagaik eta zein neurritan eragiten duen aztertu da.

Hiru erabilera-eremuren arabera korrelazioak egin dira: etxeko erabilera, lagunartekoa eta lankideen artekoa. Guztietan, hurrenkera zerbait aldatu arren, bi dira erabileran gehien eragiten duten faktoreak: harreman-sareko euskaldunen dentsitatea (zenbatek dakien euskara etxean, lagunartean edo lankideen artean, eta gune soziolinguistikoa) eta erraztasuna (lehen hizkuntzarekin lotura zuzena duena).

Euskal Herrian, etxeko erabileran gehien eragiten duen faktorea euskaraz egiteko erraztasuna da (0,745). Bigarren faktorea etxeko euskaldunen dentsitatea da, hau da, zenbatek dakien euskaraz etxean (0,681). Hirugarren faktoreak, lehen hizkuntzak, lotura handia du erraztasunarekin, eta eragin handia du etxeko erabileran (0,602). Laugarren faktorea gune soziolinguistikoa da (0,521).

10. taula. Korrelazioak: euskararen erabilera etxean. Euskal Herria, 2021

	Erraztasuna euskaraz	Euskaldunen proportzioa etxean	Lehen hizkuntza	Gune soziolinguistikoa
Etxean hitz egiten den hizkuntza	0,745	0,681	0,602	0,521

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Lagunarteko erabileran ere gehien eragiten duen faktorea erraztasuna da (0,676). Bigarren faktorea gune soziolinguistikoa da (0,541). Ondoren, harreman-sarea da, hau da, lagunetatik zenbatek dakien euskaraz (0,509) eta lehen hizkuntza (0,504) daude.

11. taula. Korrelazioak: euskararen erabilera lagunekin. Euskal Herria, 2021

	Erraztasuna euskaraz	Gune Soziolinguistikoa	Euskaldunen proportzioa lagunen artean	Lehen hizkuntza
Lagunekin hitz egiten den hizkuntza	0,676	0,541	0,509	0,504

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Lankideen arteko erabileran euskaldunen dentsitateak eragiten du gehien (0,778), hau da, lankideetatik zenbatek dakien euskaraz. Bigarren faktorea erraztasuna da (0,357). Ondoren daude gune soziolinguistikoa (0,270) eta lehen hizkuntza (0,242).

12. taula. Korrelazioak: euskararen erabilera lankideekin. Euskal Herria, 2021


	Euskaldunen proportzioa lankideen artean	Erraztasuna euskaraz	Gune soziolinguistikoa	Lehen hizkuntza
Lankideekin hitz egiten den hizkuntza	0,778	0,357	0,270	0,242

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Hortaz, Inkesta Soziolinguistikoaren datuak erabiliz egindako korrelazioen analisiaren arabera, euskaraz egiteko erraztasuna eta euskaldunen ehunekoa harreman-sarean dira euskararen erabileran gehien eragiten duten faktoreak. Beste faktore batzuek ere eragiten dute euskararen erabileran: jarrerak eta euskararekiko interesak.

4.2. Euskararen erabilera Euskal Herrian, erkidegoaren, lurraldearen eta hiriburuaren arabera

Euskal Herrian 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 17,5ek euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du, hau da, euskararen erabilera trinkoa egiten du; % 10,2k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, % 5ek oso gutxitan erabiltzen du euskara eta gainerako guztiek erdara erabiltzen dute (% 67,3).


33. irudia. Euskararen erabilerearen tipologia. Euskal Herria, 2021 (%)


Euskararen erabilera zein den neurtzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak tipologia bat definitu du. Tipologia hori eratzeko kontuan hartu diren erabilera-eremuak honakoak dira:


- etxeke erabilera
- lagunarteko erabilera
- erabilera formala (dendak eta banketxeak batetik, eta osasun-zerbitzuak eta udal zerbitzuak bestetik)

Erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude erkidego batetik bestera. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, %22 dira EAEn, %6,8 Nafarroan eta %7,1 Iparraldean. Horietaz gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, %11,5 dira EAEn, %5,5 Nafarroan eta %11 Iparraldean.

34. irudia. Euskararen erabileraren tipologia, lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2021 (%)



Lurraldeen artean ere aldea dago euskararen erabileran. Euskararen erabilera trinkoa %4,8 da Lapurdin, %6,8 Nafarroan eta %7,8 Araban. Bizkaian handiagoa da euskararen erabilera trinkoa (%14,5), eta are handiagoa Nafarroa Beherean eta Zuberoan (%23,2). Euskararen erabilera trinkorik handiena Gipuzkoak du (%40,8).

35. irudia. Euskararen erabilera lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2021 (%)


Hiriburuei dagokienez, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajerik handiena Donostiak du (%22,8). Gasteizen %6,6k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago, %6,5ek Bilbon, %3,2 Iruñean eta %1,9 BAMen.

13. taula. Euskararen erabilera, hiriburuaren arabera. EAE, 2021 (%)


	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruña	BAM
Euskaraz erdaraz baino gehiago	1,7	2,0	10,8	0,6	0,3
Euskaraz erdaraz beste	4,9	4,5	12,0	2,6	1,6
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	11,7	10,4	14,6	7,4	5,1
Oso gutxi euskaraz	5,9	7,1	4,7	4,3	2,6
Beti erdaraz	75,8	76,0	58,0	85,0	90,4

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskal Herriko gune soziolinguistikoei dagokienez, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa % 4,4 da lehenengo gune soziolinguistikoan, % 19,5ekoa bigarreanean, % 51,4koa hirugarreanean eta % 75,2koa laugarreanean.

Azken 30 urteotako bilakaera aztertuz gero, Euskal Herrian euskararen erabilerak 3,8 puntu egin du gora. Gaur egun, 1991n baino 142.000 pertsona gehiago daude euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak.

36. irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Euskal Herria, 1991-2021 (%)



Euskal Herrian euskararen erabilerak izan duen gorakada EAEko hazkundeagatik izan da nagusiki. Azken 30 urtean, EAEn 6,4 puntu egin du gora euskara erdara beste erabiltzen dutenen ehunekoak eta Nafarroan 0,8 puntu (2021ean % 6,7). Iparraldean, aldiz, 6,2 puntu jaitsi egin da azken 25 urteotan (2021ean % 7,1).

14. taula. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera erkidegoaren arabera. Euskal Herria, 1991-2021


	1991	1996	2001	2006	2011	2016	2021
Euskal Herria	13,7	15,5	14,6	15,6	16,1	16,5	17,5
EAE	15,5	18,1	17,5	18,9	20,0	20,5	21,9
Nafarroa	5,9	5,8	5,8	5,6	5,5	6,6	6,7
Iparraldea	—	13,3	9,9	10,6	9,6	8,1	7,1
Euskal Herria	325.619	375.931	365.400	403.459	427.730	437.668	467.725
EAE	271.121	321.976	315.826	349.425	375.139	382.419	412.821
Nafarroa	25.214	25.697	27.528	29.551	29.714	34.993	36.629
Iparraldea	—	28.258	22.045	24.484	22.877	20.256	18.275

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskal Herriko lehenengo hiru gune soziolinguistikoetan euskararen erabilerak gora egin du 1991 eta 2021 bitartean: 3,1 puntu lehenengo gunean, 5,8 bigarrenean eta 8,7 hirugarrenean.

Laugarren gune soziolinguistikoan, aldiz, euskararen erabilerak behera egin du (-8,3 puntu). Beherakada hori azken ia bi hamarkadetan izan diren biztanleen mugimenduen ondorioa da nagusiki. Gune erdaldunean, mugimendu horiek euskararen mesederako izan badira ere, gune euskaldunean, oro har, ez da hala izan.

37. irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, gune soziolinguistikoaren arabera. Euskal Herria, 1991-2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

4.3. Euskararen erabilera sexuaren eta adinaren arabera

Sexuari dagokionez, euskararen erabilera oro har ez dago alde esanguratsurik emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajea %17,2 da emakumezkoen artean eta %17,7 gizonezkoen artean. Azken 30 urteotan, euskara beste edo gehiago erabiltzen duten emakumezkoen eta gizonezkoen portzentajeen arteko aldea txikia izan da.

15. taula. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, sexuaren arabera. Euskal Herria, 1991-2021 (%)


	1991	1996	2001	2006	2011	2016	2021
Gizonezkoak	14,2	16,3	14,9	15,8	16,1	17,0	17,7
Emakumezkoak	13,3	14,6	14,4	15,3	16,2	16,1	17,2
Guztira	13,7	15,5	14,6	15,6	16,1	16,5	17,5

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskararen erabilera adinaren arabera aztertuz gero, gazteen artean dago euskara erabiltzen dutenen ehunetik handiena. Izan ere, 16 eta 24 urte bitarteko lau gaztetik batek (% 24,7) erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago.

Ehunetik txikiena, aldiz, 65 urtetik gorakoen artean dago (% 13,9), eta adinak behera egin ahala gero eta handiagoa da euskara erabiltzen dutenen ehunekoak. Alderantziz gertatzen zen duela 30 urte.

38. irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera. Euskal Herria, 1991-2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Adinaren araberako jokaera hori, oro har, errepikatu egiten dira EAEn eta Nafarroan, ez, ordea, Iparraldean. Izan ere, Iparraldean 65 urtetik gorakoek erabiltzen dute gehien euskara, eta adinak behera egin ahala jaitsiz doa euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak. Hala ere, Iparraldeko 35 urtetik beherako gazteen artean joera-aldaketaren zantzuak somatzen dira.

16. taula. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak erkidegoaren eta adinaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)

	ADINA					
	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskal Herria	17,5	13,9	14,5	19,1	21,2	24,7
EAE	22,0	16,7	17,8	24,3	27,8	33,5
Nafarroa	6,7	5,8	5,3	7,4	7,7	8,7
Iparraldea	7,1	9,4	8,0	4,8	5,8	5,7

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Beti erdara erabiltzen dutenak erdia baino gehiago dira adin-talde guztietan, 25 urtetik beherakoen artean izan ezik (16 eta 24 urte bitartekoen artean beti erdaraz aritzen direnak %46,3 dira).


4.4. Euskararen erabilera hainbat eremutan: etxean, lagunen artean, eremu formalean

Euskararen erabilera etxean

Euskal Herrian 16 urte edo gehiagoko biztanleen %16,2k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dute etxean, %8,8k euskarara erabiltzen dute, baina erdara baino gutxiago, eta gainerako %75ek erdara erabiltzen dute.

Etxeko kideen arteko erabileran alde esanguratsuak daude. Euskararen erabilerarik handiena seme-alabekin egiten da (%19,8) eta erabilerarik txikiena bikotekidearekin (%13,7). Neba-arreben arteko erabilera %17,3koa da, aitarekin %14,6koa eta amarekin %15ekoa.

39. irudia. Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak. Euskal Herria, 2021 (%)



Azken 30 urteotako bilakaera aztertuz gero, etxeko erabilerak gorabehera txikiak izan ditu (gehenez ere 2 puntuok). Azken 5 urteotan euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak 0,6 puntu egin du gora (% 16,2).

Etxeko kideen arteko erabilerari dagokionez, seme-alabekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak 4 puntu egin du gora, neba-arrebekin 1,8 puntu eta aitarekin 1,6 puntu. Amarekin 0,4 puntu egin du gora. Bikotekideen arteko erabilerak 0,4 puntu egin du gora azken 30 urteotan.

17. taula. Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Euskal Herria, 1991-2021 (%)

	1991	1996	2001	2006	2011	2016	2021
Etxean denak elkarrekin daudenean	15,6	16,5	14,6	15,3	14,2	15,6	16,2
Bikotekidearekin	13,3	13,9	10,7	11,7	11,8	12,1	13,7
Seme-alabekin	15,8	19,0	16,9	19,4	18,7	18,7	19,8
Amarekin	14,6	15,6	13,1	15,0	13,4	13,9	15,0
Aitarekin	13,0	14,2	12,6	14,3	12,9	14,3	14,6
Neba-arrebekin	15,5	17,7	15,8	16,8	16,8	16,9	17,3

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskararen erabilera lagunartean

Euskal Herrian 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 18,3k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du lagunekin, % 8,1ek euskarara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, eta gainerako % 73,8k erdara erabiltzen dute.

Azken 30 urteotan, 3,6 puntu egin du gora lagunekin euskara erabiltzen dutenen portzentajeak.

18. taula. Lagunekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Euskal Herria, 1991-2021 (%)

	1991	1996	2001	2006	2011	2016	2021
Erabilera lagunekin	14,7	17,5	15,8	17,7	17,8	17,9	18,3

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskararen erabilera eremu formalean


Atal honetan hiru erabilera-eremu aztertuko dira: lanean (lankideekin), eremu pribatuan (dendariekin eta banketxeekin) eta eremu publikoan (osasun-zerbitzuekin eta udal zerbitzuekin).

Euskal Herrian, lanean %21,3k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du lankideekin. Euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago %9,6 dira, eta erdaraz mintzatzen direnak %69,1.

Eremu pribatuan, dendariekin %17,1ek erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago eta banketxeekin %17k. Bi erabilera-eremu horietan euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago %8,1 eta %6,2 dira, hurrenez hurren.

Eremu publikoari dagokionez, osasun-zerbitzuekin %18,1ek erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago eta udal zerbitzuekin %21,6k. Bi erabilera-eremu horietan euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago %7,5 eta %6,2 dira, hurrenez hurren.

40. irudia. Eremu formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak. Euskal Herria, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Azken 30 urteotan 7,8 puntu egin du gora lankideekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajeak, 4,4 puntu dendariekin eta 4,8 puntu banketxekoekin. Eremu publikoan, hazkundea 11 puntukoa izan da osasun-zerbitzukoekin eta 8,6 puntu udal zerbitzukoekin.

19. taula. Eremu formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Euskal Herria, 1991-2021 (%)

	1991	1996	2001	2006	2011	2016	2021
Lankideekin	13,5	15,7	14,6	18,3	19,6	20,5	21,3
Dendariekin	12,7	15,4	13,8	15,4	16	16,5	17,1
Banketxekoekin	12,2	16,7	16	16,4	16,4	15,7	17,0
Osasun-zerbitzukoekin	7,1	11,4	11,5	13,4	15,3	15,6	18,1
Udal zerbitzukoekin	13	18,4	16,6	17,9	19,4	20,6	21,6

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

4.5. Euskararen erabilera sare sozialetan

Euskal Herrian Interneteko sare sozialetan gehien erabiltzen diren hizkuntzak gaztelania eta frantsesa dira: gaztelania EAEn eta Nafarroan eta frantsesa Iparraldean. Hala ere, erabiltzaileen % 15,6k maiztasun handiz erabiltzen du euskara, hau da, euskara erabiltzen du erdara beste edo gehiago. Euskararen erabilerarik handiena 16-24 urte bitarteko gazteek dute (% 21,7).

Gaztelaniaz, frantsesez eta euskaraz aritzeaz gain, beste hizkuntza batzuetan ere dihardute erabiltzaileek Interneteko sare sozialetan, nagusiki ingelesez (% 4,4).

5. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA


5.1. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera Euskal Herrian, erkidegoaren, lurraldearen eta hiriburuaren arabera

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, lau iritziren araberako tipologia eratu da. Honako hauek dira tipologia osatzeko aintzat hartu diren iritziak:

- Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa da
- Hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino (ados ez daudenak dira euskara sustatzearen aldekoak)
- Haur guztiek euskara ikasi beharko lukete
- Irrati/telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz

Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %56,5 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, %29,8 ez alde ez aurka eta %13,7 aurka.


41. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera. Euskal Herria, 2021 (%)



Euskara sustatzearen aldeko jarrerak gora egin du azken hogeita hamar urteotan. 1991ko eta 2021eko datuak alderatuz, euskara sustatzearen alde daudenen ehunekoak 9 puntuko igoera izan du (%47,5 versus %56,5).


2021ean gutxiago dira ez alde ez aurka agertzen direnak (% 31,7 versus % 29,8), eta gutxitu egin da aurka daudenen ehunekoa (% 20,9 versus % 13,7).

42. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera. Euskal Herria, 1991-2021 (%)



Euskara sustatzearen aldeko jarrera askoz handiagoa da EAEn (% 67), Nafarroan (% 30) eta Iparraldean (% 36,3) baino.

43. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera erkidegoaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)



Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera handiena Gipuzkoak (% 76,4), Bizkaiak (% 65,1), Arabak (% 53,3) eta Nafarroa Beherea/Zuberoak (% 48,7) dute; eta txikiena, Nafarroak (% 30) eta Lapurdik (% 34,5).


20. taula. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2021 (%)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Lapurdi	Nafarroa Beherea / Zuberoa
Guztira	283.343	994.892	604.210	545.476	223.340	32.597
Alde	53,3	65,1	76,4	30,0	34,5	48,7
Ez alde ez aurka	36,5	26,9	20,4	33,0	50,8	38,4
Aurka	10,2	8,0	3,2	37,0	14,7	12,9

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Hiriburuei dagokienez, Donostiako biztanleriaren %67,8 euskara sustatzearen alde dago, Bilboko biztanleriaren %57,2, Gasteizkoaren %51,7, Iruñekoaren %31,1 eta BAMEkoaren %29,2.

44. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hiriburuetan. Euskal Herria, 2021 (%)




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Jarreraren tipologia osatzeko erabilitako iritzien erantzunak honakoak dira:

- Administrazioan sartzeko euskara jakin behar dela uste du Euskal Herriko biztanleen %65,8k, %8,2 ez dago ez alde ez aurka. Bestalde, %25,2 dira iritzi horren aurka daudenak eta beste %0,8k ez du erantzun.
- Hobe dela jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino uste du %29,6k (euskararen erabilera sustatzearen kontra), %24 ez dago ez alde ez aurka. %45,2 dira iritzi horren aurka daudenak (euskararen erabilera sustatzearen alde). Beste %1,2k ez du erantzun.
- Haur guztiek euskara ikasi beharko luketela uste du biztanleriaren %75,9k, %9,1 ez dago ez alde ez aurka, %14,7 aurka dago eta %0,3k ez du erantzun.
- Azkenik, irrati eta telebistek programa gehiago beharko luketela euskaraz uste du %47,8k, %21,6 ez dago ez alde ez aurka, %25,1 aurka dago eta %5,5ek ez du erantzun.


45. irudia. Jarreraren tipologia osatzeko aintzat hartu diren lau iritziak. Euskal Herria, 2021 (%)



5.2. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza-gaitasunaren, sexuaren eta adinaren arabera

Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzeari alde azaltzen da euskaldunen % 87,4, euskaldun hartzaileen % 62 eta erdaldunen % 37,6.

46. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza-gaitasunaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Sexuari erreparaturik, aldea txikia da emakumezkoen eta gizonezkoen artean euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerari, nahiz eta emakumezkoak apur bat aldekoagoak izan (% 57,1 versus % 55,9).


21. taula. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera sexuaren arabera. Euskal Herria, 2021 (%)

	Alde	Ez alde ez aurka	Aurka
Guztira	56,5	29,8	13,7
Emakumezkoak	57,1	29,6	13,4
Gizonezkoak	55,9	30,1	14,0

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Adinari dagokionez, euskararen erabilera sustatzearen aldeko ehunekorik txikiena 50-64 urte bitartekoak dute (% 54); handiena, berriz, 35-49 urte bitartekoek (% 59,4).

47. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera adinaren arabera. EAE, 2021 (%)




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

5.3. Euskarari buruzko interesa eta beste zenbait iritzi

Euskarari buruzko interesari buruz galdetuta, Euskal Herriko biztanleen gehiengoak interesa erakusten du euskararekiko. Izan ere, biztanleen % 58k euskararekiko interes handia edo nahiko handia du, % 16k zertxobait eta % 26 dira interes txikia edo ez dutenak bat ere interesik.


48. irudia. Euskarari buruzko interesa. Euskal Herria, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskarari buruzko bestelako iritzi batzuekin jarraituz, Euskal Herriko biztanleen %59,9k D eredia nahiko luke seme-alabentzat (dena euskaraz, erdara ikasgai gisa) B eredia nahiko luke % 19,9k (euskaraz eta erdaraz), A eredia % 8,9k (dena erdaraz, euskara ikasgai gisa) eta X/G eredia % 8,8k (dena erdaraz). Gainerako %0,7k ez daki edo ez du erantzun.


49. irudia. Seme-alabarik izanez gero, zein hizkuntzatan nahiko zenuke haiek ikastea? Euskal Herria, 2021 (%)



EAEEn gehienek D eredia aukeratuko lukete (% 73,6), eta B eredia beste % 19,1ek aukeratuko lukete, seme-alaben eskolatzeko-hizkuntza gisa.

Nafarroan % 33,2k D eredia aukeratuko lukete, eta beste % 30,2k G eredia (dena gaztelaniaz). Beste % 14,7k B eredia aukeratuko luke eta % 19,2k A eredia.

Azkenik, Iparraldean eredurik aukeratuena B eredia izango litzateke, % 37,5ek aukeratuko bailuke, eta ondoren A eredia (% 25,4). Azkenik, Iparraldean % 16,ek D eredia aukeratuko luke (dena euskaraz), eta % 14,5ek dena frantsesez.

50. irudia. Seme-alabarik izanez gero, zein hizkuntzatan nahiko zenuke haiek ikastea? Euskal Herria, 2021 (%)


Bestalde, Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %88,1ek etorkizunean euskaraz eta gaztelaniaz/frantsesez hitz egin beharko litzatekeela uste du, %7,2k euskaraz bakarrik, %3,3k gaztelaniaz/frantsesez bakarrik eta %1,4k ez du erantzun.


Era berean, euskaldunei galdetu zaie ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara erabiltzeko aukera ez izateagatik, eta %36,7k erantzun du diskriminatuta sentitu dela. Erdaldunei galdetu zaie, ordea, ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara ez jakiteagatik, eta %23,9k erantzun du diskriminatuta sentitu dela.

Euskarari buruzko beste iritzi batzuez ere galdetu zaie inkestatuei. Laburbilduz, emaitzak honakoak dira:

- Euskara beharrezkoa da jendearekin komunikatzeko iritziari buruz, %41 alde dago eta %47,2 aurka.
- Euskal Herriko 16 urte edo biztanleen %37,8k uste du euskarak gaztelaniaz/frantsesak duen garrantzia izango duela uste dutenak. Biztanleriaren %37k, ordea, kontrakoa uste du, hau da, euskarak ez duela sekula izango gaztelaniaz/frantsesak duen garrantzia.

- Euskaldunei galdetu zaie ea nahiago duten euskaraz egiten duten dendetara joan, eta erdia ados dago (% 50,6).
- Euskaldunek ezezagunei lehen hitza euskaraz egiteari dagokionez, Euskal Herriko biztanleen %55,3 ados dago eta %26,4 aurka. Gainerakoak ez daude ez alde ez aurka (% 16,4) edo ez dute erantzun (% 2).
- Euskaldunok beti euskaraz aritzeari buruz nahiz eta guztiek ez jakin iritziaren aurka daude % 75,5.

51. irudia. Euskarari buruzko beste zenbait iritzi. Euskal Herria, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

- Azkenik, euskara ez dago galtzeko arriskuan Euskal Herriko biztanle gehienek ustez (%60,7). Euskaldunak bakarrik kontuan hartuz, aldiz, gehiago dira euskara galtzeko arriskuan dagoela uste dutenak (%48,4), kontrakoa uste dutenak baino (%40,3). Era berean, Iparraldeko biztanleak bakarrik kontuan hartuz, gehiago dira euskara galtzeko arriskuan dagoela uste dutenak (%46,7), kontrakoa uste dutenak baino (%40,5).

6. LABURBILDUZ

- Euskal Herrian 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 30,2 euskalduna da, % 16,1 euskaldun hartzailea eta % 53,8 erdalduna.
- 1991n baino 282.000 euskaldun gehiago daude gaur egun; euskaldunen ehunekoa 8 puntu hazi da azken 30 urteotan (% 22,3 versus % 30,2).
- Euskaldunen hazkundera batez ere EAEn gertatu da (12,1 puntuko hazkundera). Nafarroan hazkundera txikiagoa izan da (4,6 puntuko hazkundera). Iparraldean, aldiz, oraindik ere galerak daude (-6,3 puntu 1996tik hona), baina gazte euskaldunen ehunekoa gora egiten hasi da.
- Euskaldunen ehunekorik handiena 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean dago: % 57,9. 1991n, aldiz, % 22,5 zen.
- Emakumezkoen artean % 30,5 dira euskaldunak eta gizonezkoen artean % 29,9 (0,6 puntuko aldea). Alderik handiena EAEn dago (0,7 puntuko aldea).
- Euskaldunen kopuruaren hazkunderarekin batera, euskaldunen ezaugarriak aldatu egin dira. Aldaketa nagusiak aniztasunarekin du zerikusia: euskaldunen komunitatea gero eta anitzagoa da. Euskaldunen artean, euskal gizartean oro har gertatzen ari den bezala, errealitate asko dago, lurraldeari, guneko soziolinguistikoari, jatorriari, adinari edo sexuari begiratzen badiogu.
- Aldaketa horietako batzuek Euskal Herriko gizarte osoan gertatzen ari diren aldaketa soziodemografikoekin dute zerikusia:
 - Euskal gizartea gero eta zaharragoa da: bizi-itxaropena gero eta handiagoa da eta jaiotza-tasa gero eta txikiagoa.
 - Atzerrian jaiotako gero eta jende gehiago bizi da Euskal Herrian; eta oso biztanleria gaztea da. EAEn eta Nafarroan atzerrian jaiotako biztanleriaren erdia baino gehiago 40 urtez azpikoa da (% 54).
 - Biztanleriaren mugikortasuna areagotu egin da.
 - Globalizazioaren eragina gero eta handiagoa da.
- Euskaldunei dagokienez, Euskal Herriko euskaldunen erdia baino gehiago guneko soziolinguistiko erdaldunetan edo nahiko erdaldunetan bizi da (% 57). Beraz, euskaldun askok euskaldunekin hartu-emanak izateko duen sarea oso mugatua da gaur egun.

- Gaur egun euskaldunen %45,1ek erraztasun handiagoa du erdaraz hitz egiteko (1991n %37,8 zen), eta gazteen artean erdia baino gehiago da erdaraz hobeto moldatzen dena (%55,5).
- Euskara erabiltzeko erraztasunak lotura handia du lehen hizkuntzarekin. Euskaldunen lehen hizkuntza asko aldatu da azken 30 urteotan. 2021ean euskaldunen %47,9k euskara du lehen hizkuntza; 1991n, aldiz, %79,3k zuen euskara lehen hizkuntza. Euskaldun berriak eta jatorrizko elebidunak duela 30 urte baino bi aldiz gehiago dira gaur egun.
- Familia bidezko euskararen transmisioak gora egin du bai bikote euskaldunetan baita bikote mistoetan ere:
 - Guraso biak euskaldunak direnean %92koa da euskararen transmisioa, eta %100ekoa guraso biak euskaldunak izateaz gain, lehen hizkuntza euskara dutenetan.
 - Bikote mistoetan euskararen transmisioa (beti erdararekin batera) %43koa da, eta guraso euskaldunaren lehen hizkuntza euskara denean %82koa.
 - Bikote mistoetan, euskararen transmisioa handiagoa da euskalduna ama denean (%46) euskalduna aita denean baino (%37).
- Euskal Herrian, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %17,5ek euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du, %10,2k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, %5ek oso gutxitan erabiltzen du euskara eta %67,3k beti erdara erabiltzen du.
- Azken 30 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak 3,8 puntu egin du gora Euskal Herrian. Gaur egun, 1991n baino 142.000 pertsona gehiago daude Euskal Herrian euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak. Euskal Herrian euskararen erabilerak izan duen gorakada EAEko hazkundeagatik izan da nagusiki.
- Euskal Herriko lehenengo hiru guneko soziolinguistikoetan euskararen erabilerak gora egin du 1991 eta 2021 bitartean: 3,1 puntu lehenengo gunean, 5,8 bigarrenetan eta 8,7 hirugarrenetan. Laugarren guneko soziolinguistikoan, aldiz, euskararen erabilerak behera egin du (-8,3 puntu). Beherakada hori azken ia bi hamarkadetan izan diren biztanleen mugimenduen ondorioa da nagusiki.
- Gazteen artean dago euskara erabiltzen dutenen ehunekorik handiena (%24,7) eta 65 urtetik gorakoen artean txikiena (%13,9).

- Euskararen erabilera gora egin du erabilera-eremu guztietan, eta bereziki eremu formalean.
- Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak 9 puntuko hazkundera izan du 1991 eta 2021 artean. Aldekotasun handiena izan duten iritziak bi hauek izan dira: haur guztiek euskara ikasi beharko luketela iritzi du gizartearen %75,9k, eta Administrazioan sartzeko euskara jakin behar dela %65,8k.



**EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOA**

VII. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA

1. BIZTANLERIA¹

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2.193.199 pertsona bizi dira 2021ean, EUSTATen arabera.

1991ko Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria eta 2021ekoa alderatzen baditugu, ikus daiteke 89.158 pertsona gehiago direla termino absolutuetan, baina, denbora horretan guztian zehar, hazkundea ez da lineala izan. 2000ra arte, murrizten joan zen biztanleria, eta, urte horretatik aurrera, nabarmen joan da handitzen 2019ra arte. Baina COVID-19aren krisiaren ondorioz, joera hori eten egin da; izan ere, migrazio-saldo positiboa jaitsi egin da, saldo begetatibo negatiboa handitu egin da, eta EAeko biztanleria jaitsi egin da.

Araban biztanleriak gora egin du aztertutako aldi guztietan, baina hazkunderik handiena XXI. Mendearen lehen hamarkadan izan du. Gipuzkoak, aldiz, EAeren antzeko joera izan du. Azkenik, Bizkaiak biztanleak galdu ditu ia aldi guztietan.

1. taula. Biztanleriaren bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1991-2021

	1991	2001	2011	2021
EAE	2.104.041	2.082.587	2.179.815	2.193.199
Araba	272.447	286.387	321.254	330.189
Bizkaia	1.155.106	1.122.637	1.153.351	1.144.123
Gipuzkoa	676.488	673.563	705.210	718.887

Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak eta Estatistikak.

Bilakaera horren eragileak izan dira, batetik, saldo begetatiboak (jaiotzen eta heriotzen arteko aldea) eta, bestetik, migrazio saldoak (immigrazioaren eta emigrazioaren arteko aldea).

¹ Datuak EUSTATetik eta INETik ateratakoak dira.

Bertako biztanleen ezaugarri nagusiak honakoak dira:


- Gero eta gizarte zaharragoa: bizi-itxaropena gero eta handiagoa da: 86,3 urte emakumezkoak eta 80,7 gizonezkoak. Dena dela, 2019arekin alderatuz, 2020an COVID-19aren ondorioz, 3 hamarren jaitsi da emakumeetan eta hamarren 1 gizonetan.
Jaiotza-tasa, aldiz, oso txikia da (6,5 jaiotza 1.000 biztanleko), EB-27an, baino txikiagoa (8,9 jaiotza 1.000 biztanleko).
- Atzerrian jaiotako biztanleen hazkundera: EAEko biztanleen % 11,2 dira 2021ean.

Horrela, 1991tik hona, 65 urte edo gehiagoko biztanleriaren ehunekoak 9 puntu baino gehiagoko hazkundera izan du, eta gaur egun biztanleria osoaren %23 da (% 12,6 zen 1991n).

Horrekin batera, gazteak pisua galtzen joan dira. 2021ean % 18,2 dira 20 urte baino gutxiago dituztenak (% 25,5 ziren 1991n).

Are handiagoa da pertsona nagusien hazkundera, hau da, 85 urte edo gehiago dituztenena. Izan ere, azken 30 urteotan, boskoiztu egin da ehunekoa, eta biztanleria osoaren % 4,1 dira dagoeneko.

1. irudia. Biztanleria adinaren arabera. EAE, 1991-2021 (%)




Jatorriari erreparatuz, 2021eko urtarrilaren 1ean, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren biztanleen %28,7 kanpoan jaioa da, eta horietatik hirutik bat baino gehiago (%39,2), atzerrian.

EAEtik kanpo jaiotako pertsonen ehunekoa egonkor mantendu da 2001etik, baina aldaketak izan dira horien jatorrian. Aldi horretan, ia 9 puntutan hazi da ehunekoetan atzerrian jaio den Euskadiko biztanleria; aldiz, jaitsi egin da Estatuko gainerako erkidegoetan jaiotakoa, %25,3tik %17,82ra.

2021ean EAeko biztanleriaren %11,2 atzerrian jaio da.

2. irudia. Atzerrian jaiotakoen bilakaera. EAE, 2001-2021



Atzerritar nazionalitatea eta EAEn bizi direnen artean ez dago ia alderik emakumezkoen gizonzkoen ehuneko orokorrean (%50,1 emakumezkoak eta %49,9 gizonzkoak), baina bai kontinentei erreparatuz.

Etorkin atzerritarren jatorriari dagokionez, biztanleria amerikarraren pisua oso handia da EAEn (%40,7). Horietatik gehienak Hego Amerikakoak dira. Talde horretan, Kolonia eta Nikaragua nabarmentzen dira. Emakumeak 2021ean Ameriketako nazionalitatea duten bizilagunen %60,5 dira.

Afrikar jatorriko etorkinen pisua ere oso handia da (%27), eta erdia baino gehiago Marokokoak dira (%53,4). Sexuaren araberako banaketari dagokionez, gizonak dira %61,2.

Hirugarren multzorik jendetsuena Europako etorkinena da (%23,9). Europako nazionalitatea duten pertsona guztien %43,7 Errumaniakoak dira eta, ondoren,

Portugalgoak (% 14,9). Bi sexuek dute antzeko pisua, baina gizonen ehunekoa pixka bat handiagoa da (% 52,3).


Azkenik, Asia eta Ozeanian jatorria dutenak % 8,4 dira; eta nabarmentzekoa da ia denak Txinatik eta Pakistanetik etorritakoak direla, lautik hiru baitira.

Adinari erreparatuz gero, adinaren batez bestekoan ere alde esanguratsuak daude, jaiotako lekua Euskal Autonomia Erkidegoa izan, beste erkidego bat izan edo atzerria izan.

Biztanleriaren batez besteko adinari erreparatuz, zaharrena, alde handiarekin, Espainiar Estatuko beste erkidego batzuetan jaiotakoa da, batez beste, 64,8 urte baititu. Ondoren, EAEn bertan jaiotako biztanleria da, 41,8 urterekin batez beste. Azkenik, EAEn bizi den eta atzerrian jaiotakoa, den biztanleen adinaren batez bestekoa 37,7 urtekoa da.

Adinaren araberako banaketa egitean, atzerriko biztanleriaren ezaugarriak nagusienetako bat islatzen da piramidean. Ikus daiteke biztanleria oso gaztea dela, % 84,6 berrogeita hamar urtetik beherakoa baita.

3. irudia. Atzerrian jaiotako biztanleriaren piramidea. EAE, 2021 (%)





Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren hazkundera migrazioaren portaeraren arabera gerta liteke. Izan ere, aurreikus daiteke saldo begetatiboa balio negatiboa izango dela datozen urteotan. Izan ere, ugalkortasun-maila apalagatik, jaiotza-kopurua murriztu egingo da, eta pertsona nagusiak gero eta gehiago izango direnez, heriotza-tasa hazi.

2. HIZKUNTZA-GAITASUNA


2.1. Hizkuntza-gaitasuna Euskal Autonomia Erkidegoan, lurraldearen eta hiriburuaren arabera

Hiru hiztun mota bereizten dira euskaraz hitz egiteko edo ulertzeko duten gaitasunaren arabera:

- **Euskalduna (elebiduna):** euskara ondo edo nahiko ondo ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
- **Euskaldun hartzailea (elebidun hartzailea):** Ez da euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiteko gai. Hala ere, badu euskararen nolabaiteko ezagutza. Zehazki, multzo honetan sartzen da honako baldintza hauetakoren bat gutxienez betetzen duena:
 - Euskaraz “zertxobait” ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
 - Euskara “ondo” edo “nahiko ondo” ulertzeko gai da.
- **Erdalduna (erdaldun elebakarra):** ez da gai euskaraz ulertzeko ezta hitz egiteko ere.

2021ean, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %36,2 euskalduna da, %18,6 euskaldun hartzailea eta %45,3 erdalduna.

4. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. EAE, 2021 (%)




2. taula. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2021

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira	1.882.445	283.343	994.892	604.210
Euskaldunak	680.629	63.243	304.211	313.175
Euskaldun hartzaileak	349.253	53.048	189.399	106.805
Erdaldunak	852.119	166.608	501.282	184.229

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Hiru lurraldeak kontuan hartuz, alde handiak daude batetik bestera. Gipuzkoako biztanleriaren erdia baino gehiago euskalduna da (%51,8). Bizkaian, aldiz, biztanleriaren ia herena da euskalduna (%30,6). Azkenik, Arabako biztanleriaren ia laurdena da euskalduna (%22,4).

5. irudia. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Hiriburuetako datuei dagokienez, aipatzekoa da hiru hiriburuak euren lurraldeek baino euskaldunen ehuneko txikiagoa dutela. Horrela, Donostian euskaldunak %37,6 dira, Bilbon %21,9 eta Gasteizen %20,7.


3. taula. Hizkuntza-gaitasuna hiriburuaren arabera. EAE, 2021 (%)

	Gasteiz	Bilbo	Donostia
Guztira	214.865	304.619	163.066
Euskaldunak	20,7	21,9	37,6
Euskaldun hartzailleak	19,1	21,7	21,2
Erdaldunak	60,1	56,4	41,2

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Azken hogeita hamar urteotako bilakaerari dagokionez, gaur egun, 1991n baino 261.000 euskaldun gehiago daude EAEn. Euskaldunen ehunekoa 12 puntu hazi da (%24,1 versus %36,2).

6. irudia. Euskaldunen bilakaera. EAE, 1991-2021



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskaldun hartzailleek ere 10 puntuko hazkundea izan dute hogeita hamar urte hauetan (%8,5 versus %18,6).

Erdaldunek, aldiz, 22 puntuko jaitsiera izan dute (%67,4 ziren 1991n eta %45,3 dira 2021ean).


Erdaldunen beherakada eta euskaldunen hazkundera are azpimarragarriagoa da kontuan hartzen baditugu azken urteotan gure gizarteak bizi izan dituen aldaketa soziodemografikoak. Batetik, euskal gizartea gero eta zaharragoa da. Jaiotze-tasa oso txikia da; hortaz, gazteen multzoak, euskaldun gehien biltzen dituen multzoa izanik, gero eta pisu txikiagoa du gizarte osoarekiko.

Euskaldunek EAEko hiru lurraldeetan egin dute gora, baina Arabaren hazkundera aipatzekoa da. Horrela, 1991n Araban %7 ziren euskaldunak eta gaur egun, oster, %22,4 dira. Araban euskaldunak 15,4 puntuko hazkundera izan dute 1991tik 2021era.

Bizkaian, duela hogeita hamar urte, %16,5 ziren euskaldunak eta %30,6 dira 2021ean. Hortaz, 14,1 puntuko hazkundera izan dute 16 urte edo gehiagoko euskaldunak ehunekoetan.

Euskaldunak Gipuzkoan izan dute hazkunderik txikiena ehunekoetan: 8,1 puntu (%43,7 ziren 1991n eta %51,8 dira 2021ean). Baina kontuan hartu behar da abiapuntua, hau da, 1991n Gipuzkoako euskaldunen ehunekoa Bizkaikoa eta Arabakoa baino askoz altuagoa zela.

7. irudia. Euskaldunen bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1991-2021 (%)



2.2. Hizkuntza-gaitasuna sexuaren eta adinaren arabera

Sexuari dagokionez, emakumezkoen artean %36,5 dira EAEn euskaldunak eta gizonezkoen artean, berriz, %35,8. Ikusten denez, euskaldunen ehunekoa handiagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino, 0,7 puntukoa hain zuzen ere.

Lurraldeei dagokienez, alderik handiena Araban dago, 2,6 puntuko aldea gizonezko eta emakumezko arabarren artean (%23,6 emakumezko arabar euskaldunak eta %21 gizonezkoak).

Bizkaian ere emakumezko euskaldunen ehunekoa zertxobait handiagoa da gizonezkoena baino. Dena dela, aldea txikiagoa da (0,9 puntukoa). Gipuzkoan, ostera, ez dago alderik (0,1 puntukoa).

Gogoan izan behar da helduen euskalduntzean ikasten ari direnen artean emakumeak gehiengoa direla. Horrela, 2020/21 ikasturtean euskara ikasten ari diren helduen %65,4 emakumeak dira, bi heren, alegia. Horren ondorioz, emakume gehiago euskaldundu dira helduen euskalduntze sistemari esker. Gertaera hau ez da berria, hala gertatu baita azken urteotan.


4. taula. Euskaldunak sexuaren arabera. EAE, 2021 (%)

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira	36,2	22,4	30,6	51,8
Emakumezkoak	36,5	23,6	31,0	51,8
Gizonezkoak	35,8	21,0	30,1	51,9

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskaldunen adinari erreparatuz gero, ikus daiteke euskaldunen ehunekorik handiena 35 urtetik beherakoen artean dagoela, 16-24 eta 25-34 adin-taldeetan.


8. irudia. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE, 2021 (%)



Hala ere, euskaldunen hazkundera 65 urte baino gutxiagoko adin talde guztietan gertatu da, baina nabarmenagoa da gazteen artean. Horrela, gaur egun 16 eta 24 urte bitarteko biztanleen hiru laurdena euskalduna da (%74,5); 1991n, aldiz, laurdena zen (%25).

Hortaz, euskaldunen hazkundera gazteenetatik ari da zabaltzen. Multzorik erdaldunena 65 urte edo gehiagokoena da. Izan ere, urteak aurrera egin ahala, helduen multzoa euskaldunak irabazten ari da azpitik eta erdaldunak galtzen goitik. Hau da, gazteak gero eta euskaldunagoak diren heinean, helduen multzoan ere haziz doa euskaldunen ehunekoa.

9. irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. EAE, 1991-2021 (%)



Adinaren arabera joera hori hiru lurraldeetan gertatu da, nahiz eta bateko eta besteko ehunekoak oso bestelakoak izan.

Arabian eta Bizkaian orain dela hogeita hamar urte aurre ikusten zen joera areagotu egin da. Hau da, gazteen euskalduntzea areagotu egin da. 16-24 urte bitarteko artean hamarretik sei baino gehiago euskaldunak dira Araban, eta zazpi baino gehiago Bizkaian.

Gipuzkoan are handiagoa da euskaldunen ehunekoa adinaren arabera. Gipuzkoako 16-24 urte bitarteko gazteen hamarretik zortzi baino gehiago euskaldunak dira (%83,2), eta baita 25-34 urte bitarteko gazteen bi heren (%66,5). Horrez gain, 35-49 urte bitarteko erdia baino gehiago da euskalduna (%52,9). Azkenik, 50 urte edo gehiagokoen artean hamarretik lau baino gehiago dira euskaldunak.

5. taula. Euskaldunak adinaren eta lurraldearen arabera. EAE, 2021 (%)

	ADINA					
	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
EAE	36,2	22,1	26,6	37,4	54,4	74,5
Araba	22,4	5,0	13,2	22,8	42,4	64,6
Bizkaia	30,6	15,7	20,6	32,4	49,1	72,1
Gipuzkoa	51,8	40,2	42,9	52,9	68,7	82,8

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

2.3. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa: euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko

Euskaldunen gaitasun erlatiboa aztertuko da orain, hau da, euskaraz eta erdaraz (gaztelaniaz gehienetan) hitz egiteko erraztasuna.

Aurrerantzean erdara hitza erabiliko da euskara ez den beste edozein hizkuntza adierazteko.

Honako hauek dira euskaldunak gaitasun erlatiboaren arabera:


- **Euskal elebidunak:** erraztasun handiagoa dute euskaraz hitz egiteko erdaraz hitz egiteko baino.
- **Elebidun orekatuak:** bi hizkuntzetan erraztasun bera dute. Izan ere, euskaldun hauek adierazten dute euskaraz eta erdaraz, bietan, berdin hitz egiteko erraztasuna dutela.
- **Erdal elebidunak:** erraztasun handiagoa dute erdaraz hitz egiteko euskaraz hitz egiteko baino.

EAEEn 16 urte edo gehiagoko euskaldunen %27,4k erraztasun handiagoa du euskaraz egiteko erdaraz baino, hau da, euskal elebidunak dira.

Elebidun orekatuak, aldiz, erraztasun bera du euskaraz zein erdaraz egiteko eta euskaldunen %28,3 dira.

Azkenik, erdal elebidunak erraztasun handiagoa du erdaraz egiteko euskaraz baino, eta %44,3 dira. Euskaldunen multzorik handiena da, ehuneko handiagoa izanik, adinak behera egin ahala.

10. irudia. Euskaldunak erraztasunaren arabera. EAE, 2021 (%)




Gipuzkoan dago euskal elebidunen ehunekorik handiena (%38,7) eta Araban txikiena (%8,5). Azkenik, Bizkaiko euskaldunen %19,8 da euskal elebiduna.

Era berean, Gipuzkoak du elebidun orekatuen ehunekorik handiena (%30,6). Bizkaiak eta Arabak, ostera, nahiko antzeko ehunekoa dute (%26,7 eta %24,9 hurrenez hurren).

Erdal elebidunen ehunekorik handiena Arabak du. Izan ere, Arabako euskaldunen %58,9 erdal elebiduna da, Bizkaian %53,5, eta Gipuzkoan %30,7.


11. irudia. Euskaldunen erraztasuna lurraldearen arabera. EAE, 2021 (%)



Euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko antzekoa da gizonezkoen eta emakumezkoen artean (%27,4 versus %27,5).

Elebidun orekatuen eta erdal elebidunen kasuan ere aldeak oso-oso txikiak dira, hau da, 0,9 eta 0,7 puntukoak hurrenez hurren. Emakumezkoen %27,9 dira elebidun orekatuak eta gizonezkoen kasuan %28,8. Azkenik emakumezkoen %44,6 dira erdal elebidunak eta %43,9 gizonezkoak.

12. irudia. Euskaldunen erraztasuna sexuaren arabera. EAE, 2021 (%)




Adinari dagokionez, euskal elebidunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoek dute (% 39,6), eta txikiena 25-34 urte bitartekoek (% 24).

Elebidun orekatuen ehunekorik handiena 35 eta 64 urte bitartekoen artean dago (% 30 baino gehiago).

Azkenik, erdal elebidunen ehunekoa handiagoa da adinak behera egin ahala. Horrela, 16-24 urte bitarteko euskaldunen erdia baino gehiago erdal elebiduna da (% 52,7).


13. irudia. Euskaldunen erraztasuna adinaren arabera. EAE, 2021 (%)



Euskaldunen erraztasuna aldatu egin da 1991tik hona. Duela hogeita hamar urte, euskal elebidunen ehunekoa orain baino handiagoa zen (% 34,6 versus % 27,4), eta erdal elebidunen ehunekoa txikiagoa zen (% 37,8 versus % 44,3).

Elebidun orekatuen ehunekoak, aldiz, apur bat gora egin du (% 27,7 versus % 28,3).

14. irudia. Euskaldunen erraztasunaren bilakaera. EAE, 1991-2021 (%)



Adinaren araberako bilakaera aztertuz gero, ikus daiteke 1991n euskal elebidunen ehunekoak behera egiten zuela adinean behera egin ahala, nahiko nabarmen gainera gazteenen bi adin taldeetan. 2021ean, ordea, euskal elebidunen joera aldatu egin da. 16-24 eta 25-34 urte bitartekoen ehunekoa (2021ean % 25,3 eta % 24) handiagoa da duela hogeita hamar urte baino (1991n % 19,6 eta % 19,7).

1991n elebidun orekatuen ehunekorik altuena 16-24 eta 25-34 adin-taldeetan zegoen (% 27 eta % 29,9). 2021ean, berriz, 35-49 eta 50-64 adin-taldeek dute (% 30,7 eta % 31,6).

Azkenik, 1991n erdal elebidunen ehunekorik altuena 16-24 eta 25-34 urte bitartekoez zuten (% 53,4 eta % 50,3) eta orain ere berdin gertatzen da, hau da, 16-24 eta 25-34 urte bitartekoez dute ehunekorik altuena, baina ehunekoa zertxobait txikiagoa da (% 52,7 eta % 48,9).

6. taula. Euskaldunen erraztasunaren bilakaera adinaren arabera. EAE, 1991-2021(%)

1991	ADINA					
	Guztira	65 edo gehiago	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskaldunak	419.221	71.612	97.595	81.331	78.103	90.580
Euskaraz errazago	35,5	58,9	47,9	32,8	19,7	19,6
Euskaraz zein erdaraz berdin	25,4	23,0	24,0	22,9	29,9	27,0
Erdaraz errazago	39,1	18,1	28,1	44,3	50,3	53,4
2021	Guztira	65 edo gehiago	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskaldunak	681.072	107.581	130.607	189.035	120.836	133.013
Euskaraz errazago	27,4	39,6	26,1	25,1	24,0	25,3
Euskaraz zein erdaraz berdin	28,3	29,4	31,6	30,7	27,1	22,1
Erdaraz errazago	44,3	31,0	42,3	44,2	48,9	52,7

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

3. HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA


3.1. Lehen hizkuntza Euskal Autonomia Erkidegoan, lurraldearen eta hiriburuaren arabera

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik etxean jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 18,4k euskara soilik jaso du etxean eta % 6,5ek euskara eta erdara jaso ditu etxean.

Era berean, lautik hiruk (% 75,1), erdara soilik jaso du etxean. Erdara diogunean, gaztelaniari buruz ari gara nagusiki, baina ez da ahaztu behar gero eta gehiago direla lehen hizkuntza gaztelania ez den hizkuntza bat edo bat baino gehiago dituztenak.

15. irudia. Lehen hizkuntza. EAE, 2021 (%)



16 urte edo gehiagoko biztanleen artean lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoak duela 30 urte baino txikiagoa da: %20,7 zen 1991n eta % 18,4 da 2021ean (2,3 puntuko jaitsiera). Hala ere, kontuan hartu behar da 2016tik 2021era lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoak ia puntu bat egin duela gora.

Lehen hizkuntza euskara eta erdara dutenen ehunekoak 3,9 puntu hazi da azken 30 urteotan: %2,6 zen 1991n eta % 6,5 da 2021ean.

Lehen hizkuntza erdara dutenen ehunekoa antzekoa da 1991n eta 2021ean (% 76,7 versus % 75,1).

7. taula. Lehen hizkuntzaren bilakaera. EAE, 1991-2021

	1991	2021	1991 (%)	2021 (%)
Guztira	1.741.470	1.882.445	100,0	100,0
Euskara	360.232	346.431	20,7	18,4
Euskara eta erdara	45.488	121.899	2,6	6,5
Erdara	1.335.750	1.414.115	76,7	75,1

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.


Lehen hizkuntza erdara dutenak nagusi dira EAeko lurralde eta adin-talde guztietan, baina alde handiak daude batetik bestera.

Lehen hizkuntza erdara dutenak hiru lurraldeetan nagusi badira ere, Gipuzkoak du ehunekorik txikiena (% 57,0). Gainerako bi lurraldeetan nagusitasun osoa du erdarak. Horrela, erdara da Bizkaiko eta Arabako gehiengo handiaren lehen hizkuntza (% 81,4 eta % 91,9, hurrenez hurren).

Lehen hizkuntza euskara dutenak % 4,5 dira Araban, % 11,9 Bizkaian eta % 32,9 Gipuzkoan.

Lurraldearen arabera, lehen hizkuntza euskara eta erdara dutenen arteko aldea txikiagoa da, % 3,6 baitira Araban, % 5,7 Bizkaian eta % 9,0 Gipuzkoan.

16. irudia. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. EAE, 2021 (%)




Hiriburuetan, txikiagoa da lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa, euren lurraldeetako datuekin konparatuz.

Donostiak du ehunekorik handiena lehen hizkuntza euskara dutenen artean (% 17,4). Bilbon eta Gasteizen lehen hizkuntza euskara dutenak % 5,0 eta % 4,1 dira, hurrenez hurren.

Lehen hizkuntza euskara eta erdara dutenak % 8,9 dira Donostian, % 4,5 Bilbon eta % 3,4 Gasteizen.


17. irudia. Lehen hizkuntza hiriburuaren arabera. EAE, 2021 (%)



3.2. Lehen hizkuntza sexuaren eta adinaren arabera

Emakumezkoen eta gizonezkoen artean ez dago alderik lehen hizkuntza euskara, euskara eta erdara edo erdara jaso dutenen ehunekoetan.


18. irudia. Lehen hizkuntza sexuaren arabera. EAE, 2021 (%)



Adinari erreparatuz, aldiz, badago alderik. 16-24 urte bitarteko gazteek dute euskara soilik jaso dutenen ehunekorik handiena (%24,1). Gainerako adin-talde guztietan ehunekoa txikiagoa da.

Lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehuneko bera dute 25 eta 34 urte artekoek eta 65 urtetik gorakoek (%20,1); eta 4 puntu txikiagoa da 35 eta 64 urte bitartekoek dutena (%16 inguru).


19. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera. EAE, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Duela 30 urte, alderantziz gertatzen zen. Izan ere, 1991n lehen hizkuntza euskara soilik jaso zutenen ehunekorik handiena 65 urtetik gorakoek zuten (%32,4), eta ehunekoak behera egiten zuen adinak behera egin ahala. 1991n 25 urtetik beherako gazteek zuten ehunekorik txikiena (%17). Gaur egun, berriz, 16-24 urte bitartekoek ehunekoa 7,1 puntu handiagoa da.

Halaber, euskara eta gaztelania batera jaso zutenen ehunekoa txikiagoa zen oro har, gaur egun baino (%2,6 versus %6,5). Adinari erreparatuz eta alderaketa eginez, gazteen artean dago alderik handiena. Izan ere, duela 30 urte, 16-24 urte bitarteko gazteen %3,4k jaso zuen euskara eta erdara batera lehen hizkuntza gisa; gaur egun, aldiz, adin horretako gazteen %13,8k jaso du, hau da, 10,4 puntuko aldea.


20. irudia. Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera. EAE, 1991-2021 (%)

3.3. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera

Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera sailkatuz gero, hiru multzotan banatzen dira:


- **Euskaldun zaharrak:** euskara soilik jaso dute gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik hiru urte bete arte.
- **Jatorrizko elebidunak:** euskara eta erdara jaso dituzte gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik hiru urte bete arte.
- **Euskaldun berriak:** ez dute euskararik jaso etxean gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik. Etxetik kanpo ikasi dute euskara, eskolan edo euskaltegian.

EAEko euskaldunen % 47,8 euskaldun zaharrak dira, euskaldunen % 15,4 jatorrizko elebidunak eta % 36,9 euskaldun berriak.

21. irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2021 (%)


Lehen hizkuntzari dagokionez, euskaldunen multzoa asko aldatu da azken 30 urteotan. 1991n euskaldun gehienak (%79,3) euskaldun zaharrak ziren, hau da, etxean jaso zuten euskara. Ordutik pisua galtzen joan dira (-31,2 puntu), eta 2021ean, oraindik, nagusi izaten jarraitzen badute ere, euskaldunen erdia baino gutxiago dira dagoeneko.

Euskaldun berriak eta jatorrizko elebidunak, aldiz, bikoiztu baino gehiago egin dira azken 30 urteotan. Euskaldun berrien hazkundera 22,7 puntukoa izan da eta jatorrizko elebidunena 8,6 puntukoa.


22. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 1991-2021 (%)


Lurraldearen arabera, aldeak handiak dira. Araban euskaldun berriak nagusi dira alde handiz (%67,9). Euskaldun zaharrak %14,2 dira Araban, eta jatorrizko elebidunak %14,2.

Bizkaian ere euskaldun berriak dira nagusi (%44,6), baina euskaldun zaharrek ere pisu handia dute (%38,9). Jatorrizko elebidunak %16,5 dira.

Azkenik, Gipuzkoan euskaldun berriak euskaldunen laurdena baino gutxiago dira (%23,0). Gipuzkoako euskaldun gehienak euskaldun zaharrak dira (%62,5). Jatorrizko elebidunak %14,5 dira.

23. irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta lurraldearen arabera. EAE, 2021 (%)



Hiriburuei dagokienez, Gasteizen eta Bilbon euskaldun berriak dira nagusi (%68,2 eta %64,6 hurrenez hurren).

Donostian euskaldun berriak eta zaharrak parez pare daude (%39,9 eta %40,6 hurrenez hurren). Donostian bost euskaldunetik bat jatorrizko elebiduna da (%19,5).

8. taula. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera, hiriburuetan. EAE, 2021

	Gasteiz	Bilbo	Donostia
Euskaldunak	44.530	66.758	61.244
Euskaldun zaharrak	17	21,7	40,6
Jatorrizko elebidunak	14,8	13,7	19,5
Euskaldun berriak	68,2	64,6	39,9


Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Adinari dagokionez, adinak behera egin ahala txikiagoa da euskaldun zaharren ehunekoa eta handiagoa euskaldun berriena eta jatorrizko elebidunena.

Euskaldun berrien hazkundera handia izan da adin-talde guztietan. 2021ean 16-24 urte bitarteko euskaldunen ia erdia euskaldun berria da (%49,2). 1991n, berriz, adin-tarte horretako euskaldunen %26,3 ziren euskaldun berriak.

25-34 eta 35-49 adin-taldeetan euskaldunen %40 baino gehiago dira euskaldun berriak; 1991n %12,1 eta %20,4 ziren, hurrenez hurren.

Gaur egun ez bezala, 1991n euskaldun zaharrak ziren nagusi adin-talde guztietan eta jatorrizko elebidunak oso gutxi ziren adin-alde guztietan, %10 baino gutxiago, 16-24 urte bitartekoen artean izan ezik.

24. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. EAE, 1991-2021 (%)


Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

3.4. Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa

Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko inkestatu guztiei galdetu zaie zein hizkuntza jaso duten etxean, eta emaitzak gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera sailkatu dira.


Kontuan izan behar da inkestatuen artean 16 eta ia 100 urte bitarteko pertsonak daudela. Horren ondorioz, orain dela ia ehun urtetik hona gurasoek euskara nola transmititu duten jakin dezakegu.

Guraso biak euskaldunak izanik, seme-alaben %85,5ek euskara soilik jaso du etxean EAEn, % 7,8k euskara eta erdara eta % 6,7k ez du euskararik jaso.

Guraso biak euskaldunak izanik, euskararen transmisioa handiagoa da adinean behera egin ahala. Horrela, euskararen transmisiorik handiena 16-34 urte bitarteko inkestatuek dute. Adin horretako gazteen % 85ek euskara soilik jaso du etxean eta % 12,7k euskara eta erdara. Azpimarratzekoa da euskara eta erdara jaso duten gazteen hazkundera. Hazkunde hori gazteen artean guraso euskaldun berriak dituztenei esker gertatzen ari da.

Guraso biak euskaldunak izanik, gero eta gutxiago dira euskararik jasotzen ez duten seme-alabak, eta gehiago euskara erdararekin batera jasotzen dutenak.

25. irudia. Transmisioa guraso biak euskaldunak direnean, adinaren arabera. EAE, 2021 (%)




Gurasoetako bat denean euskalduna, seme-alaben %46k euskara eta erdara jaso dute eta %54k erdara soilik. Kontuan hartu euskara soilik ez dela transmititzen, gurasoetako bat erdalduna delako.

Gurasoetako bat euskalduna denean ere, desberdintasun handiak daude euskararen transmisioan adinaren arabera. Adinean behera egin ahala, euskararen transmisioa gero eta handiagoa da.

Horrela, gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, 65 urtetik gorako seme-alaben %24,2k jaso dute euskara etxean (erdararekin batera), 35 eta 64 urte bitartekoen %50,8k eta 16 eta 34 urte bitartekoen %57,4k.

26. irudia. Transmisioa gurasoetako bat bakarrik euskalduna denean, adinaren arabera. EAE, 2021 (%)




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Gurasoetako batek euskaraz dakienean, desberdintasuna dago euskararen transmisioan, euskaraz dakiena aita ala ama izan.

Ama euskalduna denean, seme-alaben erdiak (%49,9) euskara (erdararekin batera) jaso du etxean eta beste erdiak (%51,1) erdara soilik.

Euskalduna aita denean, seme-alaben %41,7k jaso du euskara (erdararekin batera) eta %58,3k erdara soilik.

Adinean behera egin ahala, transmisioa handiagoa da, bai amaren kasuan eta baita aitaren kasuan ere.

27. irudia. Transmisioa ama ala aita soilik euskalduna denean. EAE, 2021 (%)

3-15 urte bitarteko seme-alabak dituzten familien hizkuntza-transmisioa

3-15 urteko ume eta gazteei etxean zein hizkuntza transmititu zaien jakiteko, adin horretako seme-alabak dituzten inkestatuei galdetu zaie.

Gurasoak biak euskaldunak direnean, seme-alaben % 84,3k euskara soilik jaso du etxean, % 10,3k euskara eta erdara eta % 5,5ek erdara soilik.


Guraso bakarra euskalduna denean, seme-alaben % 69,3k euskara eta erdara jaso ditu etxean eta % 30,7k erdara soilik.

Hizkuntzaren transmisioan, gurasoen hizkuntza-gaitasunaz gain, eragin handia du haien lehen hizkuntzak. Aldagai biak gurutzatuta, gurasoen euskara-ezagutzaren eta lehen hizkuntzaren arabera azterketa egingo da jarraian.

Guraso biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza euskara denean, seme-alaben % 98k euskara soilik jaso du etxean eta % 2k euskara eta erdara.

Guraso biak euskaldunak direnean eta bietako baten lehen hizkuntza euskara denean, seme-alaben % 88k euskara soilik jaso du etxean, % 10ek euskara eta erdara eta % 2k erdara.


28. irudia. 3-15 urte bitarteko seme-alabei transmititutako hizkuntza, gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Guraso biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza erdara denean, seme-alaben % 35ek euskara soilik jaso du etxean, % 36k euskara eta erdara eta % 29k erdara.

29. irudia. 3-15 urte bitarteko seme-alabei transmititutako hizkuntza, gurasoen lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2021 (%)




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Guraso bakarra euskalduna denean eta haren lehen hizkuntza euskara denean, %84k euskara eta erdara transmititu ditu eta %16k erdara.

Guraso euskaldunaren lehen hizkuntza erdara denean, %57k euskara eta erdara transmititu ditu eta %43k erdara.

30. irudia. 3-15 urte bitarteko seme-alabei transmitituko hizkuntza, gurasoen lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2021 (%)



3.5. Euskararen irabaziak eta galerak

EAEen lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izan duten gehien-gehienek euskara gorde dute eta euskaldunak dira gaur egun (%91,8).

Hala ere, badira euskara guztiz edo partez galdu dutenak (16 urte edo gehiagoko biztanleen %2). Galera gehienak galera partzialak dira, hau da, pertsona horiek euskaraz ondo hitz egin ez arren, ondo ulertzeko gai dira.

Adinaren arabera, gaur egun galera gehienak 50 urte edo gehiagokoenak dira.


Galera oso gehienak 65 urte edo gehiagokoenak dira; 35 eta 64 urte bitartekoen galera gehienak, aldiz, partzialak dira.

Aldi berean, baina, lehen hizkuntza erdara izan arren, EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean, euskara ikasi eta gaur egun euskaldun diren 251.000 pertsona

daude, 1991n baino 201.000 lagun gehiago. Horiexek euskararen irabaziak dira, euskaldun berriak alegia.

Irabaziei dagokienez, alde handiak daude adinaren arabera. Euskara irabazi dutenen ehunekoa txikia da 65 urtetik gorakoen artean. 65 urtetik beherakoen artean, ordea, irabaziak gero eta handiagoak dira, eta gazteen artean oso handiak.

31. irudia. Euskararen irabaziak eta galerak adinaren arabera. EAE, 2021 (%)



4. EUSKARAREN ERABILERA

4.1. Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak: korrelazioak

Euskararen erabilerari buruzko datuak eman aurretik, erabileran gehien eragiten duten faktoreak aztertuko dira. Horretarako, korrelazioen analisia egin da. Korrelazioen analisiaren bidez, aztertu nahi den aldagaian (erabileran) zer beste aldagaik eta zein neurritan eragiten duen aztertzen da.

Hiru erabilera-eremuren araberrako korrelazioak egin dira: etxeako erabilera, lagunartekoa eta lankideen artekoa. Guztietan, hurrenkera zerbait aldatu arren, bi dira erabileran gehien eragiten duten faktoreak: harreman-sareko euskaldunen dentsitatea (zenbatek dakien euskara etxean, lagunartean edo lankideen artean, eta gune soziolinguistikoa) eta erraztasuna (lehen hizkuntzarekin lotura zuzena duena).

EAEan, etxeako erabileran gehien eragiten duen faktorea erraztasuna da (0,759). Bigarren faktorea etxeako euskaldunen dentsitatea da, hau da, zenbatek dakien euskaraz etxean (0,673). Lehen hizkuntzak lotura handia du erraztasunarekin, eta eragin handia du etxeako erabileran (0,635). Jarraian, gune soziolinguistikoa dago (0,534).

9. taula. Korrelazioak: euskararen erabilera etxean. EAE, 2021

	Erraztasuna euskaraz	Euskaldunen proportzioa etxean	Lehen hizkuntza	Gune soziolinguistikoa
Etxean hitz egiten den hizkuntza	0,759	0,673	0,635	0,534

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Lagunarteko erabileran ere gehien eragiten duen aldagaia erraztasuna da (0,689). Bigarren faktorea gune soziolinguistikoa da (0,569). Lehen hizkuntzarekiko korrelazioa ere altua da (0,534). Harreman-sarea da laugarrena, hau da, lagunetatik zenbatek dakien euskaraz (0,491).

10. taula. Korrelazioak: euskararen erabilera lagunekin. EAE, 2021

	Erraztasuna euskaraz	Gune Soziolinguistikoa	Lehen hizkuntza	Euskaldunen proportzioa lagun artean
Lagunekin hitz egiten den hizkuntza	0,689	0,569	0,534	0,491

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Lankideen arteko erabilera euskaldunen dentsitateak eragiten du gehien (0,754), hau da, lankideetatik zenbatek dakien euskaraz. Bigarren faktorea erraztasuna da (0,344). Ondoren daude gune soziolinguistikoa (0,269) eta lehen hizkuntzarekin (0,255).

11. taula. Korrelazioak: euskararen erabilera lankideekin. EAE, 2021


	Euskaldunen proportzioa lankideen artean	Erraztasuna euskaraz	Gune soziolinguistikoa	Lehen hizkuntza
Lankideekin hitz egiten den hizkuntza	0,754	0,344	0,269	0,255

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Hortaz, Inkesta Soziolinguistikoaren datuak erabiliz egindako korrelazioen analisiaren arabera, erraztasuna eta harreman-sarea dira euskararen erabilera gehien eragiten duten faktoreak. Bi faktore horiek, baina, ez dute euskararen erabilera erabat bermatzen. Beste aldagai batzuek ere eragiten dute euskararen erabilera (jarrerak eta interesak, esaterako).

4.2. Euskararen erabilera Euskal Autonomia Erkidegoan, lurraldearen eta hiriburuaren arabera

16 urte edo gehiagoko biztanleen %22k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du EAEn, % 11,5ek euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, %5,7k oso gutxitan erabiltzen du euskara eta gainerako guztiek (%60,9) erdara erabiltzen dute.

32. irudia. Euskararen erabileraren tipologia. EAE, 2021 (%)

Euskararen erabilera zein den neurtzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak tipologia bat definitu du. Tipologia hori eratzeko kontuan hartu diren erabilera-eremuak honakoak dira:

- etxeko erabilera
- lagunarteko erabilera
- erabilera formala (dendak eta bankuak batetik, eta osasun-zerbitzuak eta udal zerbitzuak bestetik)


Erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude lurralde batetik bestera. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 40,8 dira Gipuzkoan, % 14,5 Bizkaian eta % 7,8 Araban.

Lurraldeen arteko alde horiek ulertzeko, ikus dezagun zein faktorerengatik den handiagoa euskararen erabilera Gipuzkoan:

- Bost udalerrri izan ezik (Errenteria, Irun, Lasarte-Oria, Pasaia eta Donostia), Gipuzkoako udalerrriak hirugarren eta laugarren gune soziolinguistikoetan daude, gunerik euskaldunenak, alegia. Gainera, bost udalerrri horiek bigarren gune soziolinguistikoan egon arren, hirugarren gune soziolinguistikoan sartzetik gertu daude.
- Gipuzkoan, euskaldunen ia % 70ek euskaraz du erraztasun handiagoa edo erdaraz bestekoa, horietatik (% 39k euskaraz handiagoa eta % 31k berdin). Era berean, euskaldunen % 62,5ek euskara soilik jaso du etxean, hau da, lehen hizkuntza euskara izan du.

Araban eta Bizkaian baldintzak oso bestelakoak dira, eta horren ondorioz askoz txikiagoa da erabilera.

33. irudia. Euskararen erabileraren tipologia lurraldearen arabera. EAE, 2021 (%)



Hiriburuetakoko erabileran ere alde handia dago Gasteiz eta Bilbo, alde batetik, eta Donostia artean, bestetik. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak %6,2 dira Gasteizen, %5,5 Bilbon eta %22,7 Donostian.

12. taula. Euskararen erabilera hiriburuaren arabera. EAE, 2021

	Gasteiz	Bilbo	Donostia
Euskaraz erdaraz baino gehiago	1,7	2,0	10,7
Euskaraz erdaraz beste	4,9	4,5	12,0
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	11,7	10,4	14,6
Oso gutxi euskaraz	5,9	7,1	4,7
Beti erdaraz	75,8	76,0	58,0

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Lurraldeen eta hiriburuaren artean dauden alde horiek oso nabarmenak dira gunee soziolinguistikoen artean ere. Euskararen erabilera %5,6koa da lehenengo gunee soziolinguistikoa eta %21,2koa bigarrenen. Hirugarren gunee soziolinguistikoa, aldiz, %53,2k erabiltzen dute euskara erdara beste edo gehiago, eta laugarrenean %78,5ek.

Azken 30 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak 6,4 puntu egin du gora EAEn. Gaur egun 1991n baino 141.700 pertsona gehiagok erabiltzen du EAEn euskara erdara beste edo gehiago.


34. irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. EAE, 1991-2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Igoera hori hiru lurraldeetan eta hiru hiriburuetan gertatu da. Araban euskararen erabilerak 7,3 puntu egin du gora, Bizkaian 5,7 puntu eta Gipuzkoan 7,7 puntu.


35. irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1991-2021 (%)



EAEko lehenengo hiru gune soziolinguistikoetan euskararen erabilerak gora egin du 1991 eta 2021 bitartean: 4,4 puntu lehenengo gunean, 6,4 bigarreanean eta 7,3 hirugarrenean.

Laugarren gune soziolinguistikoan, aldiz, euskararen erabilerak behera egin du (-9,7 puntu). Beherakada hori azken ia bi hamarkadetan izan diren biztanleen mugimenduen ondorioa da nagusiki. Gune erdaldunean, mugimendu horiek euskararen mesederako izan badira ere, gune euskaldunean, oro har, ez da hala izan.

36. irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 1991-2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

4.3. Euskararen erabilera sexuaren eta adinaren arabera

Sexuari dagokionez, euskararen erabilera oro har ez dago alde esanguratsurik emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa % 21,8 da emakumezkoen artean eta % 22,1 gizonezkoen artean. Azken 30 urteotan, euskara beste edo gehiago erabiltzen duten emakumezkoen eta gizonezkoen portzentajeen arteko aldea txikia izan da.

13. taula. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera sexuaren arabera. EAE, 1991-2021 (%)


	1991	2001	2011	2021
Gizonezkoak	15,9	17,5	19,8	22,1
Emakumezkoak	15,2	17,5	20,2	21,8
Guztira	15,6	17,5	20,5	21,9

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskararen erabilera adinaren arabera aztertuz gero, gazteen artean dago euskara erabiltzen dutenen ehunekorik handiena. Izan ere, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen herenak (% 33,5) erdara beste edo gehiago erabiltzen du.

Ehunekorik txikiena, aldiz, 65 urtetik gorakoen artean dago (% 16,7), eta adinak behera egin ahala gero eta handiagoa da euskara erabiltzen dutenen ehunekoa. Alderantziz gertatzen zen duela 30 urte.

37. irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera. EAE, 1991-2021 (%)



Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenei dagokienez, adinaren araberako jokaera horiek, oro har, errepikatu egiten dira EAEko hiru lurraldeetan. Hala ere, ehunekoak askoz handiagoak dira Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian baino adin-talde guztietan. Gipuzkoan euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak herena edo gehiago dira adin-talde guztietan eta erdia baino gehiago 35 urtetik beherakoen artean.

14. taula. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak lurraldearen eta adinaren arabera. EAE, 2021 (%)

	ADINA					
	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
EAE	20,5	17,5	17,5	20,1	26,6	29,5
Araba	5,6	1,1	4,2	5,6	9,8	14,9
Bizkaia	13,0	12,1	12,3	11,8	16,2	16,7
Gipuzkoa	39,5	33,5	32,1	40,2	52,1	54,7

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Beti erdara erabiltzen dutenek nagusi izaten jarraitzen dute adin-talde guztietan, 25 urtetik beherakoen artean izan ezik (16 eta 24 urtekoen artean beti erdaraz aritzen direnak %31,4 dira).


4.4. Euskararen erabilera hainbat eremutan: etxean, lagunen artean, eremu formalean

Euskararen erabilera etxean

EAEEn 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 19,9k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du etxean, % 10,5ek euskara erdara baino gutxiago, eta gainerako % 69,6k erdara.

Etxeko kideen arteko erabileran alde esanguratsuak daude. Euskararen erabilerarik handiena seme-alabekin egiten da (% 24) eta erabilerarik txikiena bikotekidearekin (% 17,2). Neba-arreben arteko erabilera % 21,1koa da, aitarekin % 18,3koa eta amarekin % 18,7koa.

38. irudia. Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak. EAE, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Azken 30 urteotan, euskararen erabilerak etxean gorabehera txikiak baditu ere, azken bost urteotan 2,7 puntu egin du gora.

Bilakaera positibo handia izan du seme-alabekiko erabilerak (5,9 puntu) eta neba-arreben artekoak (4,1 puntu). Erabilerak amarekin eta aitarekin ere gora egin du (2,7 eta 4,4 puntu, hurrenez hurren) eta baita bikotekidearekin ere (2,5 puntu).

15. taula. Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. EAE, 1991-2021 (%)

	1991	2001	2011	2021
Etxean denak elkarrekin daudenean	17,3	17,0	17,2	19,9
Bikotekidearekin	14,7	12,1	14,1	17,2
Seme-alabekin	18,1	20,5	22,8	24,0
Amarekin	16,0	14,8	16,4	18,7
Aitarekin	13,9	14,1	15,9	18,3
Neba-arrebeekin	17,0	18,1	20,1	21,1

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskararen erabilera lagunartean

EAE n 16 urte edo gehiagoko biztanleen %22,1ek euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du lagunekin, % 12k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, eta gainerako %65,9k erdara.

Azken 30 urteotan, 6 puntu egin du gora lagunekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak.

16. taula. Lagunekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. EAE, 1991-2021 (%)

	1991	2001	2011	2021
Lagunekin	16,1	18,2	21,3	22,1

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskararen erabilera eremu formalean

Atal honetan hiru erabilera-eremu aztertuko dira: erabilera lankideekin, erabilera eremu pribatuan (dendariekin eta bankukoekin) eta erabilera eremu publikoan (osasan-zerbitzukoekin eta udal zerbitzukoekin).


2021ean, lankideekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 26,8 dira EAEn. Euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago % 11,8 dira, eta erdaraz mintzatzen direnak % 61,4.

Lankideekin emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago erabiltzen dute euskara (2,5 puntu gainera dago emakumezkoen erabilera).

Eremu pribatuan, dendariekin % 22,4k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago, eta bankukoekin % 22,1k. Bi erabilera-eremu horietan euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago % 9,2 eta % 7,9 dira, hurrenez hurren.

Eremu publikoari dagokionez, osasan-zerbitzukoekin % 23,1k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago, eta udal zerbitzukoekin % 27,4k.

39. irudia. Eremu formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak. EAE, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Azken 30 urteotan 11,4 puntu egin du gora lankideekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajeak, 7,6 puntu dendariekin eta 7 puntu bankukoekin. Eremu publikoan, hazkundera 14,6 puntukoa izan da osasun-zerbitzukoekin eta 12 puntu udal zerbitzukoekin.

17. taula. Eremu formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. EAE, 1991-2021 (%)

	1991	2001	2011	2021
Lankideekin	15,4	18	24,5	26,8
Dendariekin	14,8	16,9	20,4	22,4
Bankukoekin	15,1	19,9	21,3	22,1
Osasun-zerbitzukoekin	8,5	14,1	19,8	23,1
Udal zerbitzukoekin	15,4	20	24,8	27,4

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

4.5. Euskararen erabilera sare sozialetan

Interneteko sare sozialetan gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania da. Hala ere, erabiltzaileen % 19,5ek euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du, gazteen artean (16-24 urte) % 28,5 dira. Gaztelaniaz eta euskaraz gain, erabiltzaileek beste hizkuntza batzuetan ere dihardute Interneten, nagusiki ingelesez (% 3,4).

5. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA


5.1. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera Euskal Autonomia Erkidegoan, lurraldearen eta hiriburuaren arabera

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, lau iritziren araberako tipologia eratu da. Honako hauek dira tipologia osatzeko aintzat hartu diren iritziak:


- Administrazioan sartzeko euskara jakin beharko litzateke
- Hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino
- Haur guztiek euskara ikasi beharko lukete
- Irrati/telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz

EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %67 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, %26,3 ez alde ez aurka eta %6,8 aurka.


40. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera. EAE, 2021 (%)



1991ko eta 2021eko datuak alderatuz, euskara sustatzearen alde daudenen ehunekoak 12 puntuko hazkundea izan du (%55 versus %67). Aldiz, gutxiago dira ez alde ez aurka agertzen direnak (%31 versus %26,3), eta erdira jaitsi da aurka daudenen ehunekoa (%14 versus %6,8).

41. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera. EAE, 1991-2021 (%)


Gipuzkoarrek dute euskara sustatzearen aldeko jarrera handiena (%76,4), ondoren bizkaitarrek (%65,1), eta txikiena arabarrek (%53,3).

42. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera lurraldearen arabera. EAE, 2021 (%)


Azken hogeita hamar urteotako bilakaerari erreparatuz, euskararen erabilera sustatzearen alde daudenen ehunekoa hazi egin da lurralde guztietan, batez ere Gipuzkoan. Izan ere, 1991n, Gipuzkoan biztanleriaren %59,9 zegoen euskararen erabilera sustatzearen alde (16,5 puntuko hazkundea), Bizkaian %54,3 (10,8 puntuko hazkundea), eta Araban %45,4 (7,9 puntuko hazkundea).

Hiriburuei dagokienez, Donostiako biztanleriaren %67,8 euskara sustatzearen alde dago, Bilboko biztanleriaren %57,2 eta Gasteizkoaren %51,7. Aurka daudenen artean, ehunekorik handiena Gasteizek eta Bilbok dute (%11 eta %9,6 hurrenez hurren), eta aurkako jarrerarik txikiena Donostiak (%6,9).

18. taula. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hiriburuetan. EAE, 2021 (%)


	Gasteiz	Bilbo	Donostia
Alde	51,7	57,2	67,8
Ez alde ez aurka	37,3	33,2	25,3
Aurka	11,0	9,6	6,9

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Jarreraren tipologia osatzeko erabilitako iritzien erantzunak honakoak dira:

- Administrazioan sartzeko euskara jakin behar dela uste du EAeko biztanleen %74,7k, %6,3 ez dago ez alde ez aurka. Bestalde, %18,1 dira iritzi horren aurka daudenak eta beste %0,9k ez du erantzun.
- Hobe dela jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino uste du %22,7k (euskararen erabilera sustatzearen kontra), eta beste %24,8 ez dago ez alde ez aurka. Azkenik, %51 dira iritzi horren aurka daudenak (euskararen erabilera sustatzearen alde). Beste %1,5ek ez du erantzun.
- Haur guztiek euskara ikasi beharko luketela uste du %89,3k, %4,7 ez dago ez alde ez aurka, %5,6 aurka dago, eta %0,4k ez du erantzun.
- Azkenik, irrati eta telebistek programa gehiago beharko luketela euskaraz uste du %49,3k, %21,1 ez dago ez alde ez aurka, %22,7 aurka dago, eta %6,9k ez du erantzun.


43. irudia. Jarreraren tipologia osatzeko aintzat hartu diren lau iritziak. EAE, 2021 (%)



5.2. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza-gaitasunaren, sexuaren eta adinaren arabera

Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde azaltzen da euskaldunen %90,1, euskaldun hartzaileen %64,6 eta erdaldunen %49,4.

44. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE, 2021 (%)



Sexuari erreparatuz, ez dago ia alderik emakumezkoen eta gizonezkoen artean euskara sustatzeari buruzko jarreran.


19. taula. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera sexuaren arabera. EAE, 2021 (%)

	Alde	Ez alde ez aurka	Aurka
Guztira	67,0	26,3	6,8
Emakumezkoak	67,1	26,4	6,5
Gizonezkoak	66,8	26,1	7,1

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Adinari dagokionez, euskararen erabilera sustatzearen aldekoenak gazteenak dira. Horrela, 16-24 urte bitartekoek %72,7 euskararen erabilera sustatzearen alde dago. Euskararen erabilera sustatzearen aldeko ehuneko txikiena, aldiz, 50-64 urte bitartekoena da (%62,7).

45. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren arabera. EAE, 2021 (%)




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

5.3. Euskarari buruzko interesa eta beste zenbait iritzi

Euskararen interesari buruz galdetuta, EAEko biztanleriaren %63,2k interes handia edo nahiko handia du euskararekiko, %15,2k zertxobait, %20,9k interes txikia edo bat ere ez, eta, azkenik, %0,7k ez du erantzun.

46. irudia. Euskarari buruzko interesa. EAE, 2021 (%)




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Bestalde, EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 73,6k seme-alabarik izanez gero, D ereduan ikas dezaten nahi luke eta % 19,1ek B ereduan. A ereduan, ostera, % 3,7k.

Duela hogeita bost urte, hau da, 1996an, txikiagoa zen D ereduaren aldeko hautua (% 41,4) eta handiagoa, aldiz, B ereduaren aldekoa (% 44,7). Era berean, 1996an A ereduaren aldeko hautua ere handiagoa zen (% 9,3).

47. irudia. Seme-alabarik izanez gero, zein hizkuntzatan nahiko zenuke haiek ikastea? EAE, 1996-2021 (%)




Halaber, 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 88,2k etorkizunean euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin beharko litzatekeela uste du, % 9,5ek euskara hutsean eta % 1ek gaztelania hutsean.

Era berean, euskaldunei galdetu zaie ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara erabiltzeko aukera ez izateagatik, eta % 36,8k erantzun du diskriminatuta sentitu dela. Erdaldunei galdetu zaie ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara ez jakiteagatik, eta % 22,4k erantzun du diskriminatuta sentitu dela.

Eusko Jaurlaritza euskararen arloan egiten ari den lanari buruz galdetuta, EAEko 16 urte edo gehiagoko herritarren % 49,4ri egokia iruditzen zaio, % 23,3ri desegokia, % 1,9ri berdin zaio, eta gainerako % 25,4k ez daki edo ez du erantzun.

Lurraldeen arabera, bizkaitarrak eta gipuzkoarrak dira Eusko Jaurlaritza euskararen arloan egiten ari den lana egokia dela uste dutenen ehunekorik handiena dutenak (% 51,7 eta % 49,1 hurrenez hurren), eta arabarrak txikiena (% 41,6).


48. irudia. Eusko Jaurlaritza euskararen arloan egiten ari den lanari buruzko balorazioa lurraldearen arabera. EAE, 2021 (%)



Euskarari buruzko beste iritzi batzuez ere galdetu zaie inkestatuei. Laburbilduz, emaitzak honakoak dira:

- Euskara beharrezkoa da jendearekin komunikatzeko iritziari buruz, nahiko parekatuta daude aldeko eta kontrako ehunekoak: %45,9 alde dago eta %42,6 aurka.
- EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean, %43,1 da euskarak gaztelaniak duen garrantzia izango duela uste duena eta herena (%30,5) kontrakoa uste duena, hau da, euskarak ez duela sekula izango gaztelaniak duen garrantzia.
- Euskaldunen %50,9k nahiago du euskaraz egiten duten dendetara joan eta %30,8ri berdin zaio.
- Euskaldunek ezezagunei lehen hitza euskaraz egiteari dagokionez, EAEko biztanleen %61,9 ados dago, eta %21,5 aurka.
- Nahiz eta solaskide guztiek euskaraz ez jakin, euskaldunok beti euskaraz aritzeari buruzko iritziaren aurka daude herritar gehienak (%69,2).

49. irudia. Euskarari buruzko beste zenbait iritzi. EAE, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

- Azkenik, euskara galtzeko arriskuan dago EAEko biztanleen laurdenaren ustez (%27,3). Euskaldunak bakarrik kontuan hartuz, ordea, ehunekoa askoz handiagoa da, ia erdiak uste baitu euskara galtzeko arriskuan dagoela (%47,5).

6. LABURBILDUZ

- EAEn 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 36,2 euskalduna da, % 18,6 euskaldun hartzailea eta % 45,3 erdalduna.
- 1991n baino 261.000 euskaldun gehiago daude gaur egun; euskaldunen ehunekoak 12 puntu hazi da azken 30 urteotan (% 24,1 versus % 36,2).
- Euskaldunen ehunekorik handiena 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean dago: % 74,5 euskalduna. 1991n, aldiz, % 25 zen.
- Emakumezkoen % 36,5 dira euskaldunak eta gizonezkoen % 35,8 (0,7 puntukoa aldea). Araban, baina, aldea 2,6 puntukoa da (% 23,6 emakumezko arabar euskaldunak eta % 21 gizonezkoak).
- Euskaldunen kopuruaren hazkundearekin batera, euskaldunen ezaugarriak aldatu egin dira. Aldaketa nagusiak aniztasunarekin du zerikusia: euskaldunen komunitatea gero eta anitzagoa da. Euskaldunen artean, euskal gizartean oro har gertatzen ari den bezala, errealitate asko dago, lurraldeari, gune soziolinguistikoari, jatorriari, adinari edo sexuari begiratzen badiogu.
- Aldaketa horietako batzuek EAeko gizarte osoan gertatzen ari diren aldaketa soziodemografikoekin dute zerikusia:
 - Euskal gizartea gero eta zaharragoa da: bizi-itxaropena gero eta handiagoa da eta jaiotza-tasa gero eta txikiagoa.
 - Atzerrian jaiotako gero eta jende gehiago bizi da EAEn; erdia baino gehiago 40 urtez azpikoa da (% 55,7).
 - Biztanleriaren mugikortasuna areagotu egin da.
 - Globalizazioaren eragina gero eta handiagoa da.
- Euskaldunei dagokienez, EAeko euskaldunen erdia baino gehiago gune soziolinguistiko erdaldunean edo nahiko erdaldunean bizi da (% 55,4). Beraz, euskaldun askok euskaldunekin hartu-emanak izateko duen sarea oso mugatua da gaur egun.
- Gaur egun euskaldunen % 44,3k erraztasun handiagoa du erdaraz hitz egiteko (1991n % 37,8 zen), eta gazteen artean erdia baino gehiago da erdaraz hobeto moldatzen dena (% 52,7).
- Euskara erabiltzeko erraztasunak lotura handia du lehen hizkuntzarekin. Euskaldunen lehen hizkuntza asko aldatu da azken 30 urteotan. 2021ean euskaldunen % 47,8k euskara du lehen hizkuntza; 1991n, aldiz,

% 79,3k zuen euskara lehen hizkuntza. Euskaldun berriak eta jatorrizko elebidunak duela 30 urte baino bi aldiz gehiago dira gaur egun.

- Familia bidezko euskararen transmisioak gora egin du bai bikote euskaldunetan baita bikote mistoetan ere:
 - Guraso biak euskaldunak direnean ia erabatekoa da euskararen transmisioa (% 94,6), eta % 100ekoa guraso biak euskaldunak izateaz gain, lehen hizkuntza euskara dutenetan.
 - Bikote mistoetan euskararen transmisioa (beti erdararekin batera) % 69,3koa da, eta guraso euskaldunaren lehen hizkuntza euskara denean % 84koa.
 - Bikote mistoetan, euskararen transmisioa handiagoa da euskalduna ama denean (% 49,9) euskalduna aita denean baino (% 41,7).
- EAEn, 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 22k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du, % 11,5ek euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, % 5,7k oso gutxitan erabiltzen du euskara eta % 60,9k beti erdara erabiltzen du.
- Azken 30 urteotan, euskararen erabilerak 6,4 puntu egin du gora EAEn. Gaur egun 1991n baino 141.700 pertsona gehiagok erabiltzen du EAEn euskara erdara beste edo gehiago. Igoera hori hiru lurraldeetan ez ezik, hiru hiriburuetan ere gertatu da.
- Gune soziolinguistikoei dagokienez, euskararen erabilerak gora egin du lehenengo (4,4 puntu), bigarren (6,4 puntu) eta hirugarren (7,3 puntu) gune soziolinguistikoetan. Laugarren gune soziolinguistikoan, aldiz, euskararen erabilerak behera egin du (-9,7 puntu). Beherakada hori azken ia bi hamarkadetan izan diren biztanleen mugimenduen ondorioa da nagusiki.
- Gazteen artean dago euskara erabiltzen dutenen ehunekorik handiena (% 33,5) eta 65 urtetik gorakoan artean txikiena (% 16,7).
- Euskararen erabilerak gora egin du erabilera-eremu guztietan, eta bereziki eremu formalean. Euskararen erabilerak etxean gorabeherak izan arren bilakaeran, azken bost urteotan 2,7 puntu egin du gora.
- Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak 12 puntuko hazkundea izan du 1991 eta 2021 artean. Aldekotasun handiena izan duten iritziak bi izan dira: haur guztiek euskara ikasi beharko luketela iritzi du gizartearen % 89,3k eta Administrazioan sartzeko euskara jakin behar dela % 74,7k.



NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

VII. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA



1. BIZTANLERIA¹

Nafarroan 661.537 pertsona bizi dira 2021ean; 1991n aldiz, 519.277 ziren.

1991ko Nafarroako biztanleria eta 2021ekoa alderatzen baditugu, ikus daiteke 142.260 lagun gehiago direla, zenbaki absolututan. Hazkunde demografikorik azkarrena XXI. mendea hasi eta ondoko hamarkadan gertatu zen: 2001etik 2011 bitarte 86.222 biztanle irabazi zituen Nafarroak.

1. taula. Biztanleriaren bilakaera. Nafarroa, 1991-2021

	1991	2001	2011	2021
Nafarroa	519.277	555.829	642.051	661.537

Iturria: NASTAT (Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak) eta INE (Estadística del Padrón Continuo)

Bilakaera horren eragileak izan dira, batetik, saldo begetatiboak (jaiotzen eta heriotzen arteko aldea) eta, bestetik, migrazio saldoak (immigrazioaren eta emigrazioaren arteko aldea).

Bertako biztanleen ezaugarri nagusiak honakoak dira:

- Gero eta gizarte zaharragoa: bizi-itxaropena gero eta handiagoa da: 86,3 urte emakumezkoentzat eta 81,2 gizonezkoentzat. Dena dela, 2019arekin alderatuz, COVID-19aren ondorioz, 5 hamarren jaitsi da bi multzoetan.
Jaiotza-tasa, aldiz, oso txikia da (7,78 jaiotza 1.000 biztanleko), 27 estatu-kideko Europako Batasuneko (EB-27ko) tasa (8,9 jaiotza 1.000 biztanleko) baino txikiagoa.
- Atzerrian jaiotako biztanleen hazkundera: Nafarroako biztanleen % 16,4 dira 2021ean.


¹ Datuak Nastatetik eta INEtik ateratakoak dira.

- Horrela, 1991tik hona, 65 urte edo gehiagoko biztanleriaren ehunekoak 4,5 puntuko hazkundera izan du: 1991n Nafarroan 65 urteko eta urte gehiagoko 79.768 lagun bizi ziren (biztanleria osoaren % 15,4), eta 2021ean 131.941 bizi dira (biztanleria osoaren % 19,9).

Are handiagoa da adineko pertsonen hazkundera, hau da, 85 urte edo gehiago dituztenena. Izan ere, azken 30 urteotan, ehunekoa handitu da eta biztanleria osoaren % 3,5 da dagoeneko. 2001ean % 1,3 zen.

Horrekin batera, gazteen taldea pisua galduz joan da. 1991n Nafarroan 20 urte baino gutxiagoko 131.674 lagun bizi ziren (biztanleria osoaren % 25,4), eta 2021ean 135.251 bizi dira (biztanleria osoaren % 20,4).

1. irudia. Biztanleria adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2021 (%)



Biztanleriaren jatorriari erreparatuz, 2021eko urtarilaren 1ean, Nafarroan bizi diren biztanleen % 32,2 Nafarroatik kanpoan jaio da, eta horietatik erdia baino gehiago, atzerrian (% 50,9). 2001ean Nafarroatik kanpo jaioak biztanleen % 23,6 ziren, eta horietatik % 22,8 atzerrian.


Nafarroan bizi baina Estatuko gainerako erkidegoetan jaioak biztanleriaren % 15,8 dira 2021ean; eta % 18,2 ziren 2001ean.

2021ean Nafarroan bizi baina EAEn jaio direnak 24.001 dira (nafarren %3,6); 2001ean 21.220 ziren (%3,8, betiere, gehienak gipuzkoarrak).

Hala bada, Nafarroatik kanpo jaiotako pertsonen ehunekoa hazi egin da 2001etik, eta horien jatorrian aldaketa esanguratsua gertatu da. Aldi horretan, 9 puntutan hazi da ehunekotan atzerrian jaio den Nafarroako biztanleria; aldiz, Estatuko gainerako erkidegoetan sortutakoa jaitsi da, %18,2tik %15,8ra.

2021ean Nafarroako biztanleriaren %16,4 atzerrian jaio da.

2. irudia. Atzerrian jaiotakoen bilakaera. Nafarroa, 2001-2021




Atzerrian jaiotako biztanleriaren %51,3 emakumezkoa da (55.725 emakume); eta %48,7 gizonezkoa (52.797 gizon).

Kontinenteei erreparatuz, Espainia ez den Europako gainerako estatuetan jaiotakoak %23,4 dira; Afrikan jaiotakoak %22,5; Amerikan %50,7 eta Asian %3,2.

Kontinentea eta sexua kontuan hartuz, Afrikatik datozen gehienak gizonezkoak dira (%59,2); Amerikatik datozenen artean, aldiz, emakumezkoak (%57).

Adinaren arabera banaketa egitean, atzerriko biztanleriaren ezaugarri nagusienetako bat islatzen da piramidean. Ikus daitekeenez, atzerrian jaiotako biztanleria oso gaztea da, %85,6 berrogeita hamar urtetik beherakoa baita.

3. irudia. Atzerrian jaiotako biztanleriaren piramidea. Nafarroa, 2021 (%)


Nafarroako biztanleriaren hazkundera migrazioaren portaeraren arabera gerta liteke. Izan ere, aurreikus daiteke saldo begetatiboa balio negatiboa izango dela datozen urteotan. Izan ere, ugalkortasun-maila apalagatik, jaiotza-kopurua murriztu egingo da, eta pertsona nagusiak gero eta gehiago izango direnez, heriotza-tasa hazi.

1.1. Biztanleriaren banaketa hizkuntza-eremuaren arabera

18/1986 Foru Legeak, abenduaren 15ekoak, Euskarari buruzkoak ezartzen dituen hizkuntza-eremuetako biztanleriari behaturik, egun eremu euskaldunean nafarren %8,9, bizi dira (59.031 lagun), %63,5 eremu mistoan (420.175 lagun) eta %27,6 eremu ez euskaldunean (182.331 lagun).

Hizkuntza-eremuetako biztanleriaren bilakaera aztertzeko, aintzat hartu behar da hizkuntza-eremuen osieran gertatu diren aldaketak, larriena 2017an. Izan ere, ekainaren 27ko 9/2017 Foru Legearen bidez, eremu mistoko udalerrri bat


(Atetz) eremu euskaldunean sartu zen eta eremu ez euskalduneko 44 udalerrri, euskaldunen ehunekorik altuenetakoak zituztenak eta batzuk, gainera, Nafarroako handienetakoak direnak (Tafalla eta Zangoza, besteak beste) eremu mistora pasatu ziren.

2. taula. Biztanleriaren bilakaera hizkuntza-eremuen arabera. Nafarroa, 1991-2021

	1991		2001		2011		2021	
		%		%		%		%
Nafarroa	519.277	100,0	555.829	100,0	642.051	100,0	661.537	100,0
Eremu euskalduna	56.673	10,9	55.263	9,9	59.534	9,3	59.031	8,9
Eremu mistoa	271.459	52,3	299.094	53,8	350.782	54,6	420.175	63,5
Eremu ez euskalduna	191.145	36,8	201.472	36,2	231.735	36,1	182.331	27,6

Iturria: NASTAT. Biztanleriaren eta etxebizitzaren Zentsuak eta Estatistikak.

Beraz, 1991 urtetik 2021 arte, gertatu diren hizkuntza-eremuen osaeraren aldaketatik, eremu mistoak 148.716 lagun irabazi ditu eta Nafarroako biztanleria osoarekiko duen pisu demografikoa 11,2 puntu handitu da. Eremu ez euskalduna aldiz, nabarmen txikitu da, hala absolutuetan (8.814 lagun gutxiago) nola ehunekoan (9,2 puntu gutxiago). Eremu euskaldunak, biztanleak irabazi arren (2.358 lagun gehiago), haren pisu erlatiboak 2 puntu galdu ditu.

4. irudia. Hizkuntza-eremuen banaketa. Nafarroa, 2021 (%)

Iturria: NASTAT. Biztanleriaren eta etxebizitzien Zentsuak eta Estatistikak.

2. HIZKUNTZA-GAITASUNA


2.1. Hizkuntza-gaitasuna Nafarroan, hiriburuan eta hizkuntza-eremuaren arabera

Hiru hiztun mota bereizten dira euskaraz hitz egiteko edo ulertzeko duten gaitasunaren arabera:

- **Euskalduna (elebiduna):** euskara ondo edo nahiko ondo ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
- **Euskaldun hartzailea (elebidun hartzailea):** Ez da euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiteko gai. Hala ere, badu euskararen nolabaiteko ezagutza. Zehazki, multzo honetan sartzen da honako baldintza hauetakoren bat gutxienez betetzen duena:
 - Euskaraz “zertxobait” ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
 - Euskara “ondo” edo “nahiko ondo” ulertzeko gai da.
- **Erdalduna (erdaldun elebakarra):** ez da gai euskaraz ulertzeko ezta hitz egiteko ere.

2021ean Nafarroako Foru Komunitatean bizi den 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 14,1 euskalduna da, % 10,6 euskaldun hartzailea eta % 75,3 erdalduna.

5. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. Nafarroa, 2021 (%)




3. taula. Hizkuntza-gaitasuna hizkuntza-eremuaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)

	Nafarroa	Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez euskalduna
Guztira	545.476	49.308	347.363	148.805
Euskaldunak	76.784	30.700	43.646	2.438
Euskaldun hartzaileak	57.834	6.738	39.977	11.119
Erdaldunak	410.300	11.870	263.740	134.690

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Hiru hizkuntza-eremuak kontuan hartuz, alde handiak daude batetik bestera. Eremu euskalduneko biztanleriaren gehiengo luzea euskalduna da (%62,3). Eremu mistoan, aldiz, biztanleriaren hamarren bat inguru da euskalduna (%12,6); eta eremu ez euskaldunean, biztanleriaren ehuneko ia bi da euskalduna (%1,6).

6. irudia. Hizkuntza-gaitasuna hizkuntza-eremuen arabera. Nafarroa, 2021 (%)


Hiriburuko datuei dagokienez, aipatzekoa da Iruñeko euskaldunen ehunekoa Nafarroa osoko portzentajea baino txikixeagoa dela; eta Iruñeko euskaldun hartzaileena Nafarroakoa baino handixeagoa. Iruñean biztanleen %13,5 da euskalduna eta %11,1 euskaldun hartzailea.

4. taula. Iruñeko hizkuntza-gaitasuna, 2021


	Iruña	(%)
Guztira	172.176	100,0
Euskaldunak	23.306	13,5
Euskaldun hartzaileak	19.082	11,1
Erdaldunak	129.788	75,4

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Jaiolekuari dagokionez, VII. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2021ean Nafarroako euskaldunen %55,9 eremu mistoan jaio da, %28,8 eremu euskaldunean eta %1,6 eremu ez euskaldunean. Kanpoan jaiotakoei dagokienez, euskaldunen %10,6 EAEn jaio da, %1,2 Estatuko gainerako erkidegoetan, eta %1,9 atzerrian.

Ikasketa-mailari dagokionez, VII. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2021ean Nafarroako euskaldunen %41,1ek goi mailako ikasketak ditu, euskaldun hartzaileen %37,3k eta erdaldunen %27,9k.

Azken hogeita hamar urteotako bilakaerari dagokionez, gaur egun, 1991n baino 36.600 euskaldun gehiago daude Nafarroan. Euskaldunen ehunekoa 4,6 puntu hazi da (%9,5 versus %14,1).

7. irudia. Euskaldunen bilakaera. Nafarroa, 1991-2021


Euskaldun hartzaileek ere 6 puntuko hazkundera izan dute hogeita hamar urte hauetan (%4,6 versus %10,6).

Erdaldunek, aldiz, 10,6 puntuko jaitsiera izan dute (%85,9 ziren 1991n eta %75,3 dira 2021ean).

Erdaldunen beherakada eta euskaldunen hazkundera are azpimarragarriagoa da kontuan hartzen baditugu azken urteotan Nafarroako gizarteak bizi izan dituen aldaketa soziodemografikoak. Batetik, XXI. mendea hasi zenetik 2021 bitarte Nafarroak irabazi dituen biztanleak (86.222), neurri handi batean, immigrazioak ekarri ditu. Hortaz, biztanleria alofonia handitzeak euskaldunek gizartea osoarekiko duten pisu erlatiboa txikiagotu du.

Bestetik, Nafarroako gizartea gero eta zaharragoa da. Jaiotze-tasa oso txikia da; hortaz, gazteen multzoak, euskaldun gehien biltzen dituen multzoa izanik, gero eta pisu txikiagoa du gizarte osoarekiko.


Hizkuntza-eremuen bilakaerari so eginik, euskaldunen ehunekoa hiru eremuetan handitu da.

Eremu euskaldunean euskaldunek 2 puntu egin dute gora 1991tik 2021era (%60,3 ziren 1991n eta %62,3 dira 2021ean). Eremu mistoan hazkundera 7,4 puntukoa

izan da (%5,2 ziren 1991n eta %12,6 dira 2021ean). Ereku ez euskalduneari, puntu bat hazi da (%0,6 ziren 1991n eta %1,6 dira 2021ean).

Edonola ere, hizkuntza-eremuen arteko bilakaera aztertzean, hizkuntza-eremuen osaera (batik bat, mistoa eta ez euskalduna deiturikoena) nabarmen aldatu dela aintzat hartu behar da².

8. irudia. Euskaldunen bilakaera hizkuntza-eremuaren arabera. Nafarroa, 1991-2021 (%)



2.2. Hizkuntza-gaitasuna sexuaren eta adinaren arabera

Sexuari dagokionez, euskaldunen ehunekoan ez dago alderik, bai gizonezkoentzat, bai emakumezkoentzat, euskaldunen ehuneko bera da: %14,1. Euskaldun hartzaileen portzentajeetan, aldiz, aldea ikusten da: emakumezkoen %12,1 baita euskaldun hartzailea, eta gizonezkoen %9,1.

² 18/1986 Foru Legeak, abenduaren 15ekoak, Euskarari buruzkoak zedarritu zituen hizkuntza-eremuen osaera aldatu duten legeak bi izan dira: 2/2010 Foru Legea, otsailaren 23koa eta 9/2017 Foru Legea, ekainaren 27koa. 2010eko aldaketaren bidez, Aranguren, Belaskoain eta Galar udalerriak eremu mistoan sartu ziren; eta 2017ko moldaketak eremu mistoko udalerririk bat (Atetz) eremu euskalduneari sartzea ekarri zuen eta eremu ez euskalduneko 44 udalerririk —eremu horretako euskaldunen ehunekorik altuenetakoak zituztenak (horien artean Tafalla, Zangoza, Beriain eta Erriberri)— eremu mistora pasatzea.

Aintzat hartu beharrekoa da, oro har, euskara ikasten duten nafar helduen artean emakumezkoak gehiago direla.


5. taula. Euskaldunak sexuaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)

	Nafarroa	Gizona	Emakumea
Euskaldunak	14,1	14,1	14,1
Euskaldun hartzailleak	10,6	9,1	12,1

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskaldunen adinari erreparatuz gero, ikus daiteke euskaldunen ehunekorik handiena 35 urtetik beherakoen artean dagoela, 16-24 eta 25-34 adin-taldeetan.

9. irudia. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Hala ere, euskaldunen hazkundera 65 urte baino gutxiagoko adin talde guztietan gertatu da, baina nabarmenagoa da gazteen artean. Horrela, gaur egun 16 eta 24 urte bitarteko biztanleen ia heren bat euskalduna da (%28); 1991n, aldiz, hamarren bat zen (%10).

Hortaz, euskaldunen hazkundera gazteenetatik ari da zabaltzen. Multzorik erdaldunena 65 urtetik gorakoena da. Izan ere, urteak aurrera egin ahala, helduen multzoa euskaldunak irabazten ari da behetik eta erdaldunak galtzen goitik. Hau da, gazteak gero eta euskaldunagoak diren heinean, helduen multzoan ere haziz doa euskaldunen ehunekoa.

10. irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2021 (%)



Adinaren araberrako joera hori hiru hizkuntza-eremuetan gertatu da, nahiz eta bateko eta besteko ehunekoak oso bestelakoak izan.

Hizkuntza-eremuetako euskaldunen bilakaera adinaren arabera aztertzean, eremuen osaera nabarmen aldatu izanak alderagarritasuna hausten du.

Edonola ere, adinaren araberrako bilakaerari behatuz gero, eremu euskaldunean, 2021ean gazteen %85,9 da euskaldun; 1991n baino 29,2 puntu gehiago (1991n %56,7 zen). Eremu mistoan, 2021ean gazteen %28,9 da euskaldun; hiru hamarkada lehenago baino 21,8 puntu gehiago (1991n %7,1 zen); eta eremu ez euskaldunean 2021ean, gazteen %4,4 da, 1991tik 3,8 puntu igota (1991n %0,6 zen).

Eremu euskaldunean gazteen ezagutza 1991tik nabarmen handitu bada ere, 2016tik 2021era jaitsi egin da: %89,6 zen 2016an eta %85,9 da 2021ean. Eremu mistoan etengabeko igoera izan da, 2016tik 2021era ere: %27,3tik %28,9ra.

6. taula. Euskaldunak adinaren eta hizkuntza-eremuaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)

	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
Nafarroa	14,1	8,4	9,9	13,4	20,2	28,0
Eremu euskalduna	62,3	57,5	50,6	58,9	82,8	85,9
Eremu mistoa	12,6	4,1	8,0	11,9	20,2	28,9
Eremu ez euskalduna	1,6	0,4	1,1	1,8	2,3	4,4

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

2.3. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa: euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko

Euskaldunen gaitasun erlatiboa aztertuko da orain, hau da, euskaraz eta erdaraz (gaztelaniaz gehienetan) hitz egiteko erraztasuna.

Aurrerantzean erdara hitza erabiliko da euskara ez den beste edozein hizkuntza adierazteko.

Honako hauek dira euskaldunak gaitasun erlatiboaren arabera:


- **Euskal elebidunak:** erraztasun handiagoa dutenak euskaraz hitz egiteko erdaraz hitz egiteko baino.
- **Elebidun orekatuak:** bi hizkuntzetan erraztasun bera dutenak. Izan ere, euskaldun hauek adierazten dute euskaraz eta erdaraz, bietan, berdin hitz egiteko erraztasuna dutela.
- **Erdal elebidunak:** erraztasun handiagoa dutenak erdaraz hitz egiteko euskaraz hitz egiteko baino.

Nafarroan 16 urteko edo gehiagoko euskaldunen %20,4k erraztasun handiagoa du euskaraz egiteko erdaraz baino, hau da, euskal elebidunak dira.

Elebidun orekatuak, aldiz, erraztasun bera du euskaraz zein erdaraz egiteko eta euskaldunen %28 dira.

Azkenik, erdal elebidunak erraztasun handiagoa du erdaraz egiteko euskaraz baino, eta %51,6 dira.

11. irudia. Euskaldunak erraztasunaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)




Erdal elebidunena euskaldunen multzorik handiena da, azken hiru hamarkadatan etengabe haziz joan dena.

Hizkuntza-eremuaren arabera, eremu euskaldunean dago euskal elebidunen ehunekorik handiena (%41,1). Horren ondotik, eremu mistoan (%6,8), eta gero, eremu ez euskaldunean (%2).

Era berean, eremu euskaldunak du elebidun orekatuen ehunekorik handiena (%35,8). Eremu mistoak eta eremu ez euskaldunak, ostera, ehuneko nahiko antzekoa dute (%23 eta %20,9 hurrenez hurren).

Erdal elebidunen ehunekorik handiena eremu ez euskaldunak du. Izan ere, eremu ez euskalduneko euskaldunen %77,1 erdal elebiduna da, eremu mistoan %70,2, eta eremu euskaldunean %23,1.


12. irudia. Euskaldunen erraztasuna hizkuntza-eremuaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)



Euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko handixeagoa da gizonezkoen artean (%21,8) emakumezkoen artean baino (% 18,9).

Elebidun orekatuen eta erdal elebidunen kasuan ere aldeak txikiak dira, hau da, 0,5 eta 2,4 puntukoak, hurrenez hurren. Emakumezkoen %28,3 dira elebidun orekatuak eta gizonezkoen kasuan %27,8. Azkenik emakumezkoen %52,8 dira erdal elebidunak eta gizonezkoak %50,4.

13. irudia. Euskaldunen erraztasuna sexuaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)




Adinari dagokionez, euskal elebidunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoek dute (% 38), eta txikiena 16-24 urte bitartekoek (% 14,3).

Elebidun orekatuen ehunekorik handiena 35-49 urte bitartekoek taldean (% 35,3) eta 50-64 urte bitartekoenean dago (% 37,6).

Azkenik, erdal elebidunen ehunekoa handiagoa da adinak behera egin ahala. Horrela, 16-24 urte bitarteko hamar euskaldunetatik ia zazpi erdal elebiduna da (%68,3).


14. irudia. Euskaldunen erraztasuna adinaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)



Euskaldunen erraztasuna aldatu egin da 1991tik hona. Duela hogeita hamar urte, euskal elebidunen ehunekoa orain bi halakoa zen (%40,6 1991n versus %20,4 2021ean), eta erdal elebidunen ehunekoa franko txikiagoa (%32,8 1991n versus %51,6 2021ean).

Elebidun orekatuen ehunekoak, aldiz, apur bat gora egin du (%26,6 1991n versus %28 2021ean).

15. irudia. Euskaldunen erraztasunaren bilakaera. Nafarroa, 1991-2021 (%)



Adinaren arabera bilakaera aztertuz gero, ikus daiteke 1991n euskal elebidunen ehunekoak behera egiten zuela adinean behera egin ahala, nahiko nabarmen gainera gazteenen bi adin taldeetan. 2021ean, ordea, 25-34 urte bitartekoen ehunekoak euskal elebidunen beherako joera aldatu du, 35-49 adin taldearena baino altuagoa baita (2021ean % 17,7 35-49 adin taldean eta % 19,1 25-34 urte bitartekoan).

1991n elebidun orekatuen ehunekorik altuena 16-24 adin-taldean zegoen (% 39,5). 2021ean, berriz, 35-49 eta 50-64 adin-taldeen dute (% 35,3 eta % 37,6).

Azkenik, 1991n erdal elebidunen ehunekorik altuena 16-24 eta 25-34 urte bitartekoek zuten (% 40,1 eta % 40,2) eta orain ere berdin gertatzen da, hau da, 16-24 eta 25-34 urte bitartekoek dute ehunekorik altuena, baina ehunekoa askoz altuagoa da (% 68,3 eta % 57,4).

7. taula. Euskaldunen erraztasunaren bilakaera adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2021 (%)

1991	ADINA					
	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskaldunak	40.167	9.031	7.706	11.248	5.367	6.815
Euskaraz errazago	40,6	56,2	51,8	37,1	31,2	20,4
Euskaraz zein erdaraz berdin	26,6	19,3	22,9	26,3	28,7	39,5
Erdaraz errazago	32,8	24,5	25,2	36,6	40,2	40,1
2021	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskaldunak	76.784	10.556	13.167	20.195	14.137	18.728
Euskaraz errazago	20,4	38,0	20,3	17,7	19,1	14,3
Euskaraz zein erdaraz berdin	28,0	27,1	37,6	35,3	23,5	17,4
Erdaraz errazago	51,6	34,9	42,0	47,1	57,4	68,3

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.


3. HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA

3.1. Lehen hizkuntza Nafarroan, hiriburuan eta hizkuntza-eremuaren arabera

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren ahaideengandik etxean jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

Nafarroako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %6,1ek euskara soilik jaso du etxean eta %3k euskara eta erdara jaso ditu etxean. Era berean, hamarretik bederatzik (%90,9), erdara soilik jaso du etxean. Erdara diogunean, gaztelaniari buruz ari gara nagusiki, baina ez da ahaztu behar gero eta gehiago direla lehen hizkuntza gaztelania ez den hizkuntza bat edo bat baino gehiago dituztenak.

16. irudia. Lehen hizkuntza. Nafarroa, 2021 (%)



16 urte edo gehiagoko biztanleen artean lehen hizkuntza euskara hutsa dutenen ehunekoa duela 30 urte baino txikiagoa da: %8,1 zen 1991n eta %6,1 da 2021ean (2 puntuko jaitsiera), tartean gorabeherak izan direla (%8,3 1996an, %6,4 2006an, %6,1 2011n eta %6,2 2016an).

Lehen hizkuntza euskara eta erdara dutenen ehunekoa 0,9 puntu hazi da azken 30 urteotan: %2,1 zen 1991n eta %3 da 2021ean.

Lehen hizkuntza erdara dutenen ehunekoak 2 puntu irabazi ditu 1991tik eta 2021era (% 89,8 versus % 90,9).

Lehen hizkuntzaren bilakaeran, aintzat hartu behar da Nafarroan, 2000. urtetik aurrera, migrazioek ekarritako biztanleria. Izan ere, 2021ean Nafarroako biztanleriaren % 16,4 (108.522 pertsona) atzerrian jaio da. 2001ean atzerrian jaiotakoak 29.802 pertsona ziren.

8. taula. Lehen hizkuntzaren bilakaera. Nafarroa, 1991-2021


	1991	2021	1991 (%)	2021 (%)
Guztira	420.712	545.476	100,0	100,0
Euskara	34.051	33.156	8,1	6,1
Euskara eta erdara	9.026	16.318	2,1	3,0
Erdara	377.635	496.002	89,8	90,9

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Lehen hizkuntzan alde handiak daude Nafarroan hizkuntza-eremuaren eta adinaren arabera.


Lehen hizkuntza euskara dutenak nagusi dira eremu euskaldunean (% 45,6k euskara hutsa du ama hizkuntza, % 10ek euskara eta erdara eta % 44,4k erdara). Eremu mistoan eta eremu ez euskaldunean, aitzitik, lehen hizkuntza erdara dutenak dira gehiengo nagusia (% 93,3 eta % 99,4, hurrenez hurren).

17. irudia. Lehen hizkuntza hizkuntza-eremuaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)



Hiriburuan, Iruñean, eremu mistoan baino portzentaje altuxeagoan da euskara hutsa lehen hizkuntza (% 3,1). Lehen hizkuntza euskara eta erdara dutenak % 2,8 dira. Iruñeko biztanleen % 94,1ek erdara du lehen hizkuntza.


18. irudia. Lehen hizkuntza. Iruña, 2021 (%)



3.2. Lehen hizkuntza sexuaren eta adinaren arabera

Emakumezkoen eta gizonezkoen artean ez dago alde handirik lehen hizkuntza euskara, euskara eta erdara edo erdara jaso dutenen ehunekoetan.


19. irudia. Lehen hizkuntza sexuaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)



Adinari erreparatuz, aldiz, badago alderik. 65 urte edo gehiago dutenen artean dago lehen hizkuntza euskara hutsa jaso dutenen ehunekorik altuena (%7,6) eta horien ondotik 16-24 urte bitarteko gazteek dute euskara soilik jaso dutenen ehunekorik handiena (%6,5). Gainerako adin-talde guztietan ehunekoa txikiagoa da.

Lehen hizkuntza euskara dutenen ehuneko bertsua dute 25 eta 34 urte artekoek eta 50-64 urte bitartekoek (%5,7 eta %5,8). Ehunekorik apalena 35-49 urte bitartekoen taldean dago (%5,1).


20. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)



Duela 30 urte, adinaren arabera bestelakoa zen lehen hizkuntzaren egoera. Izan ere, 1991n lehen hizkuntza euskara soilik jaso zutenen ehunekorik handiena 65 urtetik gorakoek zuten (% 10,2), eta ehunekorik apalenak heldu gazteen eta gazteen artean zeuden (25-34 urte bitartekoen taldean % 5 eta 16-24 urte bitartekoenean % 6,8. Gaur egun, berriz, 65 urtetik gorakoek segitzen dute ehunekorik altuena izaten (% 7,6), baina haien ondotik 16-24 urte bitarteko gazteak daude (% 6,5).

Halaber, euskara eta gaztelania batera jaso zutenen ehunekoa txikiagoa zen oro har, gaur egun baino (% 2,1 versus % 3). Adinari erreparatuz eta alderaketa eginez, gazteen artean dago alderik handiena. Izan ere, duela 30 urte, 16-24 urte bitarteko gazteen % 1,5ek jaso zuen euskara eta erdara batera lehen hizkuntza gisa; gaur egun, aldiz, adin horretako gazteen % 5,2k jaso du, hau da, 3,7 puntuko aldea. 25-34 urte bitarteko heldu gazteen artean ere bi hizkuntzak jaso dituztenen ehunekoaren igoera bertsua gertatu da: 1991n % 0,4 eta 2021ean % 3,8 (3,4 puntuko aldea).

21. irudia. Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2021 (%)



3.3. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera


Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera sailkatuz gero, hiru multzotan banatzen dira:

- **Euskaldun zaharrak:** euskara soilik jaso dute gurasoengandik edo etxean bizi diren ahaideengandik hiru urte bete arte.

- **Jatorrizko elebidunak:** euskara eta erdara jaso dituzte gurasoengandik edo etxean bizi diren ahaideengandik hiru urte bete arte.
- **Euskaldun berriak:** ez dute euskararik jaso etxean gurasoengandik edo etxean bizi diren ahaideengandik. Etxetik kanpo ikasi dute euskara, eskolan edo euskaltegian.

Nafarroako euskaldunen %41 euskaldun zaharrak dira, euskaldunen %15,4 jatorrizko elebidunak eta %43,6 euskaldun berriak.


22. irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)



Lehen hizkuntzari dagokionez, euskaldunen multzoa asko aldatu da azken 30 urteotan. 1991n euskaldun gehienak (%76,6) euskaldun zaharrak ziren, hau da, etxean jaso zuten euskara. Orduetik pisua galduz joan dira (-35,6 puntu), eta 2021ean euskaldunen erdia baino franko gutxiago dira (%41).

Euskaldun berriak eta jatorrizko elebidunak, aldiz, berretu dira azken 30 urteotan: euskaldun berrien hazkundera 27,6 puntukoa izan da (1991n %16 eta 2021ean %43,6) eta jatorrizko elebidunak bikoiztu dira (%7,4 ziren 1991n eta 2021ean %15,4).

23. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. Nafarroa, 1991-2021 (%)



Hizkuntza-eremuaren arabera, aldeak handiak dira. Eremu euskaldunean euskaldun zaharrak nagusi dira alde handiz (% 70,9). Euskaldun berriak % 16 dira eremu euskaldunean, eta jatorrizko elebidunak % 13,9.

Eremu mistoan euskaldun berriak dira nagusi (% 61,9), horien ondotik, alde handiz, laurdenaren azpitik, euskaldun zaharrak (% 21,6) eta jatorrizko elebidunak (% 16,5) daude.

Azkenik, eremu ez euskaldunean ere, eremu mistoaren antzera, euskaldun berriak dira nagusi (% 64,5) eta ondotik, euskaldun zaharrak (% 22,7) eta jatorrizko elebidunak daude (% 12,8).

Hiriburuari dagokionez, Iruñean euskaldun berriak dira nagusi, hamarretik sei (% 66,4). Euskaldun zaharrak, hamarretik bi dira (% 20,1) eta jatorrizko elebidunak, hamarretik bi baino gutxiago (% 13,5).

9. taula. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta eremuaren arabera. Nafarroa, 2021

	Euskalduna	Mistoa	Ez euskalduna	Iruña
Euskaldunak	30.700	43.646	2.438	23.306
Euskaldun zaharrak	70,0	21,6	22,7	20,1
Jatorrizko elebidunak	13,9	16,5	12,8	13,5
Euskaldun berriak	16,0	61,9	64,5	66,4

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.


Adinari dagokionez, adinak behera egin ahala txikiagoa da euskaldun zaharren ehunekoa eta handiagoa euskaldun berriena eta jatorrizko elebidunena.

Euskaldun berrien hazkundea handia izan da adin-talde guztietan. 2021ean 16-24 urte eta 25-34 urte bitarteko euskaldunen erdia baino gehiago euskaldun berria da (% 58,1 eta % 56,7). 1991n, berriz, adin-tarte horietako euskaldunen % 25,5 eta % 30,2 ziren, hurrenez hurren, euskaldun berriak.

Aitzitik, 35 urtetik gorako adin talde guztietan euskaldunen erdia baino gutxiago dira euskaldun berriak, nahiz azken hiru hamarkadetan hiru adin-talde horietan euskaldun berrien ehunekoa nabarmen hazi: % 23,2tik % 44,3ra 35-49 urte bitartekoen taldean, % 4,8tik % 30,6ra 50-64 urte tartekoan eta % 0,8tik % 15,5era 64 urtetik gorakoen artean.

Euskaldun zaharrak nagusi ziren adin talde guztietan 1991n, eta 2021ean 49 urtetik gorakoen artean soilik. Jatorrizko elebidunak % 11ra ez ziren iristen ezein adin taldean eta 2021ean, aldiz, 64 urtetik gorakoen artean ez gainerako adin talde guztietan % 10etik 20 bitartean daude.

24. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2021 (%)



3.4. Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa


Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko inkestatu guztiei galdetu zaie zein hizkuntza jaso duten etxean, eta emaitzak gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera sailkatu dira.

Kontuan izan behar da inkestatuen artean 16 eta ia 100 urte bitarteko pertsonak daudela. Horren ondorioz, orain dela ia ehun urtetik hona gurasoek euskara nola transmititu duten jakin dezakegu.

Guraso biak euskaldunak izanik, seme-alaben %70ek euskara soilik jaso du etxean Nafarroan, % 11,4k euskara eta erdara eta % 18,6k ez du euskararik jaso.

Guraso biak euskaldunak izanik, euskararen transmisioa handiagoa da adinean behera egin ahala. Horrela, euskararen transmisiorik handiena 16-34 urte bitarteko inkestatuek dute. Adin horretako gazteen % 85,4k euskara soilik jaso du etxean eta % 10,9k euskara eta erdara. Azpimarratzekoa da euskara eta erdara jaso duten gazteen hazkundera.

Guraso biak euskaldunak izanik, euskararik transmititzen ez duten gurasoak gero eta gutxiago dira, eta gero eta gehiago euskara erdararekin batera jasotzen dutenak. Guraso biak euskaldunak izanda ere, euskara jaso ez duten 16-34 urte bitartekoak %3,7 dira 2021ean, eta 2016an, aldiz, %9,2 ziren.

25. irudia. Transmisioa guraso biak euskaldunak direnean, adinaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Gurasoetako bat denean euskalduna, seme-alaben %32,7k euskara jaso du (erdararekin batera) eta %67,3k erdara soilik. Kontuan hartu euskara soilik ez dela transmititzen, gurasoetako bat erdalduna delako.

Berebat, gurasoetako bat euskalduna denean, desberdintasun handiak daude euskararen transmisioan adinaren arabera. Adinean behera egin ahala, euskararen transmisioa gero eta handiagoa da.

Horrela, gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, 50 urtetik gorako seme-alaben %17,6 jaso du euskara etxean, 35 eta 49 urte bitartekoen %39,2k eta 16 eta 34 urte bitartekoen %48,1ek (betiere erdararekin batera).


26. irudia. Transmisioa gurasoetako bat bakarrik euskalduna denean, adinaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Gurasoetako batek euskaraz dakienean, desberdintasuna dago euskararen transmisioan, euskaraz dakiena aita ala ama izan. Ama euskalduna denean, seme-alaben % 41,1ek euskara jaso du etxean eta % 58,9k erdara soilik. Euskalduna aita denean, seme-alaben % 24,7k jaso du euskara eta % 75,3k erdara soilik.

27. irudia. Transmisioa ama ala aita soilik euskalduna denean. Nafarroa, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Adinean behera egin ahala, transmisioa handiagoa da, bai amaren kasuan, baita aitaren kasuan ere.


3-15 urte bitarteko seme-alabak dituzten familien hizkuntza-transmisioa

3-15 urteko haurrei eta gaztetxoei etxean zein hizkuntza transmititu zaien jakiteko, adin horretako seme-alabak dituzten inkestakuei galdetu zaie.

Gurasoak biak euskaldunak direnean, seme-alaben % 87,7k euskara soilik jaso du etxean, % 11,9k euskara eta erdara.

Guraso bakarra euskalduna denean, seme-alaben % 56,9k euskara eta erdara jaso ditu etxean eta % 43,1ek erdara soilik.

28. irudia. 3-15 urte bitarteko seme-alabei transmititutako hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)




Hizkuntzaren transmisioan, gurasoen hizkuntza-gaitasunaz gain, eragin handia du haien lehen hizkuntzak. Aldagai biak gurutzatuta, gurasoen euskara-ezagutzaren eta lehen hizkuntzaren araberrako azterketa egingo da jarraian.

Guraso biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza euskara denean, seme-alaben % 97k euskara soilik jaso du etxean eta % 3k euskara eta erdara.

Oso bestelako emaitza ematen du guraso bakarra euskalduna denean eta bere lehen hizkuntza erdara denean. Halakoetan, seme-alaben %38k euskara eta erdara jaso ditu eta %62k erdara baizik ez.

29. irudia. 3-15 urte bitarteko seme-alabei transmititutako hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren eta lehen hizkuntzaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)




3.5. Euskararen irabaziak eta galerak

Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izan duten gehienek euskara gorde dute eta euskaldunak dira gaur egun (%87,5).

Hala ere, badira lehen hizkuntza euskara izan arren, gaur egun euskaldunak ez diren 6.200 pertsona, euskara guztiz edo partez galdu dutenak. Euskara soilik edo euskara eta erdara jaso dutenen %12,5 dira. 50 urtetik gorakoak dira gehienak, eta eremu mistoan bizi direnak.

Aldi berean, lehen hizkuntza erdara izan arren, euskara ikasi eta gaur egun euskaldun diren 33.500 pertsona daude, hau da, euskaldunen %43,6. Gehienak eremu mistoan bizi dira.

Irabaziei dagokienez, alde handiak daude adinaren arabera. Euskara irabazi dutenen ehunekoa oso txikia da 65 urtetik gorakoen artean. 50 urtetik beherakoen artean, ordea, irabaziak gero eta handiagoak dira, eta gazteen artean oso handiak dira.

30. irudia. Euskararen irabaziak eta galerak adinaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)


4. EUSKARAREN ERABILERA

4.1. Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak: korrelazioak

Euskararen erabilerari buruzko datuak eman aurretik, erabileran gehien eragiten duten faktoreak aztertuko dira. Horretarako, korrelazioen analisia egin da. Korrelazioen analisiaren bidez, aztertu nahi den aldagaian (erabileran) zer beste aldagaik eta zein neurritan eragiten duen aztertzen da.

Hiru erabilera-eremuren arabera korrelazioak egin dira: etxeko erabilera, lagunartekoa eta lankideen artekoa. Guztietan, hurrenkera zerbait aldatu arren, bi dira erabileran gehien eragiten duten faktoreak: harreman-sareko euskaldunen dentsitatea (zenbatek dakien euskara etxean, lagunartean edo lankideen artean, eta gune soziolinguistikoa) eta erraztasuna (lehen hizkuntzarekin lotura zuzena duena).

Nafarroan, etxeko erabileran gehien eragiten duen faktorea euskaraz egiteko erraztasuna da (0,730), eta oso antzeko balioa du etxeko euskaldunen dentsitateak da, hau da, zenbatek dakien euskaraz etxean (0,722). Ondoren, gune soziolinguistikoa dago (0,568). Azken aldagaiak, lehen hizkuntzak, lotura handia du erraztasunarekin, eta eragin handia du etxeko erabileran (0,563).

10. taula. Korrelazioak: euskararen erabilera etxean. Nafarroa, 2021

	Erraztasuna euskaraz	Euskaldunen proportzioa etxean	Gune soziolinguistikoa	Lehen hizkuntza
Etxean hitz egiten den hizkuntza	0,730	0,722	0,568	0,563

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Lagunarteko erabileran ere gehien eragiten duen faktorea erraztasuna da (0,648). Bigarren faktorea gune soziolinguistikoa da (0,623). Ondoren, harreman-sarea, hau da, lagunetatik zenbatek dakien euskaraz pisu handia du (0,555) eta lehen hizkuntza daude (0,465).

11. taula. Korrelazioak: euskararen erabilera lagunekin. Nafarroa, 2021

	Erraztasuna euskaraz	Gune Soziolinguistikoa	Euskaldunen proportzioa lagun artean	Lehen hizkuntza
Lagunekin hitz egiten den hizkuntza	0,648	0,623	0,555	0,465

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Lankideen arteko erabileran euskaldunen dentsitateak eragiten du gehien (0,897), hau da, lankideetatik zenbatek dakien euskaraz. Bigarren faktorea erraztasuna da (0,410). Ondoren daude gune soziolinguistikoa (0,275) eta lehen hizkuntza (0,231).

12. taula. Korrelazioak: euskararen erabilera lankideekin. Nafarroa, 2021

	Euskaldunen proportzioa lankideen artean	Erraztasuna euskaraz	Gune soziolinguistikoa	Lehen hizkuntza
Lankideekin hitz egiten den hizkuntza	0,897	0,410	0,275	0,231

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Hortaz, Inkesta Soziolinguistikoaren datuak erabiliz egindako korrelazioen analisiaren arabera, euskaraz egiteko erraztasuna eta harreman-sarea dira euskararen erabileran gehien eragiten duten faktoreak. Kontuan hartu behar da erraztasunaren eta lehen hizkuntzaren artean korrelazio handia dagoela, eta harreman-sarearen era gune soziolinguistikoaren artean ere bai.

Faktore horiek, baina, ez dute euskararen erabilera erabat bermatzen. Beste aldagai batzuek ere eragiten dute euskararen erabileran: euskararekiko jarrerak eta interesak.


Orain arte ikusitakoaren arabera, harreman-sareari dagokionez, euskaldunen bi heren lehenengo gune soziolinguistikoan bizi dira (%66). Euskaldun horientzat euskaldunekin hartu-emanak izateko sarea oso mugatua da. Euskaraz egiteko

erraztasunari dagokionez, gaur egun euskaldunen %51,6k erraztasun handiagoa du erdaraz hitz egiteko euskaraz baino; 25 urtetik beherakoen artean %68,3k.

4.2. Euskararen erabilera Nafarroan, hiriburuan eta hizkuntza-eremuaren eta gune soziolinguistikoaren arabera

16 urte edo gehiagoko biztanleen %6,8k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du Nafarroan, %5,5ek euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, %3,4k oso gutxitan erabiltzen du euskara eta gainerako guztiek (%84,4) erdara erabiltzen dute.

31. irudia. Euskararen erabilerearen tipologia. Nafarroa, 2021 (%)



Euskararen erabilera zein den neurtzeko, tipologia bat definitu da. Tipologia hori eratzeko kontuan hartu diren erabilera-eremuak honakoak dira:

- etxeko erabilera
- lagunarteko erabilera
- erabilera formala (dendak eta bankuak batetik, eta osasun-zerbitzuak eta udal zerbitzuak bestetik)

Erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude hizkuntza-eremu batetik bestera. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak %51,4 dira eremu euskaldunean, %3,1 eremu mistoan eta %0,2 eremu ez euskaldunean. Eremuen

arteko alde horiek ulertzeko, kontuan hartu behar euskararen erabilera eragiten duten bi faktore nagusietan (ezagutza edo harreman-sarea eta erraztasuna) dauden alde-handiak:

- Euskaldunak %62,3 dira eremu euskaldunean, %12,6 mistoan eta %1,6 ez euskaldunean.
- Eremu euskaldunean, euskaldunen %41,1ek erraztasun handiago du euskaraz hitz egiteko erdaraz baino. Eremu mistoan, ordea, euskaldunen %6,8k soilik du erraztasun handiagoa euskaraz egiteko erdaraz baino, eta eremu ez euskaldunean %2k.

Iruñean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak %3,2 dira.

13. taula. Euskararen erabilera hiriburuan eta hizkuntza-eremuaren arabera. Nafarroa 2021 (%)

	Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez euskalduna	Iruña
Euskaraz erdaraz baino gehiago	40,0	0,5	—	0,6
Euskaraz erdaraz beste	11,4	2,6	0,2	2,6
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	11,1	6,8	0,5	7,4
Oso gutxi euskaraz	3,5	4,2	1,5	4,3
Beti erdaraz	34,0	85,8	97,7	85,0

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Hizkuntza-eremuen artean dauden alde horiek oso nabarmenak dira gune soziolinguistikoen artean ere.

Lau gune soziolinguistikoko zehaztu dira bertan bizi diren euskaldunen ehunekoaren arabera:

- Lehenengo gune soziolinguistikoa %31 edo gutxiago dira bertan bizi diren euskaldunak.
- Bigarren gune soziolinguistikoa %31 baino gehiago eta %50 baino gutxiago dira bertan bizi diren euskaldunak.
- Hirugarren gunean %50 baino gehiago eta %80 baino gutxiago dira bertan bizi diren euskaldunak.
- Laugarren gunean, azkenik, %80 edo gehiago dira bertan bizi diren euskaldunak.

Euskararen erabilera %2,6koa da lehenengo gune soziolinguistikoan, %55,2koa hirugarrenean eta %81,9koa laugarrenean.

14. taula. Euskararen erabilera gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)


	Lehenengo gunea	Hirugarren gunea	Laugarren gunea
Euskaraz erdaraz baino gehiago	0,5	39,2	71,1
Euskaraz erdaraz beste	2,1	16,0	10,8
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	5,3	12,4	5,8
Oso gutxi euskaraz	3,4	5,7	1,2
Beti erdaraz	88,7	26,7	11,0

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Azken 30 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilera trinkoak (euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak 0,9 puntu egin du gora Nafarroan (%5,9 versus %6,8). Hau da, gaur egun 1991n baino 11.400 pertsona gehiagok erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago Nafarroan.

Euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenen ehunekoak ere gora egin du 1991 eta 2021 bitartean (2,3 puntu): %3,2 ziren duela 30 urte eta %5,5 dira gaur egun (35.300 pertsona gehiago).

32. irudia. Euskararen erabileraren bilakaera. Nafarroa, 1991-2021 (%)




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

1991 eta 2021 bitartean euskararen erabilerak 4,2 puntu egin du gora eremu euskaldunean eta 1,7 puntu eremu mistoan.

Iruñean euskararen erabilerak 1,6 puntu egin du gora.

Edonola ere, hizkuntza-eremuen arteko bilakaera aztertzean, hizkuntza-eremuen osaera (batik bat, mistoa eta ez euskalduna deiturikoa) nabarmen aldatu dela aintzat hartu behar da.

33. irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera hizkuntza-eremuaren arabera. Nafarroa, 1991-2021 (%)



4.3. Euskararen erabilera sexuaren eta adinaren arabera

Sexuari dagokionez, euskararen erabilera oro har ez dago alde esanguratsurik emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa %6,4 da emakumezkoen artean eta %7 gizonezkoen artean. Azken 30 urteotan, euskara beste edo gehiago erabiltzen duten emakumezkoen eta gizonezkoen portzentajeen arteko aldea txikia izan da, baina ehunekoa zertxobait handiagoa izan da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino.


15. taula. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera sexuaren arabera. Nafarroa, 1991-2021 (%)

	1991	2001	2011	2021
Gizonezkoak	7,0	6,6	5,8	7,0
Emakumezkoak	5,0	5,2	5,3	6,4
Guztira	6,0	5,9	5,5	6,7

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskararen erabilera adinaren arabera aztertuz gero, gazteen artean dago euskara erabiltzen dutenen ehunekorik handiena. Izan ere, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen %8,7k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du. Ehunekorik txikienak, aldiz, 50 eta 64 urte bitartekoen artean (%5,3) eta 65 urtetik gorakoen artean (%5,8) dago. 50 urtetik behera, adinak behera egin ahala gero eta handiagoa da euskara erabiltzen dutenen ehunekoa. Alderantziz gertatzen zen duela 30 urte.

34. irudia. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Beti erdara erabiltzen dutenek nagusi izaten jarraitzen dute adin-talde guztietan (4 herritarretik 3 baino gehiago).

Adinaren araberrako erabileran alde handia dago hizkuntza-eremuen artean. Ere mu ez euskaldunean euskararen erabilera %1 baino txikiagoa da adin-talde guztietan. Ere mu mistoan, 50 urtetik beherakoeren artean dago ehunekorik handiena (%4 inguru). Ere mu euskaldunean, 65 urtetik gorako herritaren erdiak

erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago, eta erabilerarik handiena 35 urtetik beherakoen artean dago (hiru herritarretik bik erabiltzen dute euskara erdara beste edo gehiago).

16. taula. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak eremuaren eta adinaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)

	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
Nafarroa	6,7	5,8	5,3	7,4	7,7	8,7
Eremu euskalduna	51,4	50,2	40,5	49,3	67,7	66,5
Eremu mistoa	3,1	1,3	2,2	4,5	3,8	4,4
Eremu ez euskalduna	0,2	—	0,6	0,4	—	—

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.


4.4. Euskararen erabilera hainbat eremutan: etxean, lagunen artean, eremu formalean

Euskararen erabilera etxean

Nafarroan 16 urte edo gehiagoko biztanleen %6,4k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du etxean, %3,9k euskara erdara baino gutxiago, eta gainerako %89,7k erdara.

Etxeko kideen arteko erabileran alde esanguratsuak daude. Euskararen erabilerarik handiena seme-alabekin egiten da (%8,6) eta erabilerarik txikiena bikotekidearekin (%5,2). Anaia-arreben arteko erabilera %7,5koa da, aitarekin %6,4koa eta amarekin %6,2koa.

35. irudia. Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak. Nafarroa, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Azken 30 urteotan, euskararen erabilerak etxean gorabehera txikiak izan ditu. 1991 eta 2011 bitartean behera egin du etxeako erabilerak (- 1,3 puntu), baina azken hamar urteotan joera aldatu da, eta etxeako erabilerak puntu bat egin du gora.

2011 eta 2021 bitartean izan den hazkundera etxeako kide guztiekin gertatu da: seme-alabekin 0,6 puntu, anaia-arrebekin 0,5 puntu, amarekin 1,2 puntu, aitarekin 1,7 puntu eta bikotekidearekin puntu bat.

17. taula. Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Nafarroa, 1991-2021 (%)

	1991	2001	2011	2021
Etxean denak elkarrekin daudenean	6,7	6,3	5,4	6,4
Bikotekidearekin	5,0	4,6	4,2	5,2
Seme-alabekin	6,5	6,8	8,0	8,6
Amarekin	6,5	6,2	5,0	6,2
Aitarekin	6,2	6,1	4,7	6,4
Anaia-arrebekin	6,2	7,2	7,0	7,5

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskararen erabilera lagunartean

Nafarroan 16 urte edo gehiagoko biztanleen %8,2k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du lagunekin, %5,6k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, eta gainerako %86,2k erdara.

Azken 30 urteotan, puntu bat egin du gora lagunekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak. Hazkunde hori 2011 eta 2021 bitartean gertatu da.

18. taula. Lagunekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Nafarroa, 1991-2021 (%)

	1991	2001	2011	2021
Lagunekin	7,2	7,5	7,2	8,2

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskararen erabilera eremu formalean

Atal honetan hiru erabilera-eremu aztertuko dira: erabilera lankideekin, erabilera eremu pribatuan (dendariekin eta bankukoekin) eta erabilera eremu publikoan (osasun-zerbitzukoekin eta udal zerbitzukoekin).


2021ean, lankideekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak %8,5 dira Nafarroan. Euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago %4,1 dira, eta erdaraz mintzatzen direnak %87,3.

Lankideekin emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago erabiltzen dute euskara (0,9 puntu gainera dago emakumezkoen erabilera).

Eremu pribatuan, dendariekin %6,5ek erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago, eta bankukoekin %6,1ek. Bi erabilera-eremu horietan euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago %4,7 eta %2,1 dira, hurrenez hurren.

Eremu publikoari dagokionez, osasun-zerbitzukoekin %6k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago, eta udal zerbitzukoekin %8,8k.

36. irudia. Eremu formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak. Nafarroa, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Azken 30 urteotan 3,2 puntu egin du gora lankideekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajeak, 1,8 puntu dendariekin eta 2,1 puntu bankukoekin. Eremu publikoan, hazkundera 3,3 puntukoa izan da osasun-zerbitzukoekin eta 4,6 puntu udal zerbitzukoekin.

19. taula. Eremu formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Nafarroa, 1991-2021 (%)

	1991	2001	2011	2021
Lankideekin	5,3	5,4	7,1	8,5
Dendariekin	4,7	5,0	5,1	6,5
Bankukoekin	4,0	5,6	5,3	6,1
Osasun-zerbitzukoekin	2,7	4,7	4,8	6,0
Udal zerbitzukoekin	4,2	6,7	6,3	8,8

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

4.5. Euskararen erabilera sare sozialetan

Interneteko sare sozialetan gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania da, baita gazteen artean ere. Hala ere, erabiltzaileen %6,2k maiztasun handiz erabiltzen du euskara, hau da, euskara erabiltzen du erdara beste edo gehiago. Euskararen erabilerarik handiena 16-24 urte bitarteko gazteek dute (%9)

Gaztelaniaz eta euskaraz gain, erabiltzaileek beste hizkuntza batzuetan ere dihardute Interneten, nagusiki ingelesez (%5).

5. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA

5.1. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera Nafarroan, hiriburuan eta hizkuntza-eremuaren arabera


Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, lau iritziren araberako tipologia eratu da.

Honako hauek dira tipologia osatzeko aintzat hartu diren iritziak:

- Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa da
- Hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino (ados ez daudenak dira euskara sustatzearen aldekoak)
- Haur guztiek euskara ikasi beharko lukete
- Irrati/telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz

Nafarroako 16 urte edo gehiagoko biztanleen %30 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, %33 ez alde ez aurka eta %37 aurka.

37. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera. Nafarroa, 2021 (%)




Nafarroan euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak 8,4 puntuko igoera izan du orain dela hogeita hamar urteko datuarekin alderatuz (%21,6 zen 1991n); baina orain dela 5 urteko datuarekin alderatuz, jaitsi egin da aldeko jarrera. Izan

ere, 2016an biztanleriaren % 33,3 zegoen euskararen erabilera sustatzearen alde, hots, 2021ean baino 3,3 puntu gehiago.

Ez alde ez aurka ez daudenen ehunekoak gora egin du, bai orain dela hogeita hamar urte eginiko inkestarekin alderatuz (% 26,6 zen 1991n eta % 33 da 2021ean) eta baita 2016koarekin alderatuz ere (% 27,6 zen 2016an).

Azkenik, jaitsi egin da euskararen erabilera sustatzearen aurka daudenen ehunekoa 1991ko inkestarekin alderatuz; ia 15 puntu egin du behera. Duela bost urte, hau da, 2016an eginiko inkestarekin alderatuz ere jaitsi egin da, 2,1 puntu handiagoa baitzen aurkako jarrera (% 39,1).


38. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera. Nafarroa, 1991-2021 (%)



Hizkuntza-eremuak kontuan hartuz, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera askoz handiagoa da eremu euskaldunean (% 68,6) eremu mistoan (% 30,4) eta eremu ez euskaldunean baino (% 16,4).

Euskararen erabilera sustatzearen aurkako jarreraren are handiagoak dira aldeak hizkuntza-eremuaren arabera: % 5,1 eremu euskaldunean, % 34,2 eremu mistoan eta % 54,3 eremu ez euskaldunean.

39. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza-eremuaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)



Iruñean, %31,1ek adierazi du euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera, eta %35,5ek aurkakoa.

20. taula. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera. Iruña, 2021 (%)


	Iruña
Alde	31,1
Ez alde ez aurka	33,4
Aurka	35,5

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Jarreraren tipologia osatzeko erabilitako iritzien erantzunak honakoak dira:

- Administrazioan sartzeko euskara jakin behar dela uste du Nafarroako biztanleen % 38,7k, % 11,1 ez dago ez alde ez aurka. Bestalde, % 49,6 dira iritzi horren aurka daudenak eta beste % 0,5ek ez du erantzun.
- Hobe dela jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino uste du % 46,4k (euskararen erabilera sustatzearen kontra), eta beste % 20,5 ez dago ez alde ez aurka. Azkenik, % 32,2 dira iritzi horren aurka daudenak (euskararen erabilera sustatzearen alde). Beste % 0,9ek ez du erantzun.
- Haur guztiek euskara ikasi beharko luketela uste du % 40,5ek, % 18,7 ez dago ez alde ez aurka, % 40,4 aurka dago, eta % 0,4k ez du erantzun.
- Azkenik, irrati eta telebistek programa gehiago beharko luketela euskaraz uste du % 39,9k, % 19,9 ez dago ez alde ez aurka, % 36,9 aurka dago, eta % 3,3k ez du erantzun.


40. irudia. Jarreraren tipologia osatzeko aintzat hartu diren lau iritziak. Nafarroa, 2021 (%)



5.2. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza-gaitasunaren, sexuaren eta adinaren arabera

Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde azaltzen da euskaldunen % 75,4, euskaldun hartzaileen % 51,7 eta erdaldunen % 18,5.

41. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza-gaitasunaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)



Sexuari erreparatuz, badago aldea emakumezkoen eta gizonezkoen artean euskara sustatzeari buruzko jarreran. Emakumezkoen % 31,3 eta gizonezkoen % 28,6 dira euskararen erabilera sustatzearen aldekoak, hau da, 2,7 puntuko aldea. Gauza bera gertatzen da ez alde ez aurka dauden emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Kasu honetan 2,5 puntukoko aldea dago, % 31,7 emakumezkoak eta % 34,3 gizonezkoak.

Azkenik, ez dago ia alderik aurkako jarreran, % 36,9 emakumezkoak eta % 37,1 gizonezkoak.

21. taula. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera sexuaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)


	Alde	Ez alde ez aurka	Aurka
Guztira	30,0	33,0	37,0
Emakumezkoak	31,3	31,7	36,9
Gizonezkoak	28,6	34,3	37,1

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Adinari dagokionez, euskararen erabilera sustatzearen aldekoenak 35-49 urte bitartekoak dira (%34,0). Euskararen erabilera sustatzearen aldeko ehuneko txikiena, aldiz, gazteenek eta zaharrenek dute. Izan ere, 16-24 urte bitartekoek %27,2 eta 65 urte edo gehiagoko %27,8 daude euskararen erabilera sustatzearen alde.

Euskararen erabilera sustatzearen aurkako ehunekorik handiena 16-24 urte bitarteko gazteek dute (%39,2).

42. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera adinaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

5.3. Euskarari buruzko interesa eta beste zenbait iritzi

Euskararen interesari buruz galdetuta, Nafarroako biztanleriaren %37k interes handia edo nahiko handia du euskararekiko, %16,3k zertxobait, %45,3k interes txikia edo bat ere ez, eta, azkenik, %1,4k ez du erantzun.


43. irudia. Euskarari buruzko interesa. Nafarroa, 2021 (%)



Euskarari buruzko bestelako iritzi batzuekin jarraituz, inkestatuei galdetu zaie ea zerbitzu publikoetan euskarari tokia egin behar zaion Nafarroa osoan. Nafar gehienak iritzi horren aldekoak dira (%69,1), nafarren %18,9k kontrako iritzia dute, %11,8 ez daude ez alde ez kontra eta %0,6k ez daki edo ez du erantzun.

Eremu euskaldunean nagusi-nagusia da iritzi horren aldekoitasuna (%90,5), eremu mistoan ere handia da iritzi horren alde daudenen ehunekoa (%72,9). Azkenik, eremu ez euskaldunean iritzi horren alde daudenak kontra daudenak baino gehiago dira (%52,9 alde eta %31,3 aurka).

44. irudia. Zerbitzu publikoetan euskarari tokia egin behar zaio Nafarroa osoan? iritzia hizkuntza-eremuaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Beste iritzi batekin jarraituz, Nafarroako 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 33,2k seme-alabarik izanez gero, D ereduan ikas dezaten nahi luke, % 14,7k B ereduan, % 19,2k A ereduan, eta 30,2k G ereduan, hau da, guztia erdaraz. Beste % 2,7k ez daki edo ez du erantzun.

Duela hamabost urte, hau da, 2006an, txikiagoa zen D ereduaren aldeko hautua (% 30,6) eta handiagoa, aldiz, B ereduaren aldekoa (% 22,8). Era berean, 2006an A ereduaren aldeko hautua zertxobait txikiagoa zen (% 17). G ereduaren aldeko hautua, aldiz, txikiagoa zen (% 24,1).

45. irudia. Seme-alabarik izanez gero, zein hizkuntzatan nahiko zenuke haiek ikastea? Nafarroa, 1996-2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Bestalde, 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 84,9k etorkizunean euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin beharko litzatekeela uste du, % 11,2k gaztelaniaz soilik eta % 1,8k euskaraz soilik.


Era berean, euskaldunei galdetu zaie ea inoiz diskriminatuta sentitu diren euskara erabiltzeko aukera ez izateagatik, eta % 44k erantzun du diskriminatua sentitu dela.

Nafarroako Gobernua euskara sustatzeko egiten ari den lanaren balorazioari dagokionez, % 32,8k dio egokia dela, eta % 34,5k desegokia. Horrezaz gain, % 1,3k dio berdin zaiola eta % 31,4k ez daki edo ez du erantzun.

Zergatia galdeturik, % 28,9k dio balorazioa egokia dela asko edo nahikoa egin delako. Lana desegokia dela uste dutenen artean, % 12,8k dio gehiegi egin dela eta % 19,7k gutxiegi egin dela. % 38,7k ez daki edo ez du erantzun.

Eremu euskaldunean % 29,3k uste du Nafarroako Gobernuaren lana egokia dela, eta % 41,8k desegokia dela. Eremu mistoan % 34k uste du Nafarroako Gobernuaren lana egokia dela, eta % 34,3k desegokia dela. Azkenik, eremu ez euskaldunean, % 31k uste du Nafarroako Gobernuaren lana egokia dela eta % 32,3k desegokia.

46. irudia. Nafarroako Gobernua euskararen arloan egiten ari den lanari buruzko balorazioa hizkuntza-eremuaren arabera. Nafarroa, 2021 (%)




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskarari buruzko beste iritzi batzuez ere galdetu zaie inkestatuei. Laburbilduz, emaitzak honakoak dira:

- Euskara beharrezkoa da jendearekin komunikatzeko iritziari buruz, %25,6 alde dago eta %64,3 aurka.
- Nafarroako 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean, %23,1 da euskarak gaztelaniak duen garrantzia izango duela uste duena eta %56,7 kontrakoa uste duena, hau da, euskarak ez duela sekula izango gaztelaniak duen garrantzia.
- Nafarroako euskaldunen %64,7k nahiago du euskaraz egiten duten dendetara joan eta %26,4ri berdina zaio.
- Euskaldunek ezezagunei lehen hitza euskaraz egiteari dagokionez, Nafarroako biztanleen %39,8 ados dago, eta %38,7 aurka.
- Nahiz eta solaskide guztiek euskaraz ez jakin, euskaldunok beti euskaraz aitzeari buruzko iritziaren aurka daude herritar gehienak (%85,6).

47. irudia. Euskarari buruzko beste zenbait iritzi. Nafarroa, 2021 (%)



- Azkenik, euskara galtzeko arriskuan dago Nafarroako biztanleen ia laurdenaren ustez (%23,3). Euskaldunak bakarrik kontuan hartuz, ordea, ehunekoa askoz handiagoa da, erdiak baino gehiagok uste baitu euskara galtzeko arriskuan dagoela (%53,3).

6. LABURBILDUZ

- Nafarroan 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 14,1 euskalduna da, % 10,6 euskaldun hartzailea eta % 75,3 erdalduna.
- 1991n baino 36.600 euskaldun gehiago daude gaur egun; euskaldunen ehunekoak 4,6 puntu hazi da azken 30 urteotan (% 9,5 versus % 14,1).
- Euskaldunen ehunekorik handiena 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean dago: 16 eta 24 urte bitartekoen % 28 euskalduna da; 1991n % 10 zen.
- Ez dago alderik emakumezkoen eta gizonezko euskaldunen ehunekoan (% 14,1). Euskaldun hartzaileen kasuan, baina, aldea 3 puntukoa da (% 12,1 emakumezkoak eta % 9,1 gizonezkoak).
- Euskaldunen kopuruaren hazkundearekin batera, euskaldunen ezaugarriak aldatu egin dira. Aldaketa nagusiak aniztasunarekin du zerikusia: euskaldunen komunitatea gero eta askotarikoagoa da. Euskaldunen artean, euskal gizartean oro har gertatzen ari den bezala, errealitate asko dago, lurraldeari, guneko soziolinguistikoari, jatorriari, adinari edo sexuari begiratzen badiogu.
- Aldaketa horietako batzuek Nafarroako gizarte osoan gertatzen ari diren aldaketa soziodemografikoekin dute zerikusia:
 - Euskal gizartea gero eta zaharragoa da: bizi-itxaropena gero eta handiagoa da eta jaiotza-tasa gero eta txikiagoa.
 - Atzerrian jaiotako gero eta jende gehiago bizi da Nafarroan, eta oso biztanleria gaztea da; erdia baino gehiago 40 urtez azpikoa da (% 53,8).
 - Biztanleriaren mugikortasuna areagotu egin da.
 - Globalizazioaren eragina gero eta handiagoa da.
- Euskaldunei dagokienez, Nafarroako euskaldunen bi heren guneko soziolinguistiko erdaldunengan bizi da (% 66). Beraz, euskaldun askok euskaldunekin hartu-emanak izateko duen sarea oso mugatua da.
- Gaur egun euskaldunen erdiak baino gehiagok (% 51,6) erraztasun handiagoa du erdaraz hitz egiteko (1991n % 32,8 zen), eta gazteen artean hirutik bi baino gehiago dira erdaraz hobeto moldatzen direnak (% 68,3).
- Euskara erabiltzeko erraztasunak lotura handia du lehen hizkuntzarekin. Euskaldunen lehen hizkuntza asko aldatu da azken 30 urteotan.

2021ean euskaldunen %41ek euskara du lehen hizkuntza; 1991n, aldiz, %76,6k zuen euskara lehen hizkuntza. Jatorrizko elebidunak duela 30 urte baino bi aldiz gehiago dira gaur egun, eta euskaldun berriak ia hiru aldiz gehiago.

- Familia bidezko transmisioari dagokionez, euskararen transmisioak gora egin du bai bikote euskaldunetan baita bikote mistoetan ere:
 - Guraso biak euskaldunak direnean %81ekoa da euskararen transmisioa, eta %100ekoa guraso biak euskaldunak izateaz gain, lehen hizkuntza euskara dutenetan.
 - Bikote mistoetan euskararen transmisioa (beti erdararekin batera) %33koa da, eta guraso euskaldunaren lehen hizkuntza euskara denean %56,9koa.
 - Bikote mistoetan, euskararen transmisioa handiagoa da euskalduna ama denean (%41) euskalduna aita denean baino (%25).
- Nafarroan, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %6,8k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du, %5,5ek euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, %3,4k oso gutxitan erabiltzen du euskara eta %84,4k beti erdara erabiltzen du.
- Azken 30 urteotan, euskararen erabilera trinkoak, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak 0,9 puntu egin du gora Nafarroan (%5,9 versus %6,8). Gaur egun, 1991n baino 11.400 pertsona gehiagok erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago Nafarroan. Igoera hori eremu euskaldunean, mistoan eta Iruñean gertatu da.
- Gazteen artean dago euskara erabiltzen dutenen ehunekorik handiena (%8,7).
- Azken 30 urteotan euskararen erabilera gora egin du erabilera-eremu guztietan, etxean izan ezik. Hala ere, 2011tik aurrera, euskararen erabilera etxean gorantz hasi da eta puntu 1 egin du gora.
- Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak 8,4 puntuko hazkundea izan du 1991 eta 2021 artean (%21,6 versus %30).
- Aldekotasun handiena izan duten iritziak bi izan dira: %40,5ek uste du haur guztiek euskara ikasi beharko luketela; eta %39,9k, irrati eta telebistek euskarazko programa gehiago eskaini beharko lituzketela.



I P A R R A L D E A

VII. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA

1. BIZTANLERIA

Iparraldean 312.754 pertsona bizi dira 2021ean. Iparraldeko 2001eko eta 2021eko biztanleria alderatzen baditugu, ikus daiteke 46.496 pertsona gehiago direla termino absolutuetan.

Hogei urte horietan zehar, biztanleriaren bilakaera ez da berdina izan lurralde guztietan.

Lurraldeari begiratuz, Lapurdin eta Nafarroa Beherean biztanleriak gora egin du aldi guztietan, Lapurdin nagusiki. Zuberoan, aldiz, biztanleriak behera egin du aldi guztietan. Nahiz eta Zuberoan biztanleen kopuruak jaitsiera izan, gainerako lurraldeetako biztanleen hazkundeari esker, Iparraldeko biztanleen kopuruak gora egin du aldi guztietan, azken hamar urteotan bereziki.

1. taula. Biztanleriaren bilakaera lurraldearen arabera. Iparraldea, 2001-2021

	2001	2006	2011	2016	2021
Iparraldea	266.258	274.875	285.272	299.129	312.754
Lapurdi	222.097	230.065	239.635	252.492	266.237
Nafarroa Beherea	28.659	29.403	30.357	31.639	31.867
Zuberoa	15.502	15.407	15.280	14.998	14.650

Iturria: EAS.

Bilakaera horren eragileak izan dira, batetik, saldo naturala (jaiotzen eta heriotzen kopuruen arteko aldea) eta, bestetik, migrazio saldoak (immigrazioen eta emigrazioen kopuruen arteko aldea).

Bertako biztanleen ezaugarri nagusiak honakoak dira:

- Gero eta gizarte zaharragoa: bizi-itxaropena gero eta handiagoa da eta jaiotza-tasa gero eta txikiagoa (8,7 jaiotza 1.000 biztanleko 2021ean). Zuberoan are txikiagoa da jaiotze-tasa (7,8 jaiotza 1.000 biztanleko).

Heriotza-tasa, aldiz, oso altua da Iparraldean (11,7 heriotza 1.000 biztanleko), baina, batez ere, Nafarroa Beherean eta Zuberoan (14,1 heriotza 1.000 biztanleko).


- Frantziako beste departamentu batzuetatik, Hego Euskal Herritik edo beste estatu batzuetatik etorritako biztanleen hazkundera, batez ere, Lapurdiko kostaldean.

Horrela, 2020ko datuei erreparatuz, 65 urte edo gehiagoko biztanleriaren ehunekoak ia 4 puntutik gorako hazkundera izan du 2001etik 2020ra. %20,6 zen 2001ean eta %24,4koa, aldiz, 2020an.

Horrekin batera, gazteak pisua galtzen joan dira. Izan ere, 2020an %20,7 dira 20 urte baino gutxiago dituztenak. Hortaz, gehiago dira 65 urte edo gehiagokoak 20 urtetik beherakoak baino (%24,4 versus %20,7).


Lurraldeari erreparatuz, gazteenen eta zaharrenen arteko alderik handiena Lapurdin dago (4 puntu), eta txikiena Nafarroa Beherean (1,1 puntu), eta ondoren Zuberoan (2,9 puntu).

1. irudia. Biztanleria adinaren eta lurraldearen arabera. Iparraldea, 2020 (%)



Biztanleriaren piramidean islatuta geratzen da adin talde zaharrenaren pisua, batez ere emakumezkoena.

2. irudia. Biztanleriaren piramidea. Iparraldea, 2020 (%)



2. HIZKUNTZA-GAITASUNA

2.1. Hizkuntza-gaitasuna Iparraldean, lurraldearen arabera


Hiru hiztun mota bereizten dira euskaraz hitz egiteko edo ulertzeko duten gaitasunaren arabera:

- **Euskalduna (elebiduna):** euskara ongi edo aski ongi ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
- **Euskaldun hartzailea (elebidun hartzailea):** Ez da euskaraz ongi edo aski ongi hitz egiteko gai. Hala ere, badu euskararen nolabaiteko ezagutza. Zehazki, multzo honetan sartzen da honako baldintza hauetakoren bat gutxienez betetzen duena:
 - Euskaraz “zertxobait” ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
 - Euskara “ongi” edo “aski ongi” ulertzeko gai da.
- **Erdalduna (erdaldun elebakarra):** ez da gai euskaraz ulertzeko ezta hitz egiteko ere.

2021ean, Iparraldean 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 20,1 euskalduna da, % 9,4 euskaldun hartzailea eta % 70,5 erdalduna.


Horrela, Iparraldean bizi diren 16 urte edo gehiagoko biztanleetatik 51.484 euskaldunak dira, 24.005 euskaldun hartzaileak eta 180.448 erdaldunak.

3. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. Iparraldea, 2021 (%)



Nafarroa Beherea eta Zuberoa dira euskaldunen ehunekorik handiena duten lurraldeak (%47,5). Lapurdin (BAM gabe) %22,9 dira euskaldunak. Azkenik, BAM eskualdea (Baiona-Angelu-Miarritze) da euskaldunen ehunekorik txikiena duena (%8,4).

4. irudia. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. Iparraldea, 2021 (%)




2. taula. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. Iparraldea, 2021

	Iparraldea	BAM	Lapurdi (BAM gabe)	Nafarroa Beherea /Zuberoa
Guztira	255.937	104.384	118.956	32.597
Euskaldunak	51.484	8.788	27.206	15.489
Euskaldun hartzaileak	24.005	6.439	13.082	4.484
Erdaldunak	180.448	89.157	78.668	12.623


Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Gibelera begiratzuz gero, azken hogeita bost urteotan, 6,3 puntuko jaitsiera izan du euskaldunen ehunekoak. 1996an, Iparraldeko euskaldunak %26,4 ziren, eta orain %20,1. Euskaldun hartzaileen ehunekoa, aldiz, ez da ia aldatu: %9,3 zen 1996 eta %9,4 2021ean.

5. irudia. Euskaldunen bilakaera. Iparraldea, 1996-2021


Euskaldunen beherakadarik handiena Nafarroa Beherean eta Zuberoan gertatu da. Hogeita bost urtean 16,5 puntutan egin du behera euskaldunen ehunekoak. Izan ere, 1996an, Nafarroa Behereko eta Zuberoako 16 urte edo gehiagoko euskaldunak %64 ziren, eta orain %47,5 dira.

6. irudia. Euskaldunen bilakaera lurraldearen arabera. Iparraldea, 1996-2021 (%)



2.2. Hizkuntza-gaitasuna sexuaren eta adinaren arabera

Sexuari dagokionez, ez dago alde handirik. Horrela, emakumezkoen artean % 20,3 dira Iparraldean euskaldunak eta gizonezkoen artean, berriz, % 20. Ikusten denez, aldea 0,3 puntukoa da euskaldunen ehunekoan emakumezkoen eta gizonezkoen artean.

Euskaldun hartzaileen ehunekoari erreparaturaz, % 9,7 dira emakumezkoen artean eta % 9,1, aldiz, gizonezkoen artean (0,6 puntuko aldea).

Erdaldunen kasuan, alderantziz da, handiagoa da gizonezkoen ehunekoa emakumezkoena baino (0,9 puntuko aldea).

3. taula. Hizkuntza-gaitasuna sexuaren arabera. Iparraldea, 2021 (%)

	Euskaldunak	Euskaldun hartzaileak	Erdaldunak
Guztira	20,1	9,4	70,5
Emakumezkoak	20,3	9,7	70,0
Gizonezkoak	20,0	9,1	70,9

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Adinari begiraturaz, euskaldunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoen artean dago, eta adinean behera egin ahala, euskaldunen ehunekoa behera doa, 25-34 adin-taldera iritsi arte, joera aldatzen baita (% 17,2 dira), 2 puntuko igoera duelarik aitzineko adin-taldearekin konparaturaz.


Igoerarik handiena, aldiz, 16-24 urte bitartekoen euskaldunen ehunekoa da (% 21,5 dira), 4 puntuko igoera aitzineko adin-taldearekin konparaturaz.

Arestian esan bezala, euskaldunen beherakada ez da berdin gertatzen adin-talde guztietan. Izan ere, gazteen artean euskaldunen ehunekoa jaitsi ordeztu egiten da, aurreko adin-multzoekin konparaturaz.

Euskaldunen ehunekorik txikiena 35-49 urte bitartekoen dute (% 15,1), eta handiena, aldiz, 65 urte edo gehiagokoen (% 25,7). Dena dela, daturik azpimarragarriena 16-24 eta 25-34 urte bitartekoen euskaldunen ehunekoa da: % 21,5 eta % 17,2 hurrenez hurren.


Horrek esan nahi du gazteen aldetik duela hamar urte antzemandako joera aldaketa-errealitate bilakatu dela, hau da, beheranzko joera gelditu eta goranzko bideari abiatu zaiola.

7. irudia. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Iparraldea, 2021 (%)



Azken 25 urteotako bilakaerari begiratuz gero, euskaldunen hazkundera gazteenetatik zabaltzen ari da. Horrela, 16-24 urte bitartekoen % 11,3 zen euskalduna duela 25 urte, eta egun 10 puntu handiagoa da. Era berean, 25-34 urte bitartekoen artean ere euskaldunen ehunekoak hazkundera izan du (% 13,6 ziren 1996n eta % 17,2 dira 2021ean). Gainerako adin-taldeetan, apaldu da euskaldunen ehunekoa. Apaltzerik handiena 35-49 adin-taldearena da, 12 puntukoa, hain zuzen.

8. irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2021 (%)



Euskaldunen ehunekoaren igoera gazteen artean hiru lurraldeetan gertatu da, 16-24 urte bitartekoen artean, hain zuzen.

Dena dela, euskaldunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoek dute lurralde guztietan BAMen izan ezik, eta adinean behera egin ahala, euskaldunen ehunekoa behera doa, gazteen adin-taldera iritsi arte.

BAM eskualdean, 16-24 urte bitartekoek dute gaur egun euskaldunen ehunekorik handiena (% 10,8) eta txikiena 35-49 urte bitartekoek (% 5,5).

Lapurdin (BAM gabe), euskaldunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoek dute (% 29) eta txikiena 35-49 urte bitartekoek (% 17,4).

Halaber, Nafarroa Behereko eta Zuberoako euskaldunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoek dute (% 60,9) eta txikiena, aldiz, 25-34 urte bitartekoek (% 32,8).

4. taula. Euskaldunak adinaren eta lurraldearen arabera. Iparraldea, 2021 (%)

	ADINA					
	Guztira	≥65	50-64	35-49	25-34	16-24
Iparraldea	20,1	25,7	19,3	15,1	17,2	21,5
BAM	8,4	10,6	7,5	5,5	7,8	10,8
Lapurdi (BAM gabe)	22,9	29,0	20,0	17,4	22,7	28,1
Nafarroa Beherea /Zuberoa	47,5	60,9	48,2	37,3	32,8	38,3

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

2.3. Gaitasun erlatiboa: euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko

Euskaldunen gaitasun erlatiboa aztertuko da orain, hau da, euskaraz eta erdaraz (frantsesez gehienetan) hitz egiteko erraztasuna.

Aurrerantzean erdara hitza erabiliko da euskara ez den beste edozein hizkuntza adierazteko.

Honako hauek dira euskaldunak gaitasun erlatiboaren arabera:


- **Euskal elebidunak:** erraztasun handiagoa dute euskaraz hitz egiteko erdaraz hitz egiteko baino.
- **Elebidun orekatuak:** bi hizkuntzetan erraztasun bera dute. Izan ere, euskaldun hauek adierazten dute euskaraz eta erdaraz, bietan, berdin hitz egiteko erraztasuna dutela.
- **Erdal elebidunak:** erraztasun handiagoa dute erdaraz hitz egiteko euskaraz hitz egiteko baino.

Iparraldean euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen direnak euskaldunen %20,5 dira.

Euskaraz zein erdaraz berdin moldatzen direnak euskaldunen %33,3 dira.

Erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen direnak euskaldunen multzorik handiena osatzen dute (%46,2).


9. irudia. Euskaldunak erraztasunaren arabera. Iparraldea, 2021 (%)



Lurraldeen artean erraztasunean dauden desberdintasunak handiak dira. BAM eskualdean % 55,7k erdaraz euskaraz baino errazago hitz egiten du. % 33,3 berdin moldatzen da euskaraz zein erdaraz, % 11k erraztasun handiagoa du euskaraz.

Lapurdin (BAM gabe) ere nagusi dira erdaraz hobeki moldatzen diren euskaldunak (% 51). Elebidun orekatuak 30,7 dira, eta euskal elebidunak % 18,3.

Nafarroa Beherean eta Zuberoan % 38 elebidun orekatuak dira, % 29,7 euskal elebidunak eta % 32,3 erdal elebidunak.


10. irudia. Euskaldunen erraztasuna lurraldearen arabera. Iparraldea, 2021 (%)


Adinari dagokionez, euskal elebidunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoek dute (% 27,4), eta txikiena 16-24 urte bitartekoek (% 8,8).

Elebidun orekatuen ehunekorik handiena 50-64 urte bitartekoek dute (% 41,2), eta txikiena 16-24 urte bitartekoek (% 12,3).

Azkenik, erdal elebidunen ehunekoa handiagoa da adinean behera egin ahala. Horrela, 16-24 urte bitarteko euskaldunen % 78,9 erdal elebiduna da, eta 25-34 urte bitarteko euskaldunen bi heren baino gehiago (% 68,9) eta 35-49 urte bitarteko euskaldunen erdia baino gehiago ere bai (% 53,8).

11. irudia. Euskaldunen erraztasuna, adinaren arabera. Iparraldea, 2021 (%)




Bilakaerari dagokionez, azken hogeita bost urteotan aldaketa nabaria izan da euskaldunen erraztasunean.

Horrela, 1996n Iparraldeko euskaldunen %34 hobeki moldatzen zen euskaraz erdaraz baino; orain, aldiz, %20,5 dira.

Euskaraz zein erdaraz berdin moldatzen direnen ehunekoa nahiko antzekoa da (%32,1 ziren 1996an eta %33,3 dira orain).

Azkenik, erdaraz hobeto moldatzen direnen ehunekoa handitu egin da. Izan ere, %33,9 ziren 1996an eta %46,2 dira gaur egun.

12. irudia. Euskaldunen erraztasunaren bilakaera. Iparraldea, 1996-2021 (%)



Adinaren arabera bilakaera aztertuz gero, ikus daiteke 2021ean bezala, 1996an ere euskal elebidunen ehunekoak behera egiten zuela adinean behera egin ahala, baina jaitsiera handiagoa zen. Izan ere, 16-24 urte bitartekoen eta 65 urte edo gehiagokoen arteko desberdintasuna 51 puntukoa zen (% 3,5 versus % 54,4). 2021ean, desberdintasuna txikiagoa da, 18,6 puntukoa, hain zuzen (% 8,8 versus % 30,6).

1996an elebidun orekatuen ehunekorik handiena 50-64 eta 25-34 urte bitartekoek zuten (% 40,4 eta % 36,3). 2021ean, 35-49 eta 50-64 urte bitartekoek dute (% 41,2 eta % 40,4).

Azkenik, 1996an erdal elebidunen ehunekorik handiena ere 16-24 eta 25-34 urte bitartekoek zuten (% 67,3 eta % 54,8). 2021ean ere ez da aldatu joera, baina erdal elebidunen ehunekoak handiagoak dira: 16-24 eta 25-34 urte bitartekoek dute ehunekorik handiena (% 78,9 eta % 68,9 hurrenez hurren).

5. taula. Euskaldunen erraztasunaren bilakaera adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2021 (%)

1996	ADINA					
	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskaldunak	56.146	19.943	13.075	15.281	4.658	3.189
Euskal elebidunak	34,0	54,4	39,8	16,3	8,9	3,5
Elebidun orekatuak	32,1	27,1	40,4	30,8	36,3	29,2
Erdal elebidunak	33,9	18,5	19,7	52,9	54,8	67,3
2021	Guztira	≥ 65	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskaldunak	51.484	19.019	12.064	9.084	5.675	5.641
Euskal elebidunak	20,5	27,4	22,5	15,3	13,2	8,8
Elebidun orekatuak	33,3	40,4	41,2	30,8	18,0	12,3
Erdal elebidunak	46,2	32,3	36,3	53,8	68,9	78,9

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

3. HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA


3.1. Lehen hizkuntza Iparraldean, lurraldearen arabera

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren ahaideengandik etxean jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 13,3k euskara soilik jaso du etxean eta % 6k euskara eta erdara jaso ditu etxean.

Era berean, biztanleriaren % 80,7k erdara soilik jaso du etxean. Erdara diogunean, frantsesari buruz ari gara nagusiki, baina ez da ahaztu behar gero eta gehiago direla lehen hizkuntza frantsesa ez den hizkuntza bat edo bat baino gehiago dituztenak.

13. irudia. Lehen hizkuntza. Iparraldea, 2021 (%)



16 urte edo gehiagoko biztanleen artean lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa duela 25 urte baino apalagoa da gaur egun: % 26,4 zen 1996an eta % 13,3 da 2021ean (13,1 puntuko apaltzea).

Lehen hizkuntza euskara eta erdara dutenen ehunekoa 0,8 puntu apaldu da azken 25 urteotan: % 5,2 zen 1996an eta % 6 da 2021ean.

Lehen hizkuntza erdara dutenen ehunekoa, aldiz, 1996an baino handiagoa da 2021ean (% 68,5 versus % 80,7).

6. taula. Lehen hizkuntzaren bilakaera. Iparraldea, 1996-2021

	1996	2021	1996 (%)	2021 (%)
Guztira	212.392	255.937	100,0	100,0
Euskara	56.051	33.988	26,4	13,3
Euskara eta erdara	10.958	15.327	5,2	6,0
Erdara	145.383	206.622	68,5	80,7

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.


Desberdintasunak daude lurraldeen arabera lehen hizkuntza euskara eskuratu dutenen artean.

Horrela, Nafarroa Behereko eta Zuberoako biztanleriaren % 38,8k euskara soilik eskuratu du etxean eta % 10,7k euskara eta erdara. Erdara soilik eskuratu dutenak % 51 dira.

Lapurdin lehen hizkuntza euskara soilik eskuratu dutenak % 13,6 dira eta euskara eta erdara eskuratu dutenak % 7,1. Erdara soilik eskuratu dutenak nagusi dira Lapurdin (% 79,3)


Azkenik, BAMen lehen hizkuntza euskara soilik eskuratu dutenak % 5,1 dira eta euskara eta erdara eskuratu dutenak, aldiz, % 3,3. BAMen lehen hizkuntza erdara dutenak erabat nagusi dira (% 90,7).

14. irudia. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. Iparraldea, 2021 (%)



3.2. Lehen hizkuntza sexuaren eta adinaren arabera


Emakumezkoen eta gizonezkoen artean desberdintasuna dago lehen hizkuntza euskara jaso dutenen ehunekoetan. Gehiago dira euskara jaso duten emakumezkoak gizonezkoak baino (2,6 puntuko aldea).

15. irudia. Lehen hizkuntza sexuaren arabera. Iparraldea, 2021 (%)


Adinari dagokionez, lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoek dute (% 21,9). Ehuneko horrek behera egiten du, adinean behera egin ahala. Gazteenen artean, 16-24 urte bitartekoaren artean, euskara soilik eskuratu dutenak % 3,7 dira.


Euskara eta erdara aldi berean eskuratu dutenen ehunekoak berdintsua da 35 urtetik gorakoaren artean (% 5 baino zertxobait txikiagoa). 35 urtetik beherakoaren artean, aldiz, gora egin du ehunekoak: 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean dago ehunekorik handiena (% 11,1).

Lehen hizkuntza euskara eskuratu dutenen ehunekoak Iparraldean hiru lurraldeetan ari da gibelera egiten adinak behera egin ahala.

16. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Iparraldea, 2021 (%)


Duela 25 urte ere lehen hizkuntza euskara zutenen ehunekorik handiena 65 urtetik gorakoek zuten (% 38), eta ehunekoak behera egiten zuen adinean behera egin ahala. Lehen hizkuntza euskara zutenen ehunekorik txikiena 16-24 urte bitartekoek zuten (% 11).

17. irudia. Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2021 (%)




3.3. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera

Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera sailkatuz gero, hiru multzotan banatzen dira:


- **Euskaldun zaharrak:** euskara soilik eskuratu dute gurasoengandik edo etxean bizi diren ahaideengandik hiru urte bete arte.
- **Jatorrizko elebidunak:** euskara eta erdara eskuratu dituzte gurasoengandik edo etxean bizi diren ahaideengandik hiru urte bete arte.
- **Euskaldun berriak:** ez dute euskararik eskuratu etxean gurasoengandik edo etxean bizi diren ahaideengandik. Etxetik kanpo ikasi dute euskara, eskolan edo euskaltegian.

Iparraldeko euskaldunen %60,4k euskara soilik eskuratu du etxean, hau da, euskaldun zaharra da. Euskaldunen %22,2k euskara eta erdara eskuratu ditu etxean, eta jatorrizko elebiduna da. Azkenik, % 17,4k etxetik kanpo, eskolan edo euskaltegian, jaso du euskara eta euskaldun berria da.

18. irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera. Iparraldea, 2021 (%)


Duela 25 urte ere euskaldun gehienak euskaldun zaharrak ziren (%85), baina ordutik 19,8 puntu egin du behera euskaldun zaharren ehunekoak. Gaur egun ez bezala, jatorrizko elebidunen ehunekoa txikiagoa zen (% 11,1 versus % 22,2) eta are txikiagoa euskaldun berrien ehunekoa (% 3,9 versus % 17,4).

Hortaz, Euskal Herriko gainerako lurraldeetan bezala, aldatzen ari da euskaldunen multzoa Iparraldean: euskaldunen artean pisua galtzen ari dira euskaldun zaharrak eta irabazten jatorrizko elebidunak eta, batez ere, euskaldun berriak.


19. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. Iparraldea, 1996-2021 (%)


Lurraldeen araberako datuei erreparatuz, desberdintasunak nabarmenak dira. Horrela, BAMen euskaldunen erdia baino gehiago euskaldun zaharrak dira (% 54,2), % 25 jatorrizko elebidunak eta % 20,8 euskaldun berriak.

Lapurdi (BAM gabe) ere euskaldunen erdia baino gehiago euskaldun zaharrak dira (% 54), euskaldunen laurdena jatorrizko elebidunak (% 24,6) eta euskaldunen bostena euskaldun berriak (% 21,4).

Azkenik, Nafarroa Beherean eta Zuberoan lau euskaldunetik hiru euskaldun zaharrak dira (% 75,1), % 16,5 jatorrizko elebidunak eta % 8,5 euskaldun berriak.

20. irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera, lurraldeka. Iparraldea, 2021 (%)




Adinari dagokionez, adinak behera egin ahala txikiagoa da euskaldun zaharren ehunekoa eta handiagoa euskaldun berriena eta jatorrizko elebidunena.

Euskaldun berrien hazkundera handia izan da adin-talde guztietan, baina bereziki gazteen artean. 2021ean 16-24 urte bitarteko euskaldunen %41,2 euskaldun berria da. 1996an, aldiz, adin-tarte horretako euskaldunen %2,6 ziren euskaldun berriak.

Jatorrizko elebidunen ehunekoak ere gora egin du adin-talde guztietan, gazteen artean izan ezik: 16-24 urtekoen artean %43,6 ziren 1996an eta %42,9 dira 2021ean.

1996an, euskaldun zaharrak ziren nagusi adin-talde guztietan. 2021ean ehunekoa txikiagoa bada ere adin-talde guztietan, euskaldun zaharrek nagusi izaten jarraitzen dute 35 urtetik gorakoen artean. Baina 35 urtetik beherakoen artean nagusitasuna galdu dute, eta ehunekoa gero eta txikiagoa da: 16 eta 24 urtekoen artean %15,9 dira.

21. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2021 (%)



3.4. Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa

Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko inkestatu guztiei galdetu zaie zein hizkuntza eskuratu duten etxean, euren gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera.

Kontuan izan behar da inkestatuen artean 16 eta ia 100 urte bitarteko pertsonak daudela. Horren ondorioz, orain dela ia ehun urtetik hona gurasoek nola transmititu duten euskara jakin dezakegu.


Gurasoak biak euskaldunak izanik, seme-alaben %63k euskara soilik eskuratu du etxean Iparraldean, %16k euskara eta erdara eta %21ek ez du euskararik eskuratu.

Guraso biak euskaldunak izanik, euskararen transmisioa txikiagoa da adinean behera egin ahala. Horrela, euskararen transmisiorik handiena 65 urtetik gorakoek dute (%67k euskara soilik jaso du etxean eta %14k euskara eta erdara).

Guraso biak euskaldunak izanik, adinak behera egin ahala hazi egin da hizkuntza bien transmisioa. 35 urtetik beherakoek artean %27k jaso dituzte euskara eta erdara etxean.

Guraso biak euskaldunak izanik, zerbait gora egin du etxean euskara jaso ez dutenen ehunekoak: 65 urtetik gorakoek artean %20 dira eta 65 urtetik beherakoek artean %24.


22. irudia. Transmisioa guraso biak euskaldunak direnean, adinaren arabera. Iparraldea, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, seme-alaben %26k euskara eta erdara eskuratu ditu etxean eta %74k ez du euskararik eskuratu.

Gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, adinean behera egin ahala handiagoa da euskararen transmisioa (erdararekin batera). Guraso euskaldun bakarra duten 35 urtetik gorako herritarren artean %15ek euskara jaso du etxean. 35 urtetik beherakoek artean hazi egin da euskararen transmisioa (erdararekin batera).

23. irudia. Transmisioa gurasoetako bat bakarrik euskalduna denean, adinaren arabera. Iparraldea, 2021 (%)


Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, ama edo aita euskalduna izan ez dago desberdintasun esanguratsurik euskararen transmisioan.


3-15 urte bitarteko seme-alabak dituzten familien hizkuntza-transmisioa

3-15 urteko ume eta gazteei etxean zein hizkuntza transmititu zaien jakiteko, adin horretako seme-alabak dituzten inkestatuei galdetu zaie.

Guraso biak euskaldunak izanik, 3-15 urte bitarteko seme-alaben %42k euskara soilik eskuratu du etxean eta %52k euskara eta erdara eskuratu ditu. Guraso biak euskaldunak izanik, 3-15 urte bitarteko seme-alaben %6k ez du euskararik eskuratu.

Gurasoetako bat euskalduna izanik, 3-15 urte bitarteko seme-alaben erdiak (%49) euskara eta erdara jaso ditu etxean, eta beste erdiak (%51) ez du euskararik jaso.

24. irudia. 3-15 urte bitarteko seme-alabei transmititutako hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera. Iparraldea, 2021 (%)



3.5. Euskararen irabaziak eta galerak

Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izan dutenen %86,2k euskara gorde du eta euskalduna da agur egun. Aldiz,%13,8k lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izanik, gaur egun ez da euskalduna. Hau da, 49.300 pertsonetatik euskara gorde dute 42.500ek, eta euskara galdu dute osorik edo partzialki 6.800ek. Galera gehienak galera partzialak izan dira (4.900 pertsona). Pertsona horiek euskaraz ondo hitz egin ez arren, gai dira ulertzeko. Gainerako 1.800 pertsonak erabat galdu dute euskara. Hortaz, galera osoak dira.

Aldi berean, lehen hizkuntza frantsesa edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan arren, euskara ikasi eta gaur egun euskaldun diren 8.900 pertsona daude. Euskaldun guztien %17,4 dira. Horiek irabazi osoak dira.


Badira beste 19.000 lagun lehen hizkuntza erdara izan arren, gaur egun euskaraz ulertzeko gai direnak, hau da, partzialki euskaldun berriak dira.

Ikusten denez, irabaziak galerak baino handiagoak dira dagoeneko. Hau da, gero eta gehiago dira lehen hizkuntza erdara izanik gaur egun euskaldunak direnak,

eta gero eta gutxiago lehen hizkuntza euskara izanik gaur egun euskaldunak ez direnak.

Adinaren arabera, euskararen irabaziak (osoak zein partzialak) handiagoak dira adinak behera egin ahala. Galerekin kontrakoa gertatzen ari da. Hau da, galerak (osoak zein partzialak) txikiagoak dira adinak behera egin ahala. Euskararen irabazirik handienak eta galerarik txikienak 16 eta 24 urte bitarteko gazteek dituzte.

25. irudia. Euskararen irabaziak eta galerak adinaren arabera. Iparraldea, 2021 (%)



Lurraldearen arabera, irabaziak galerak baino handiagoa dira hiru lurraldeetan. BAMen eta, bereziki, Lapurdin argi eta garbi: irabazi osoak galera partzialak eta osoak batuta baino handiagoak dira. Nafarroa Beherean eta Zuberoan, aldiz, irabazi osoak, hau da, euskaldun berriak (%4) galera partzialak eta osoak batuta (%5,5) baino zertxobait txikiagoak dira.

4. EUSKARAREN ERABILERA

4.1. Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak: korrelazioak

Euskararen erabilerari buruzko datuak eman aurretik, erabileran gehien eragiten duten faktoreak aztertuko dira. Horretarako, korrelazioen analisia egin da. Korrelazioen analisiaren bidez, aztertu nahi den aldagaian (erabileran) zer beste aldagaik eta zein neurritan eragiten duen aztertzen da.

Hiru erabilera-eremuren arabera korrelazioak egin dira: etxeko erabilera, lagunartekoa eta lankideen artekoa. Guztietan, bi dira erabileran gehien eragiten duten faktoreak: harreman-sareko euskaldunen dentsitatea (zenbatek dakiten euskaraz etxean, lagunartean edo lankideen artean) eta euskaraz mintzatzeko erraztasuna. Jarrerak, lehen hizkuntzak eta gune soziolinguistikoak ere eragin handia dute.

Iparraldean, etxeko erabileran gehien eragiten duen faktorea etxeko euskaldunen dentsitatea da, hau da, zenbatek dakiten euskaraz etxean (0,723). Bigarren faktorea erraztasuna da (0,486). Etxeko erabileran gehien eragiten duen hirugarren faktorea jarrera da (0,362). Laugarren faktorea lehen hizkuntza da (0,223).

7. taula. Korrelazioak: euskararen erabilera etxean. Iparraldea, 2021

	Euskaldunen proportzioa etxean	Erraztasuna euskaraz	Jarrera	Lehen hizkuntza
Etxean hitz egiten den hizkuntza	0,723	0,486	0,362	0,223

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Iparraldean, lagunarteko erabileran ere gehien eragiten duen faktorea lagunarteko euskaldunen dentsitatea da, hau da, zenbat lagunek dakiten euskaraz (0,634). Bigarren faktorea erraztasuna da (0,502). Hirugarren faktorea jarrera da (0,322). Laugarren faktore gisa, gune soziolinguistikoa agertzen da (0,300).

8. taula. Korrelazioak: euskararen erabilera lagunekin. Iparraldea, 2021

	Euskaldunen proportzioa lagunen artean	Erraztasuna euskaraz	Jarrera	Gune soziolinguistikoa
Lagunekin hitz egiten den hizkuntza	0,634	0,502	0,322	0,300

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Lankideen arteko euskararen erabilera zenbat lankideek dakiten euskaraz da faktore nagusia (0,819). Bigarren faktorea erraztasuna da (0,418). Hirugarrena, jarrera da (0,231). Laugarren faktore gisa, lehen hizkuntza agertzen da (0,184).

9. taula. Korrelazioak: euskararen erabilera lankideekin. Iparraldea, 2021


	Euskaldunen proportzioa lanean	Erraztasuna euskaraz	Jarrera	Lehen hizkuntza
Lankideekin hitz egiten den hizkuntza	0,819	0,418	0,231	0,184

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

4.2. Euskararen erabilera Iparraldean, lurraldearen arabera

Iparraldean, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %7,1ek euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du, % 11k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, %3,7k oso gutxitan erabiltzen du euskara eta gainerako guztiek (% 78,5) erdara soilik erabiltzen dute.

26. irudia. Euskararen erabileraren tipologia. Iparraldea, 2021 (%)




Euskararen erabilera zein den neurtzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak tipologia bat definitu du. Tipologia hori eratzeko kontuan hartu diren erabilera-eremuak honakoak dira:

- etxeke erabilera
- lagunarteko erabilera
- erabilera formala (dendak eta bankuak batetik, eta osasun-zerbitzuak eta udal zerbitzuak bestetik)

Erabilerari buruzko emaitzetan desberdintasun handiak daude lurralde batetik bestera. Izan ere, euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenak, hau da, euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak % 1,9 dira BAMen, % 7,4 Lapurdin (BAM gabe) eta % 27,9 Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Horietaz gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, % 7,2 dira BAMen, % 18,5 Lapurdin (BAM gabe) eta % 23,2 Nafarroa Beherean eta Zuberoan.


27. irudia. Euskararen erabileraren tipologia lurraldearen arabera. Iparraldea, 2021 (%)



Azken 25 urteotako bilakaera aztertuz gero, behera egin du euskararen erabilerak. Horrela, 25 urtean euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak 6,2 puntuko apaltzea izan du (% 13,3 zen 1996an eta % 7,1 da 2021ean).

Euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenen ehunekoak gorabehera txiki batzuk izan arren, ez da askorik aldatu: 1,2 puntu igo da 1996tik hona (% 9,8 zen 1996an eta % 11 da 2021ean).

28. irudia. Euskararen erabileraren bilakaera. Iparraldea, 1996-2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen jaitziera Iparralde osoan gertatu da, bereziki erabilera handieneko lurraldeetan. Jaitzierarik handiena Nafarroa Beherean eta Zuberoan izan da (20,6 puntu), ondoren Lapurdin (6,6 puntu), eta txikiena BAMen (0,3 puntu). Kontuan izan behar da BAMEk 1996an ere oso erabilera txikia zuela.

10. taula. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera lurraldearen arabera. Iparraldea, 1996-2021

	1996	2001	2006	2011	2016	2021
Iparraldea	13,3	9,9	10,6	9,6	8,1	7,1
BAM	2,2	1,5	1,6	2,1	0,8	1,9
Lapurdi (BAM gabe)	13,9	10,5	11,3	10,2	9,0	7,3
Nafarroa Beherea eta Zuberoa	43,8	33,5	36,5	30,6	27,9	23,2
Iparraldea	28.258	22.045	24.484	22.877	20.256	18.275
BAM	2.018	1.456	1.620	2.009	835	2.005
Lapurdi (BAM gabe)	12.367	9.887	10.879	10.911	10.319	8.708
Nafarroa Beherea eta Zuberoa	13.873	10.702	11.984	9.958	9.102	7.562

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

4.3. Euskararen erabilera sexuaren eta adinaren arabera

Sexuari dagokionez, euskararen erabilera handiagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino. Izan ere, euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajea % 8,3koa da gizonezkoen artean eta % 6,1ekoa emakumezkoen artean. Azken 25 urteotan, bere horretan mantendu da oro har gizonezkoen eta emakumezkoen erabileraren artean dagoen aldea.

11. taula. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera sexuaren arabera. Iparraldea, 1996-2021 (%)

	1996	2001	2006	2011	2016	2021
Gizonezkoak	14,2	11,7	11,9	10,8	9,1	8,3
Emakumezkoak	12,5	8,4	9,5	8,5	7,4	6,1
Guztira	13,3	9,9	10,6	9,6	8,1	7,1

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.


Euskararen erabilera adinaren arabera aztertuz gero, 65 urtetik gorako gizon-emakumeak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (% 9,4), eta ehunekoa gero eta txikiagoa da adinean behera egin ahala 35 urtera arte. Erabilerarik txikiena 35 eta 49 urte bitarteko herritarrek dute (% 4,8).

35 urtetik beherako herritarren artean, euskararen erabileran joera-aldaketa dago, jaitziera geratu baita. 25 eta 34 urte bitarteko herritarren % 5,8k erabiltzen du euskara erdara bezainbeste edo gehiago, eta 16-24 urte bitartekoek % 5,7k.

Bilakaerari dagokionez, 1996 eta 2021 artean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa apaldu egin da 35 urtetik gorakoek artean: -16,6 puntu 65 urtetik gorakoek artean, -12,3 puntu 50 eta 64 urte bitartekoek artean eta -2,7 puntu 35 eta 49 urte bitartekoek artean. Apaltzea txikiagoa da adinak behera egin ahala.

35 urtetik beherekoek artean euskararen erabilerak gora egin du 1996 eta 2021 bitartean. Euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak 1,3 puntu egin du gora 25-34 urte bitartekoek artean eta 4,4 puntu 16 eta 24 urte bitartekoek artean.

29. irudia. Euskararen erabileraren bilakaera adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2021 (%)



Adinaren arabera jokoera horiek errepikatu egiten dira Lapurdin eta Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Hau da, 65 urtetik gorakoak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, eta ehuneko gero eta txikiagoa da adinean behera egin ahala 35 urtera arte. 35 urtetik beherako herritarren artean, euskararen erabilerak gora egin du.

BAMen 35 urtetik beherakoen artean dago euskara erabiltzen dutenen ehunekorik handiena, eta ondoren 65 urtetik gorakoaren artean.

12. taula. Euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenak lurraldearen eta adinaren arabera. Iparraldea, 2021 (%)

	ADINA					
	Guztira	≥65	50-64	35-49	25-34	16-24
Iparraldea	7,1	9,4	8,0	4,8	5,8	5,7
BAM	1,9	2,0	1,5	0,9	3,9	2,1
Lapurdi (BAM gabe)	7,3	9,2	8,9	5,1	5,5	6,0
Nafarroa Beherea /Zuberoa	23,2	32,3	21,7	16,9	15,0	19,2

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.


4.4. Euskararen erabilera hainbat eremutan: etxean, lagunen artean, eremu formalean

Euskararen erabilera etxean

Iparraldean 16 urte edo gehiagoko biztanleen %9,0k euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen du etxean, %6,7k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, eta gainerako %84,3k erdara erabiltzen du.

Etxeko kideen arteko euskararen erabilerarik handiena seme-alabekin egiten da (%11,1). Euskararen erabilerarik txikiena etxeko kideen artean, aldiz, aitarekin (%6,6) eta bikotekidearekin (%7,7) egiten da. Amarekin %8,2k erabiltzen du euskara erdara bezainbeste edo gehiago, eta haurrideekin %10,5ek.

30. irudia. Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak. Iparraldea, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Azken 25 urteotako bilakaera kontuan hartuz gero, euskararen erabilerak behera egin du etxean (7 puntu). Apaltzeak 11 puntukoak izan dira aitarekin eta amarekin, 9 puntu ingurukoak bikotekidearekin eta haurrideekin, eta 5,4 puntukoak seme-alabekin.

13. taula. Etxean euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Iparraldea, 1996-2021(%)

	1996	2001	2006	2011	2016	2021
Etxean denak elkarrekin daudenean	16,0	11,9	12,4	10,7	9,5	9,0
Bikotekidearekin	16,5	12,2	10,6	10,8	9,0	7,7
Seme-alabekin	16,5	10,7	12,3	11,1	9,4	11,1
Amarekin	19,2	13,8	15,6	9,9	10,0	8,2
Aitarekin	17,8	13,6	15,5	8,2	8,5	6,6
Haurrideekin	19,6	15,0	16,8	13,7	13,6	10,5

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskararen erabilera lagunartean

Iparraldean 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 12,1ek euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen du lagunekin, % 7,2k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago, eta gainerako % 80,7k erdara erabiltzen du.

Azken 25 urteotan, 5,1 puntu apaldu da lagunekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa, baina 2016 eta 2021 artean apaltzea txikiagoa izan da, puntu erdikoa baino ez.

14. taula. Lagunekin euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Iparraldea, 1996-2021 (%)

	1996	2001	2006	2011	2016	2021
Erabilera lagunekin	17,2	14,1	17,0	14,5	12,6	12,1

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Euskararen erabilera eremu formalean


Atal honetan hiru erabilera-eremu aztertuko dira: erabilera lankideekin, erabilera eremu pribatuan (dendariekin eta bankukoekin) eta erabilera eremu publikoan (osasan-zerbitzukoekin eta udal zerbitzukoekin).

2021ean, lankideekin euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenak % 7,9 dira Iparraldean. Euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago % 4,2 dira, eta beti erdara erabiltzen dutenak % 88.

Eremu pribatuan, dendariekin % 5,8k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago eta bankukoekin % 2,4k. Bi erabilera-eremu horietan euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago % 7,4 eta % 2,6 dira, hurrenez hurren.

Eremu publikoari dagokionez, osasan-zerbitzukoekin % 4,9k erabiltzen du euskara erdara bezainbeste edo gehiago eta udal zerbitzukoekin % 7,1ek. Bi erabilera-eremu horietan euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago % 4,4 eta % 3,9 dira, hurrenez hurren.

31. irudia. Eremu formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak. Iparraldea, 2021 (%)



Azken 25 urteotan 4 puntu egin du behera lankideekin euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak, 4,9 puntu dendariekin eta 6,7 puntu bankukoekin.

Eremu publikoan, apaltzea 0,8 puntukoa izan da osasun-zerbitzukoekin eta 7,3 puntu udal zerbitzukoekin. Hala ere, azpimarratu behar da 2016 eta 2021 bitartean, erabilera lankideekin alde batera utzita, herritarren euskararen erabilera eremu formal pribatuan zein publikoan oso aldaketa txikia izan duela (puntu batekoa baino txikiagoa).

15. taula. Eremu formalean euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Iparraldea, 1996-2021 (%)

	1996	2001	2006	2011	2016	2021
Lankideekin	11,9	8,5	10,9	10,9	10,3	7,9
Saltegiekin	10,7	7,6	7,4	6,6	5,8	5,8
Bankukoekin	9,1	6,9	5,7	3,0	2,3	2,4
Osasun-zerbitzukoekin	5,7	6,2	4,0	3,5	4,2	4,9
Udal zerbitzukoekin	14,4	9,1	10,2	8,3	7,9	7,1

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

4.5. Euskararen erabilera sare sozialetan

Interneteko sare sozialetan gehien erabiltzen den hizkuntza frantsesa da. Hala ere, erabiltzaileen %5,6k maiztasun handiz erabiltzen du euskara (%50 edo gehiago erabiltzen du euskara). Gazteen artean (16-24 urte), euskara maiztasun handiz erabiltzen dutenak ere %5,6 dira (izan ere, euskararen erabilera oso antzekoa da adin-talde guztietan).

Frantsesaz eta euskaraz gain, erabiltzaileek beste hizkuntza batzuetan ere dihardute Interneten (%10,4), nagusiki ingelesez eta gaztelaniaz.

5. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA

5.1. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera Iparraldean, lurraldearen arabera


Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, euskara sustatzearen alde edo kontra erakutsi duten lau iritziren arabeko tipologia eratu da.

Honako hauek dira tipologia osatzeko aintzat hartu diren iritziak:

- Zerbitzu publikoetan lan egiteko euskara jakin beharko litzateke
- Hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino
- Haur guztiek euskara ikasi beharko lukete
- Irrati/telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz

Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %36,3 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, %49,2 ez alde ez aurka, eta %14,5 aurka dago.

32. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera. Iparraldea, 2021 (%)




1996ko eta 2021eko datuak konparatuz, Iparraldean euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak 6 puntuko apaltzea izan du: %42,3 ziren 1996an, eta %36,3 dira 2021ean. Dena dela, 2016ko inkestarekin alderatuz, puntu 1eko emendatzea izan du euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak.

Ez alde ez aurka direnen jarrera, aldiz, 3,8ko emendatzea izan du 1996ko inkestarekin alderatuz (% 45 versus % 49,2).

Azkenik, aurkako jarrerak emendatze txiki bat izan du, 1,8 puntukoa, alegia (% 12,7 versus % 14,5).

33. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera. Iparraldea, 1996-2021 (%)




Euskara sustatzearen aldeko jarrera handiagoa da Nafarroa Beherean eta Zuberoan (% 48,7), Lapurdin (% 39,2) eta BAMen (% 29,2) baino.

BAMen, biztanleriaren erdia baino gehiagok ez du ez alde ez aurkako jarrerarik (% 52,4), eta Lapurdin ere ia biztanleriaren erdiak ez du ez alde ez aurkako jarrerarik (% 49,4). Nafarroa Beherean eta Zuberoan gutxiago dira ez alde ez aurkako jarrera dutenak (% 38,4).

Euskararen erabilera sustatzearen aurkako jarrerarik handiena BAMen dago (% 18,5), eta txikiena Lapurdin (% 11,4) eta Nafarroa Beherean eta Zuberoan (% 12,9).


34. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera lurraldearen arabera. Iparraldea, 2021 (%)



Jarreraren tipologia osatzeko erabili diren iritzien erantzunak honakoak dira:

- Zerbitzu Publikoetan lan egiteko euskara jakin beharko litzatekeela uste du Iparraldeko biztanleen %58,1ek, %15,9 ez dago ez alde ez aurka. Bestalde, %25,9 dira iritzi horren aurka daudenak.
- Hobe dela jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino, uste du %44,3k (euskararen erabilera sustatzearen kontrakoak), %25,5 ez dago ez alde ez aurka. %30,2 dira iritzi horren aurka daudenak (euskara erabilera sustatzearen aldekoak).
- Haur guztiek euskara ikasi beharko luketela uste du %52k, %21,5 ez dago ez alde ez aurka, %26,4 aurka dago.
- Azkenik, irrati eta telebistek programa gehiago beharko luketela euskaraz uste du %53,6k, %28,9 ez dago ez alde ez aurka, %17,5 aurka dago.

35. irudia. Jarreraren tipologia osatzeko iritziak. Iparraldea, 2021 (%)




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

5.2. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera hizkuntza-gaitasunaren, sexuaren eta adinaren arabera

Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskaldunen %70,1 dago euskararen erabilera sustatzearen alde, euskaldun hartzaileen %48,4 eta erdaldunen %25,1.

36. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera, hizkuntza-gaitasunaren arabera. Iparraldea, 2021 (%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Sexua begiratzuz, emakumezkoek gizonezkoek baino aldeko jarrera zerbait handiagoa dute: % 37,3 versus % 35,1 (2,2 puntu). Ez alde ez aurkako jarrerarekin alderantziz gertatzen da, % 47,6 dira emakumezkoak eta % 51 gizonezkoak (3,4 puntuko aldea). Aurkako jarreran, aldiz, desberdintasuna txikiagoa da (1,2 puntu).


16. taula. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera sexuaren arabera. Iparraldea, 2021 (%)

	Alde	Ez alde ez aurka	Aurka
Guztira	36,3	49,2	14,5
Emakumezkoak	37,3	47,6	15,0
Gizonezkoak	35,1	51,0	13,8

Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

Adinari dagokionez, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerarik handiena 65 urte edo gehiagokoek dute (% 41,1). Ondoren, 35-64 urte bitartekoek (% 36 baino gehiago) dute aldeko jarrerarik handiena. 16-24 urte bitarteko gazteak dira, aldiz, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera txikiena dutenak (% 24,6).

37. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera, adinaren arabera. Iparraldea, 2021 (%)




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

5.3. Euskarari buruzko interesa eta beste zenbait iritzi

Euskarari buruzko interesari buruz galdetuta, Iparraldeko biztanleriaren %60,5ek interes biziki edo aski handia du euskararekiko, %21,4k zerbait, %17,1ek interes aski edo arrunt ahula, eta%0,7k ez daki edo ez du erantzun.


38 . Euskarari buruzko interesa. Iparraldea, 2021 (%)



Euskarari buruzko bestelako iritzi batzuekin jarraituz, Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %54k murgiltze-eredua (%16,5) edo eredu elebiduna (%37,5) aski luke seme-alabentzat (euskaraz, frantsesa ikasgai gisa edo euskaraz eta frantsesez), eta gutxiago dira frantsesa nagusiki erabiltzen duen irakaskuntza aski luketenak (%39,9).

Duela 25 urte, hau da, 1996an, txikiagoa zen murgiltzen ereduaren eta eredu elebidunaren aldeko hautua (%41,4) eta handiagoa, aldiz, frantsesa soilik edo euskara soilik ikasgai gisa erabiltzen duen irakaskuntzaren aldekoa (%56).

Azpimarratzekoa da 25 urtean ikasgaiak euskaraz irakastearen aldeko hautuak, murgiltze ereduak, alegia, izan duen hazkundera, 8,5 puntukoa hain zuzen ere (%7 versus %16,5).

39. irudia. Seme-alabarik izanez gero, zein hizkuntzatan nahiko zenuke haiek ikastea?
 Iparraldea, 1996-2021 (%)



Bestalde, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %93,7k etorkizunean euskaraz eta frantsesez hitz egin beharko litzatekeela uste du, %1,9k euskaraz soilik eta %3,2k frantsesez soilik.

Era berean, euskaldunei galdetu zaie ea inoiz diskriminatuak sentitu diren euskara erabiltzeko hauturik ez izateagatik, eta %22,3k erantzun du diskriminatuak sentitu dela. Erdaldunei galdetu zaie, ordea, ea inoiz diskriminatuak sentitu diren euskara ez jakiteagatik, eta %45,8k erantzun du diskriminatua sentitu dela.

Euskararen Erakunde Publikoa euskararen arloan egiten ari den lanari buruz galdetuta, Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko herritarren %47,7ri egokia iruditzen zaio, %23,2ri desegokia, %9,4ri berdin zaio, eta gainerako %19,8k ez daki edo ez du erantzun.


Lurraldeen arabera, Nafarroa Behereko, Zuberoako eta Lapurdiko biztanleak dira Euskararen Erakunde Publikoa euskararen arloan egiten ari den lana egokia dela uste dutenen ehunekorik handiena dutenak (%53,9 eta %49 hurrenez hurren), eta BAMEkoak txikiena (%44,3).

40. irudia. Euskararen Erakunde Publikoak euskararen alde egindako lanaren balorazioa lurraldearen arabera. Iparraldea, 2021 (%)



Euskarari buruzko beste iritzi batzuez ere galdetu zaie inkestatuei. Laburbilduz, emaitzak honakoak dira:

- Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean gutxiengoak uste du euskara beharrezkoa dela jendearekin komunikatzeko: % 39 alde dago, eta % 44,4 aurka.
- Iparraldean % 43k uste du euskarak ez duela frantsesak duen garrantzia izango. Biztanleriaren % 29,5ek kontrakoa uste du. Beste % 27,5 ez dago ez alde ez kontra.
- Euskara soilik etxekoekin eta lagunekin erabiltzeko dela baieztapenaren aurka dago biztanleriaren % 73,7 eta % 16,1 alde. Gainerakoak ez daude ez alde ez aurka (% 10,2).
- Bi hizkuntza izateak ez duela arazorik sortzen gizartean uste du % 79,3k; % 11,9k, aldiz, uste du arazoak sortzen dituela.
- Euskaraz egiten duten dendetara joatea nahiago izateari buruz, euskaldunen % 54,8 alde dago, %, % 28,3 ez alde ez aurka, eta % 16,9 aurka.
- Euskaldunek ezezagunei lehen hitza euskaraz egiteari dagokionez, Iparraldeko biztanleen % 39,6 ados dago eta % 35,8 aurka, eta % 24,6 ez dago ez alde ez aurka.

41. irudia. Euskarari buruzko beste zenbait iritzi. Iparraldea, 2021 (%)


Bestalde, Iparraldean gehiago dira euskara galtzeko arriskuan dagoela uste dutenak (%46,7) kontrakoa uste dutenak baino (%40,5). Gainerakoak ez daude ez alde ez aurka edo ez dakite edo ez dute erantzun.

Euskaldunak bakarrik kontuan hartuz, are handiagoa da euskara galtzeko arriskuan dagoela uste dutenen iritzia (%53), eta txikiagoa, aldiz, kontrakoa uste dutenen ehunekoa (%37,4).

6. LABURBILDUZ

- Iparraldeko biztanleriak bi ezaugarri adierazgarri ditu: gero eta gizarte zaharragoa da (65 urtetik gorakoak 20 urtetik beherakoak baino gehiago dira: % 24,4 versus % 20,7) eta kanpotik etorritako pertsonen proportzioa handia da, bereziki kostaldean. Ondorioz, migrazio-saldo positiboaren eraginez, Iparraldeko biztanleria emendatzen ari da, baina saldo naturala negatiboa da (11,7 heriotza 1.000 biztanleko versus 8,7 sortze 1.000 biztanleko).
- Iparraldean 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 20,1 euskalduna da, % 9,4 euskaldun hartzailea eta % 70,5 erdalduna. Iparraldeko euskaldunak duela 25 urte baino gutxiago dira (4.700 gutxiago) eta hauen kopuru erlatiboak gutxituz jarraitzen du (kanpotik datorren biztanleria dela medio, bereziki), baina lehen aldiz, zenbaki absolututan euskaldun kopurua egonkortu da: gaur egun, 51.500 euskaldun daude, hots, 2016an baino gehiago.
- Iparraldean, proportzionalki, Nafarroa Behera eta Zuberoa eremu euskaldunenak dira (biztanleriaren % 47,5 euskalduna da), erran nahi baita 15.500 euskaldun daudela. Lapurdi BAM gabe da euskaldunen kopururik handiena duena: 27.200 hiztun, biztanleriaren % 22,9 osatuz. BAMen % 8,4 euskalduna da 8.800 hiztunekin.
- Zaharrenek (65 urtetik gorakoek) euskaldunen zati nagusia osatzen dute oraindik: euskaldunen % 25,7. Haatik, azken hamar urteotan agertzen zen joera konfirmatu da: euskaldun gazteen kopuruak eta ehunekoak iraunkorki emendatuz jarraitzen dute. Horrela, 16-24 urte bitartekoen artean, euskaldunen ehunekoak handitzen jarraitzen du, bai aitzineko inkestekin konparatuz eta bai 25-34 urteko adin taldearekin konparatuz: 2021ean, % 21,5, dira 16-24 urte bitartekoak, % 11,3 zirelarik 1996an; eta % 17,2, 25-34 urte bitartekoak.
- Euskaldunek euskaraz egiteko duten erraztasunari dagokionez, behera egin du azken 25 urteotan. 1996an euskaldunen % 34 hobeto moldatzen zen euskaraz erdaraz baino, eta orain % 20,5 da, eta gazteen artean % 8,8.
- Biztanleriaren % 13,3k euskara soilik jaso du etxean eta % 6k euskara eta erdara jaso ditu etxean. Adinak behera egin ahala, gutxiago dira lehen hizkuntza euskara soilik dutenak eta gehiago lehen hizkuntza euskara eta erdara dituztenak.

- Hamar euskaldunetik zortzi (% 82,6) euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak dira, hau da, etxean eskuratu dute euskara (euskara soilik edo erdararekin batera). Adinak behera egin ahala, gero eta handiagoa da euskaldun berrien ehunekoa. Izan ere, 16-24 urte bitarteko gazteen %41,2k etxetik kanpo ikasi du euskara, eskolan edo euskaltegian.
- Bi gurasoak izanik euskaldunak, 3-15 urte bitarteko seme-alaben %42k euskara soilik eskuratu du etxean, eta %52k erdararekin batera. Gurasoetako bat izanik euskalduna, haurren erdiak jaso du euskara etxean erdararekin batera (%49).
- Iparraldeko biztanleen %7,1ek euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen du. Beste %11k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.
- Euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa 6,2 puntu apaldu da azken 25 urteotan; 1,2 puntu hazi da, aldiz, euskara erdara baino gutxiago dutenen ehunekoa. Euskararen erabilerearen apaltzea hiru lurraldeetan gertatu da.
- 1996tik hona, euskararen erabilera behera egin du esparru guztietan, hau da, etxean, esparru hurbilean eta esparru formalean. Hala ere, azken 5 urteetako datuak kontuan hartuz gero, euskararen erabilera lagunekin eta eremu formalean (publikoan zein pribatuan) ez da apaldu.
- Erabilera adinaren arabera aztertuz gero, 65 urtetik gorako gizon-emakumeak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%9,4), eta ehunekoa gero eta txikiagoa da adinean behera egin ahala 35 urtera arte. 35 urtetik beherako herritarren artean, euskararen erabilera joera-aldaketa dago, jaitsiera geratu baita.
- 2021ean, biztanleen %36,3 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, %49,2 ez dago ez alde ez aurka, eta aurka daudenak gutxiengoak dira, %14,5. Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak 6 puntuko apaltzea izan du 1996ko inkestarekin konparatuz (%36,3 versus %42,3).
- Biztanleen gehiengoak interes handia erakusten du euskararekiko (%60,5). Irakaskuntzari dagokionez, murgiltze-eredua edo eredu elebiduna hautatzen dutenen ehunekoa %54koa da. Bestalde, 16 urtetik gorakoen gehiengo handiak (%93,7) etorkizunean euskaraz eta frantsesez hitz egin beharko litzatekeela uste du (%1,9k euskaraz soilik eta %3,2k frantsesez soilik).

FITXA TEKNIKOA

- Aztertutako unibertsoa Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleria izan da.
- Ikerketaren diseinua, laginaren prestaketa, datuen ustiaketa eta lanketa Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin du. Nafarroako Foru Komunitateko lagina NASTATen bidez eskuratu da.
- Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko landa-lana SIADECO Koop EM enpresak egin du, eta COHDA enpresak Iparraldekoa.
- Datu-bilketa telefono bidez egin da 2021eko ekain eta abendu bitartean, galde-sorta egituratu eta itxia erabiliz.
- Laginketa polietapikoa eta geruzatua izan da, gune soziolinguistikoaren eta udalerraren arabera, inkestatu beharreko etxebizitzaren banaketa hautatzean.
- Inkestaren emaitzen haztaketa 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren banaketaren arabera egin da, sexua, adina eta hizkuntza-gaitasuna kontuan hartuz lurralde bakoitzean.
- 8.550 inkesta egin dira guztira: 4.550 Euskal Autonomia Erkidegoan, 2.000 Nafarroako Foru Komunitatean eta 2.000 Iparraldean.
- Euskal Herriko lagin osoaren akats tarteak $\pm 1,38\%$ koa da $\% 95,5$ eko konfiantza mailarako eta $p=q=50\%$. Konfiantza maila bererako euskaldunen akats-tarteak $\pm 1,82\%$ koa da, eta euskaldun hartzaileena eta erdaldunena $\pm 1,82\%$ koa.
- Euskal Autonomia Erkidegoan lagin osoaren akats tarteak $\pm 1,76\%$ koa da $\% 95,5$ eko konfiantza mailarako eta $p=q=50\%$. Konfiantza maila bererako euskaldunen akats-tarteak $\pm 2,09\%$ koa da, eta euskaldun hartzaileen eta erdaldunen akats-tarteak $\pm 2,49\%$ koa.

Konfiantza maila bererako laginketa-errorea lurraldearen arabera honakoa da: $\pm \% 3,74$ koa Araban, $\pm \% 2,66$ koa Bizkaian eta $\pm \% 2,78$ koa Gipuzkoan.

- Nafarrorako Foru Komunitatean lagin osoaren akats-tartea $\pm 2,90$ koa da 95,5eko konfiantza mailarako eta $p=q=\% 50$. Konfiantza maila bererako euskaldunen akats-tartea $\pm \% 3,19$ koa da, eta euskaldun hartzaileena eta erdaldunena $\pm \% 3,33$ koa.

Konfiantza maila bererako laginketa-errorea hizkuntza-eremuaren arabera honakoa da: $\pm \% 4,41$ koa eremu euskaldunean, $\pm \% 3,74$ koa eremu mistoan eta $\pm \% 5,87$ koa eremu ez euskaldunean.

- Iparraldean lagin osoaren akats-tartea $\pm 2,31$ koa da 95,5eko konfiantza mailarako eta $p=q=\% 50$. Konfiantza maila bererako euskaldunen akats-tartea $\pm \% 5,7$ koa da, eta euskaldun hartzaileena eta erdaldunena $\pm \% 2,36$ koa.

Konfiantza maila bererako laginketa-errorea lurraldearen arabera honakoa da: $\pm \% 3,54$ koa BAMen, $\pm \% 3,68$ koa Lapurdin (BAM gabe) eta $\pm \% 4,48$ koa Nafarroa Beherean-Zuberoan.